

'Bergarako
besarkada'
erakusketa
modura, abuztu
amaieran | 13

Hiru
proposamen,
Oñatiko
igerileku eta
kiroldegirako | 15

Eibarren eta Sanseren arteko
lagunartekoa, Arrasaten | 22



Bergarako Udal Gobernuako alderdiek erabakita,
UNED Errege Seminarioan geratuko da | 12



Belako taldea Eskoriatzan
izango da bihar, zapatua | 24

GIPUZKOAKO BIRIBILGUNEKO "ZATIRIK KONPLIKATUENA"

Urtarrilean hasiko dituzte Deskarga
eta Bergara arteko errepideko obrak | 2



Errepide berria
Antzuolako
eskuinaldetik
pasatuko da.



Biribilgune berria, Bergarako sarreran.



Errepidea, Goizperren eskuinaldetik.



Deskarga gainerako bidean.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

SINADURAK

	Oporretako irakurketak 6 IBANE ABASOLO
	13 Ander Bolibar KARTOGRAFIA DIGITALA
	'Bilbin' elkar ikusiko dugu 16 XABIER ETXEBARRIA
	17 Mural kolektiboa PALOMA MARTINEZ
	'Euskadi marka' 21 RAFAEL BENGOA
	32 Pokemon parkean IDOLIA ETXEBARRIA

IRAILAREN 2RA ARTE, PARENTESIA

Hurrengo GOIENA
papera irailaren
2an, egubakoitza,
argitaratuko dugu.
Ondo izan!

Autoexijentzia eta koerantzukizuna berpiztu gura ditu Mondragonek

Sotilek Uzinen esku utzi du taldeko presidente kargua, urteko kongresuan | 5

puntua

ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

- Aznarez, aldaketaren alde lanean
- 'Brexit'-a: beste status batera bidean

HURRENGO 'PUNTUA'
IRAILAREN 2AN

ABUZTUAN ZABALIK **LIRAIN**
ESTETIKA ZENTROA

ABUZTUAREN 1etik 12ra
Astelehenetik ostiralera
09:30-18:30

ABUZTUAREN 16tik 31ra
Astelehenetik ostiralera
09:30-17:30

LARUNBATETAN ITXITA

Bixente Ferrer, 1 Arrasate Tel.: 943 79 52 17 Ez da osasun zentroa RPS: 48/14
www.lirainestetika.com

REALA vs EIBAR

LASUNARTEKO PARTIDA
KILOMETROAK 2016REN ALDE

ABUZTUAK 18, 19:00ETAN
ASORROSIN FUTBOL ZELAIAN
(BERSARA)

Sarrerak salgai: Kilometroak Dendan, Depor tabernan eta Pol-Pol tabernan (Bergara).
Salneurria: 8 € 12 urtez azpikoek eta 15 € gainontzekoek.

Antolatzaileak:

DMASA KILOMETROAK 2016 BERSARA

ikastoleneikartea

ARANZADI ikastola
Kaltitateko Euskal Heziketa

Babeslea: **REAL SOCIEDAD FUNDAZIOA**

Laguntzaileak: **goiena**

Bergarako Udalak

Antzuola eta Bergara lotuko dituen errepideko lanak urtarilean hasiko dira

- Gipuzkoako Aldundiak aurkeztu du GI-632 errepidearen lehiaketarako aurrekontua
- Bergara-Antzuola bidegorria barne hartzen du eta bidesaria ordaindu beharko da

XABI GOROSTIDI | DEBAGOIENA

Markel Olano Gipuzkoako ahal-dun nagusiak eta Aintzane Oiarbide Bide Azpiegituretako diputatuak Bergara eta Antzuola lotuko dituen GI-632 errepideko lehiaketa proiektua aurkeztu zuten pasa den martitzenean.

Proiektu estrategikoa

Azpiegitura mailan, "legealdiko proiekturik garrantzitsuen" bezala izendatu du Olanok, Gipuzkoako biribilgunea deituriko proiektua gauzatzeko azken pieza izango delako.

Gaitasun handiko errepide sare hori A-8, A-15, N-1 eta AP-1 errepideek osatzen dute. Antzuola eta Bergarako errepide zatia-ekin N-1 eta AP-1 errepideak lotuko dira, biribilgunea guztiz osatuz eta Gipuzkoako bailara guztiak konektatuz. "Gipuzkoar guztiek 15 kilometro baino gutxiagora edukiko dute errepide sare honetara sarbidea eta horrek lurralde arteko oreka ahalbidetuko du", adierazi du Olanok. Hobe-kuntza honi esker, Debagoieneko, Urola Goieneko eta Goierriko enpresen lehiakortasuna ere hobetzea lortu nahi du Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuak.

Bost kilometro luze izango da bide berria. Bergarako Benta Berrin hasi eta Deskargako tunel berrian bukatuko da. Era horretan, Beasain eta Bergara lotuko dituen Deskargako autobia guztiz osatuta geratuko litzateke.

Zailtasun geologikoak

Geologia eta geoteknika ikerketa lan sakona egin dute proiektu berria diseinatzeko orduan. Horretarako, geoteknika alorreko profesionalekin batera, errepideak aurretik izandako ezpona eta lur-jausi arazoak saihesteko proiektua diseinatu dute. Aurretik egindako estruktura errespetatu dituzte eta lur horiek aspalditik dituzten mugimenduak kontuan hartuz egin dute diseinu berria.

Irailean aurkeztutako aurrekontua 33 milioi ingurukoa izan zen, baina ikerketa prozesua egin ondoren, 45.885.940 euroko aurrekontua aurkeztu du Aldundiak. Kopuru horrek ez du BEZa barne hartzen, baina, lanak Bidegiren izenean eginda, BEZ hori berreskuratzea izan dute helburu. "Aldundiaren izenean egingez gero, %21eko BEZa ordaindu beharko genuke. Bidegiren bitar-



Saio informatiboko hizlariak jendaurrean. | MAITE TXINTXURRETA

Antzuolarren iritzia jasotzeko bilera

Asteazkenean saio informatiboa egin zuten Torresoroan, antzuolarrei proiektuari buruzko informazioa emateko. Bertan parte hartu zuten Aintzane Oiarbide Bide Azpiegituretako diputatuak, Silvia Perez Bide Azpiegituretako Departamentuko zuzendariak, Jose Mari Sarasola Bide Azpiegituretako eta Eraikuntza zerbitzuko buruak eta Antzuolako eta Bergarako alkateak. Gerturatutako 63 antzuolarrek euren kezak azaldu zituzten, gehienak denbora luzez lanen eraginak jasan ondoren bidesaria ordaindu beharra izateagatik.

tez egiteak atzerapen txiki bat ekarri du, baina era horretan 10 milioi euroko aurrezpena lortuko da", azaldu du Oiarbidek. Hala ere, aurrezpenak aurrezpen, bertatik igarotzen diren auto eta kamioiek bidesaria ordaindu beharko dute, nahiz eta prezioa ez duten oraindik zehaztu.

Bidegorria barne

Proiektuak barne hartzen du Antzuola eta Bergara lotuko dituen bidegorria ere. "Zentzu honetan, bi herri hauetako biztanleen mugikortasuna hobetu nahi dugu. Proiektu berri hau egin ezean, ezinezkoa litzateke bidegorria eraikitzea, segurtasun faltagatik eta edukiko lukeen kostu altuagatik", adierazi zuen Oiarbidek.

Azaro bukaeran egingo da lanen esleipena, eta orduan zehaztuko da lanen kostu totala zenbatekoa izango den. Datei dago-kienez, 2017ko urtarrilean lanak martxan jartzea espero du Diputazioak, 25 hilabetea amaitzeko aurreikuspenarekin.

Amaitzeko, proiektuaren barne sartu dute etorkizunean San Migueleko tunelaren bitartez Deskargako zatia zuzenean AP-1 errepidera lotzeko aukera.

Harreman GKEak 14.875 euro batu ditu Siriako herritarrei laguntzeko

Positiboki baloratu dute kanpaina, diruaz gain oinarritzko produktuen bilketa zabala egin baitute

X.G. | DEBAGOIENA

Harreman erakundeak Arrasateko Udalarekin eta norbanako pertsonekin batutako 14.875 euroko txekia eman dio Euskadiko Mugarik Gabeko Medikuek Elkarteari. Siriako herriari laguntzeko diru-bilketa martxoaren 17an hasi zen, eta martitzenean egindako prentsaurrekoarekin eman zitoten amaiera.

Javier Ruiz de Muniain Harremaneko lehendakariak "oso positiboki" baloratu du kanpaina, diru eta oinarritzko produktu kopurua polita pilatzea lortu dutelako. Guztira, 14.875 euro, 303 manta, 128 lo-zaku, haurrak eramateko 62 motxila eta 49 makulu batu dituzte. Esker oneko hitzak

izan zituen Ruiz de Muniainek kanpaina lagundu duten guztientzat. "Eskerrak eman nahi dizkiogu Arrasateko herri guztiari, eta kolaboratzaile guztiei. Bestalde, Arrasatekoak izan barik, asko lagundu dute beste hainbatek. Modu batean, Siriako herriak bizi duen egoera hobetu nahi dugu honela", adierazi du Ruiz de Muniainek.

Siriako egoera latza

Prentsaurrekoan, Alma Saavedra Euskadiko Mugarik Gabeko Medikuek Elkarteko ordezkariak ere hartu zuen parte.

Egun Sirian bizi duten egoera izan zuen hizpide, eta bertako errealitate latzaren argazkia nola-

koa den azaldu zuen. Batutako dirua nora bideratuko duten galdetuta, zera esan zuen Saavedrak: "Euskadiko Mugarik Gabeko Medikuek Elkarteko langileak daude Sirian, bertakoak direnak. Beraz, estatuko barnealdean dauden proiektuetara bidaliko da diru hau".

Hala ere, segurtasun arrazoiengatik ez zuen zehatz-mehatz zein lekutara eramango zuen aipatu. "Ezin dezakegu azaldu bertako mediku estruktura non kokatzen diren, bonbardatuak izateko arriskuan daudelako". Larrialdi eta arrisku egoera horren eraginez, Siria osoan ez dago 30 ohe baino gehiago duen ospitalerik, tamaina txikikoak izanda bonbetatik hobeto babes-tu daitezkeelako. "Oso handiak badira, errazagoa da bonbardatzea. Hori dela eta, sotoetan egin izan da lan, garajeetan, eta baita kobetan ere", azaldu du.

Sirian bertan lanean ari diren medikuen lana ere azpimarratu zuen Saavedrak. "Muturreko baldintzetan lan egin arren, ez dute alde egin eta Sirian jarraitzen dute. Euren lana eskertzeko eta goraipatzeko modukoa da".



Harremanekoak batutako diru txekiekin. | IMANOL BELOKI

Fagor CNA Groupen keinu solidarioa

Fagor CNA Groupek sukaldatzeko hainbat etxetresna eman dizkio Zaporeak GKEari, euren ekintza solidariotian laguntzeko. Horien artean Chios uharteko siriarrerrufiatuei jaten emateko egitasmoa dago. "200 edo 300 bazkari ematek 1.700 ematera pasa gara martxotik hona" azaldu du Peio Garcia ekimenaren bultzatzaileak. Hozkailuak eta izozkailuak dira horietako batzuk.



Ekimenaren aurkezpena. | FAGOR CNA GROUP

Oporretarako hondartza lehenesten dute bailarakoek

Mediterraneo, Espainiako uharteak eta Kuba dira debagoiendar gehienek aurten aukeratu dituztenak

ENEKO AZURMENDI | DEBAGOIENA

Batzuk oporretan egongo dira dagoeneko eta beste batzuk, berriz, hauen zain. Laneko estresetik eta hemengo eguraldi nahasitik ihes egin nahian, asko dira debagoiendarrek oporrak igarotzeko aukeratzen dituzten lekuak.

"Mediterraneoko hondartzak -Salou eta Cambrils- dira eskari gehien dituztenak", adierazi du Amanda Sanchezek, Arrasate Bidaia agentziako langileak.

Ondoren, Balear eta Kanariar uharteak daude. "Lehen Tunisiara edo Egiptora joaten zirenek orain uharte hauek aukeratzen dituzte, bizi duten gatazka dela eta", azaldu du Sanchezek.

Bestalde, urrunago joatea erabakitzen dutenak ere badaude. "Kubarako aurreko urteetan baino eskaera gehiago egon dira aurten, Ameriketako Estatu Batuen eragina sumatu baino lehen, Kuba autentiko hori ezagutu nahi dutelako, herrialdea barrutik ezagutu nahi dutelako".



Hainbat haur eta guraso, Gatz Museoa bisitatzen. | IMANOL SORIANO

Hemengo eskaintzak

Askok hemendik irtetea aukeratzen badute ere, badago gure inguruak hobeto ezagutzea erabakitzen duen jendea ere.

Horregatik, Debagoieneko Mankomunitateko turismo sailak, aurtengo udari begira, turismo eskaintza jasotzen duen liburuxka kaleratu du. Bertan, Bergarako, Leintz Gatzagako, Eskoriatzako, Arantzazuko eta Oñatiko eskaintzak aipatzen dira eta

askotariko bisita gidatuak daude: monumentu historikoak ezagutzeko, gatzaren eta txokolatearen ezaugarriak ezagutzeko edota gerra zibilak bailaran utzitako arrastoak ezagutzeko.

Azkenik, turismo aktiboa egiteko eta baserri ezberdinetan ekoizpen prozesuak nolakoak diren ezagutzeko aukera ere bada. Azken horretan, produktu ekologikoen prozesua edo esnekien dastaketa egin daiteke.

Kutxabankek eta Laboral Kutxak euskara lehenetsiko dute Ueman

Hitzarmena bost urterako sinatu dute

ENEKO AZURMENDI | DEBAGOIENA

Finantza alorrean euskararen erabilera areagotzeko hitzarmena sinatu dute Uemak, Laboral Kutxak, Kutxabankek eta 30 udalerri euskaldunetako alkateek -Oñati, Antzuola, Bergara, Aramaio eta Elgeta barne direla-. Bi erakundeek Uemaren irizpideekin bat egin dute, eta aurrerantzean euskara lehenetsiko dute hitzartutako herrietan dituzten bulegoetan.

Hartutako konpromisoen artean, bi nabarmentzen dira: alde batetik, elkarren arteko harremanak, ahozkoak eta idatzizkoak, euskaraz izango dira. Horretarako, beharrezko diren

baliabideak jarriko dituzte erakundeek. Bestetik, Kutxabankek eta Laboral Kutxak udalerri euskaldunetako beraien bulegoetan bezeroekin dituzten harremanetan euskararen presentzia bermatuko dute.

Helburu hori betetzeko, hainbat neurri hartu dira: bezeroari lehen hitza euskaraz egitea, produktuen eskaintzak euskaraz egitea eta txartel guztiak euskaraz sortzea, besteak beste.

Hitzarmena bost urterako sinatu dute, eta epe hori beste bost urtez luzatuko da, aldeetako koren batek hitzarmena bertan behera uzteko borondatea azaltzen ez badu.

Ehungintzako enpresaburuen elkarteko presidente izendatu dute Manu Diaz

ENEKO AZURMENDI | BERGARA

Manu Diaz bergararra Espainiako ehungintzako enpresaburuen elkarteko presidentea izango da aurrerantzean.

Martitzenean hartu zuen erabakia batzorde exekutiboak, aho batez. Hala, bergararrak bi urte emango ditu presidente

karguan, Alejandro Lakidainen ordezkari moduan.

Ehungintzaren sektorea "inoiz baino biziago" dagoela adierazi du Diazek, baina aurrera begira "eragile guztiek modu koordinatuan" lan egin behar dutela gaineratu du, enpresa "egonkortu" dadin.

>> Oñati gestio
heziketa

Edesa Industrial SL (Fagor CNA Group)
FP Dualeko enpresa kolaboratzailea

Oñati Gestio Heziketan (MU Enpresagintza Fakultatea, Oñati), FP Dualeko programa martxan ipini da ikasturte honetan, eta bertan parte hartzeko aukera ikasle guztiei eskaintzen zaie. Jarraian, kolaboratzailea den enpresa baten ikuspuntua.

Enpresa ikuspegitik, zein onura eskaintzen dizkio FP Dualeko programak ikasleari?

Asko dira ikasleak jasotzen dituen abantailak. Alde batetik, arlo akademikoan garatutako konpetentziak finkatzeko aukera dute eta baita beste berri batzuk, "konpetentzia profesionalak", garatzeko ere. Bestalde, lan munduan murgiltzeko erraztasuna ematen die, eta baita laguntza ekonomiko bat eskaini ere.

Akademikoki oso garrantzitsutzat jotzen da ikasleak enpresan esperientzia bat izatea. Errealitate horrek ikaslearen ezagutza osatu eta lan munduan abantaila konpetitibo bat ematen diolakoan zaude? Bai, zalanza gabe! Arlo pertsonalean konpetentzia sozialak garatu eta moldatu ahal izango ditu; arlo pedagogikoan, berriz, praktika erreal batzuk jasotako ezagutzak osatzen lagunduko die; eta azkenik, arlo profesionalan, etorkizunera begira, abantaila konpetitiboak izango ditu ikasleak, enpresa bateko inkorporazio prozesuan, besteak beste.

Zein funtzio betetzen du ikasleak enpresan?

Urtebeteko lan-kontratua izanik, zereginak aldatzen joango dira, berauen konplikazio maila areagotzen doa. Gure kasuan, ikasleak Marketin eta Komunikazio Departamentuan 360 graduako inkorporazioa izatea nahi dugu. Era horretan, departamentuko postu desberdinetatik pasatuko da.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Ezinbestekoa da enpresek eta hezkuntza erakundeek elkarrekin etorkizuna eratzea, hauek baitira gizartean ezagutza, berrikuntza eta hazkuntza ekonomikoa garatu eta bultzatzeko nahitaezko bi agente. Ondorioz, hauen arteko kooperazioa areagotzea ezinbestekoa ikusten dut.




Nagore Bonilla Gabarain, Marketin eta Komunikazio zuzendaria
Edesa Industrial SL (Fagor CNA Group)



Informazio gehiagorako kontaktua:
rigarza@mondragon.edu – 943 71 80 09

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO
(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)
Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA
Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behe / 943 76 80 06

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION
Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behe
943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

ALBERDI MIREIA
Bergara / Masterreka kalea 11, behe
943 76 33 99 / 646 43 34 58

LAURA ALUTIZ
Arrasate / Otalora, 18 solairu artea 687 97 69 76

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO – FONALIA
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA
TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE
Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

MIRARI KORTA
Aramaio / Azkoaga Auzoa 3 / 647 27 31 40

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)
Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA
Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA
(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 esk / 659 58 66 89

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA
Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA
(AITA MENNI OSPITALEA)
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

YOGA

SAMADHI YOGA
Bergara / Masterreka 13, behe
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

SADHANA YOGA
Arrasate / Nafarroa etorbidea 19, 8 ZM
690 79 21 55

Balio kooperatiboak eta errentagarritasuna, oinarri

- Mondragon Korporazioak aro berria ireki du eguazteneko kongresuan
- Etorkizuneko gida-lerroak markatzen dituzten ponentziak onartu dira

LEIRE KORTABARRIA | DONOSTIA

Mondragon Korporazioan aro berri bat irekitzen duen Kongresua izan zen eguazten arratsaldean, Donostiako Kursaal. Korporazioko kooperatiba guztiak ordezkatzeko 650 konpromisario zeuden deituta. Oso kongresu garrantzitsua izan da, etorkizuneko Mondragonen oinarriak ipintzeko eta hemendik eta 2020ra arteko politikaren ildoak ezartzeko balio izan baitu. Gainera, Javier Sotilen agintaldiko azken ekitaldia izan da.

Ekitaldi ona

Kongresuaren lehenengo zatian, pasa den ekitaldiaren deskargua egin zen; aurrekontuak eta kudeaketa txostenak onartu ziren. Sotilek ekitaldiaren balorazio positiboa egin zuen: "Korporazioaren multzoan enpleguaren maila handitzea lortu dugu, eta bereziki Industria Arloan hazi gara, zeina azken bi urteetan enplegua sortzearen inguruan oso joera positiboa mantentzen ari den, 2.100 lanpostu baino gehiagorekin, horietatik 1.400 gure ingurunean". 2016ari dagokionez, esan zuen "oro har gestio planeko aurreikuspenak betetzen" ari direla.

Jatorrizko balioetara buelta

Bigarren zatian, Kursaalaren eguazten arratsaldean bildutako kooperatibetako ordezkarien aurrean, bi ponentzia garrantzitsu aurkeztu ziren: batetik, *Etorkizuneko Mondragon* izeneko; eta bestetik, *2017-2020 epealdirako Politika Sozioenpresariala* izeneko.

Orain bi urteko kongresuan azaldu ziren eta Fagor Etxetresnen krisiak bereziki azaleratu zituen kezka nagusiei erantzuteko helburua dute ponentzia horiek, eta gauzak egiteko modu berriak proposatzen dituzte.

Etorkizuneko Mondragonek balio kooperatiboak berpiztu nahi ditu, autoexijentzia eta koerantzikizunaren kultura, eta balioan jartzen du kooperatibisten protagonista eta jabe paper bikoitza.

Elkartasuna eta erantzukizuna

Azkenaldian zalantzan jarritako elkartasun tresnak berriz definitu dira. Bi fondo finantzario berri eratuko dira laguntza behar duten kooperatibendako. Bat korporazioaren fondo orokor bat izango da, eta bestea, dibisio bakoitzera-ko edo dibisio arteko fondoak. Negozio berriak sustatzeko edo egonkortzeko fondoak ere egongo



Javier Sotil eta Iñigo Uzin, kongresuan. | VK COMUNICACIÓN

dira. Elkartasuna erantzukizunear egongo da oinarrituta, hau da, kooperatiba bakoitza bere proiektuaren erantzule nagusia da.

Negozio lehiakorak

Etorkizuneko Mondragonek garrantzi handia emango die errentagarritasunari, lehiakor-



tasunari eta sostengarritasunari; baita negozio berriak sortzeko gaitasunari ere.

Kongresuan onartutako beste atal bat antolakuntzaren ingurukoa izan da. Antolakuntza eredu berri bat landuko da, Mondragoneko errealtate sozioenpresarial guztiei garatzeko aukera emateko. Hala, sektore edo dibisio bakoitzarako, proiektu traktoreak identifikatu dira, eta bestalde, indartu eta eraldatu beharra daukaten proiektuak. Helburua da indartu behar diren proiektuak, denborarekin, proiektu traktore bihurtzea. Bestetik, hala nahi duten kooperatibek eskualde mailako sareak osatu ahal izango dituzte; horrela, jatorrian kooperatibek gizartea eraldatzeko zuten eragile rola berreskuratu nahi da.

Azkenik, enpresa-aktibitate berriak ere sustatuko ditu Mondragon Korporazioak, eragile desberdinen arteko elkarlana bultzatuz.

Sotilen agurra

Kongresua izan da Javier Sotilek Mondragon Korporazioko presidente gisa egin duen azken ekitaldi ofiziala. Uztailaren 29an hartuko du erretiroa, eta orain arte Danobatgroup-eko presidentea izan den Iñigo Uzinek hartuko dio erreleboa abuztuaren lehenean. Bai Sotilek bai Uzinek hitz batzuk egin zituzten kongresukideen aurrean, batak agurra emateko eta besteak, bere agintaldiaren hitzaurre gisa.

Protesta kanpoaldean

Kongresua egiten zebiltzan bitartean, Ordaindu eta Eskuratu plataformetako hainbat kidek bilkura egin zuten Kursaal kanpoan. Korporazioaren eta Sotilen jokabidea salatu nahi izan dituzte plataformek.

Udako Argazkien XII. Goiena Lehiaketa abian, irailaren 18ra arte

Argazki guztiak blogak.goiena.eus/argazkiak blogean ikusgai egongo dira udako opor ostetik



lazko argazki irabazlea. | AMAIA SANTAMARIA

kiak izango dira –berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak–.

Bestalde, parte-hartzaileei dagokienez, Debagoienez jaio edo bizi den edonork parte hartu ahal izango du lehiaketan, baldin eta 16 urte baino gehiago baditu. Ez da ezer ordaindu beharko.

Epaimahaia

Goiena Komunikazio Taldeko kideek osatuko dute epaimahai eta argazkiaren kalitatea, originaltasuna eta balio historikoa hartuko dituzte kontuan. Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.

Sariak

Hiru argazki onenak aukeratuko dira eta hiru sari hauek banatuko dira, hurrenez hurren: bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean; Orioko Aisia hotelean, zirkuitu termala eta bazkaria edo afaria, Arrasate Bidaia-en eskutik eta Kindle liburu irakurgailua Arrasateko Eroski Hipermerkatuaren eskutik.

Herritarren saria

Debagoiendarrek euren argazki gustukoena aukeratu ahal izango dute eta irabazleak Karibu kafe dendak emaniko kafe ezberdinez osaturiko otarra jasoko du.

Errentaren kanpaina %42 hobeia izan da aurtan

ENEKO AZURMENDI | DEBAGOIENA

Gipuzkoako Foru Ogasunak 76 milioiko saldo negatiboarekin itxi du 2015eko errentaren kanpaina. Emaiza hori iaz baino %42 hobeia da. Izan ere, 55 milioi euroko hobe-kuntza da iazkoarekin alderatuta.

Jabier Larrañaga Ogasun diputatuak begi onez ikusten ditu emaitza hauek eta adierazi du hobekuntza, batez ere, 2015ean enpleguan zein sol-datetan izandako hazkundeek eragin dutela.

Astean aurkeztutako datuetan, foru arduradunek zehaztu dute 372.698 aitorpen aurkeztu direla, pasa den urtean baino 593 gutxiago, azken urteetako beheranzko joerari jarraipena emanez. Bergarako bulegoan 35.234 aitorpen tramitatu dira aurtan.

ENEKO AZURMENDI | DEBAGOIENA

Martxan da Udako Argazkien XII. Goiena Lehiaketa. Parte hartzeko, irailaren 18a bitartean –egun hau barne–, udan ateratako argazkiak bidali beharko dira argazkiak@goiena.eus helbidera edota Goienaren egoitzara eraman: Otalora Lizentziaduna 31, 20500, Arrasate.

Parte-hartzaile bakoitzak bost argazki aurkeztu ahalko ditu eta ondorengo informazioa gehitu beharko du: egilearen izen-abizenak eta jaioterria, harremantarako telefonoa, argazkia noiz eta non ateratakoa den eta argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.

Baldintzak

Lehiaketa honetan parte hartzeko, zenbait baldintza bete beharko dituzte aurkeztutako argazkiek: argazkiak paperean edo digitalizatuta (paperean, ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin) aurkeztu beharko dira; egoitzara ekartzekotan, gutunazal batean sartuta, CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPEG formatuan; argazkiek gehienez 5 MB izan beharko dute; beste inon argitaragabeak izan beharko dira; koloretan zein zuri-bel-tzean izan daitezke; originalak izan beharko dira; udako argaz-

ZABALIK

IBANE
ABASOLO
goiena.eus/
komunitatea/



Oporretako irakurketak

Udan, egunkariak eta aldizkariak aisialdian irakur ditzakegun liburu gomendioak argitaratzen dituzte. Badirudi uda ez dela uda hondartzara, igerilekura edo putzu ondora liburutxoren bat eramaten ez badugu. Berez, oporretan zein oporretatik kanpo, arrazoi asko dago irakurtzeko. Dibertigarria izaten da –gehienetan–, jakitunago egiten gaitu, gure materia grisa martxan jartzen du, hizketarako gai berriak ematen dizkigu... Baina astia behar da Whatsappez aparte zerbait irakurri ahal izateko. Kostatzen da. Seguruenik, horregatik ekartzen dizkigute orain, opor-denboran, liburu salmenten listak. Irakurtzeko –eta erosteko– astia daukagulako.

Ni, azkenaldian, ez nabil beta handiarekin. Lau urte eta bi haur izan ondoren, egunkaria lehen orritik azkeneraino lasai, soseguz, irakurri ahal izan nuen lehenengoan, ia-ia negar egin nuen. Pozez. Konkista bat izan zen. Eta zelako konkista! Neure buruarentzako denbora irabazten nengoen!

Oporretan, loari orduak kenduz edozer irakurriko dut. Egunkaria, asteburuetako eranskina, lagun batek utzitako biografia edo ataginarrebari hartutako nobela. Ez dut liburu sortarik erosiko, eta ez naiz *best seller*-en listetan geldituko. Momentuan esku artean dudana irakurriko dut; edozer irakurrita ere, irakurtzen *denbora galtzea* da plazerik eta garaipenik handiena. Ziur ez dela oporretako irakurketari probetxurik handiena ateratzeko modua izango. Ez ditut garunak larregi landuko, ezin izango dut modan dauden nobelen gainean hitz egin, edo ez dut gauza berri askorik ikasiko, baina ondo pasatuko dut. Irakurtzen eta erreflexionatzen. Barrurantz eta kanporantz begiratzen, aldi berean. Lasai, soseguz eta oporretan.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | goiena.eus/komunitatea/



GUTUNAK

Deba ibaia zaindu

Josu Garitaonandia

(Oparitu Zuhaitz Bat egitasmoaren arduraduna)
Bergara

Erne! Ibaia kolore arraroarekin edo animaliak hilik ikusiz gero, 112 zenbakira deitu, gai horretarako egin beharrekoak martxan jartzeko.

Irailean bost urte beteko dira Bergaran hondamendi ekologikoa gertatu zenetik; lehenik ahateak eta gero arrainak hilik agertu ziren, arduradunik ez da azaldu, berriz ez gertatzeko neurriak ez da hartu, eta hurrengo isurketa noiz izango den zain gaude.

Udara begira lantegietan mantentze-lan gehiago egiten dira, hondakin gehiago sortzen dira eta ibaira isurtzeko tentazioa handia da, diru pixka bat aurreratzeagatik.

2013ko abenduan, Gabonetan, jarduera industrialik ez zegoela, Osintxu eta Elgoibar artean arrainak hilik azaldu ziren; ur asko zerman sasoia zen, eta arduradunik ez dira azaldu.

Beste arazo bat da udan festa gehiago egoten direla eta ibaian

ur gutxiago; kaleak garbitzeko erabiltzen diren ur zikinak, gehienetan, ibaira doaz. Urok batu egin beharko lirateke, eta araztegi batera eraman. Kontzientzia hartu behar dugu: jaietan ondo pasatzeko, ez dago zertan bazterrak zikindu; udal arduradunek neurriak hartu beharko lituzkete, kaleak produktu kimikorik erabili gabe garbi ditzaten.

Egoera okerreana udako hilabeteetan etorriko da; beraz, denok begiak zabalik, eta Deba ibaian zerbait arraroa sumatuz gero, 112 zenbakira deitu.

Gogaituta, baina ez etsita

Inazio Arregi, Jotxo Larrañaga, Xabi Arregi eta Luis Ruiz de Azua

(Kale Zaharreko hainbat lagun
izenen)
Oñati

Kale Zaharreko eta San Anton kaleko bizilagunak gogaituta gaude, baina ez etsita. Gogaituta gaude, herritar batzuek ez dituztelako errespetatzen gurean euren etan nahi dituzten eskubideak.

Oinezko kalean txirindulariak gora eta behera ibiltzen dira debekuak errespetatu gabe. Beste horrenbeste egiten du gidari askok autoa aparkatu ezin den tokietan utziz.

Tabernari batzuek ez dituzte ez orduak ez gehienezko dezibelio mailak errespetatzen, euren probetxuan eta kaletarren lo egiteko eskubidearen kaltetan.

Gauzak geroz eta okerrago doaz. Aurreko larunbatean, 9an, goizeko 6ak jota ziren kalean zebiltzan trikitilariak jotzeari eta beste batzuk etxafuegoak botatzeari utzi ziotenean. Seguru asko, ez ziren kontzientzia txarrarekin joango etxera.

Okerrena da honen guztiaren aurrean ez udaltzainek ez udalak ez dutela ezer egiten.

Alkateak ez du gurekin bildu nahi. Azken bilera eskaera duela urtebete egin genion, idatziz, uztailearen 23an (2015ean) datatuta, eta oraindik zain gaude. Hainbat zinegotzirekin hitz egin dugu bilera bat bultzatu nahian. Alferrik.

Arartekoarengana jo dugu bi txosten aurkeztuz. Zaraten espedientearen erantzunik ez dugu, mugikotasunekoaz bai. Hau dio: *Oñatiko Udalak Kale*

Zaharrean ezarri duen araubidea –bide segurtasunari eta oinezkoentzako eremua izateari buruzkoa– betetzea bermatu behar du, eta horretarako, bere esku dauden neurri guztiak, zigortzaileak zein teknikoak, hartu behar ditu, ezarritako araubidea betearazteko.

Gogaituta bai, baina etsita ez. Horregatik jarraituko dugu bilera eske, gure oinarritzko eskubideen alde, eta egin nahi dituzten araudi eta plan berri horietan gure ahotsa eta egingo ditugun ekarpenak entzun ditzaten, sikiera.

Orain arte bezala, lanerako prest izango gaituzte aurrerantzean.

Eutsi, Unai; ez etsi

Nekane Arratibel, Amaia Etxaniz eta Gotzon Iparragirre

(Guraso talde baten izenean)
Antzuola

Antzuolako zenbait gazteren ekimena txalotzeko da gutun hau: Unairen familiari laguntzeko, herriko jaietan, Gaztetxea zabaltzea erabaki duzue, eta ekimenera, kuadrillakoak ez diren beste gazte asko ere bildu zarete. Hor ikusi zaituztegu, Gaztetxea prestatzen, leña galanki erabiliz garbitzen, eta zuen txandak ez zirenetan ere, guardian, jende andana sartzen bazen Gaztetxera, barra barrura sartzeko. Bizitzako kolpe latzek barrua samurtzen laguntzen digute, baina samurtasunak beti barrutik kanporantz bidea egiten du, eta zuen barrenetan soberan duzuela erakutsi diguzue.

Askotan entzuten ditugu gazteei buruzko esamesak, gehienak eskasak, gutxiespenezkoak. Hurrengo halakoren baten aurrean, zuengana bidaliko ditugu.

"Eutsi, Unai; ez etsi", diozue behin eta berriz. Seguru gara ez duelako etsiko, eutsiko diola. Baina zuek ere ez etsi, eta segi halaxe, ikasi nahi duenari, lezioak ematen, dohainik. Unairentzat energia-uholde zarete, eta gizartearentzat, esperantzazko hauspo. Eskerrik asko, guztion izenean!

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Ezingo dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun, gutun bakarrekin baizik.
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Eredaktore burua Ibane Madera
Sailietako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazlea Imanol Soriano, Aitor Lagoma, Oxel Arrieta.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiriano, Zortza Martin, Imanol Elortza, Jokin Uribeetxeberria
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.850 ale
Difusioa: 18.507 ale



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA**
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

HERRIAK

Industrialdean zabalduko dute tanatorioa, urte amaierarako

- Atzo sinatutako akordioaren arabera, Mecaplan zegoen pabiloia erosiko dute
- 184 metro koadroko lokala izango da eta proiektuan jaso dutenez bi sala izango ditu

ARANTZAZU EZKIBEL | ARETXABALETA
Urte amaierarako tanatorioa izango dute Aretxabaletan. Gaur, egubakoitza, erosiko du Udalak Aretxabaletako Tanatorioa S.L. enpresak Nafarroa kalean duen lokala; eta, ondoren, aipatutako enpresak tanatorioa egingo duten lokala erosiko du industrialdean, F pabiloian –lehen Mecaplan zegoen tokian–.

Atzo, eguena, sinatu zuten akordioa Unai Elkorok Aretxabaletako alkateak eta Aitor Herrera tanatorioko arduradunak. Modu horretan, azkeneko bost urteetako egoera desblokeatu dute.

Bi sala izango ditu tanatorioak
Enpresak lokala erosten duenean tramiteak hasiko dituzte lizentzia lortu eta obrak hasi ahal izateko. "Uste dugu obrak urri hasieran hasteko moduan egongo garela, eta tanatorioa martxan abenduan izango dugu", azaldu du Aitor Herrera arduradunak.

184 metro koadroko lokala izango da industrialdean erosiko dutena. "Bi sala jarriko ditugu, inguruko biztanleei zerbitzua emateko", gehitu du Herrerak. Asmoa da, batez ere, Aretxabaleta eta Eskoriatzako biztanleei zerbitzua ematea; baina, horiei gehitu behar zaizkie Gatzagako heriotzak eta baita gertutasunagatik edo erosotasunagatik Aramaioko auzoren bateko familieren batek tanatorioa erabiltzea.

Bost urte, bi epaiketa
Tanatorioaren gaia aspaldikoa da Aretxabaletan. Orain dela bost urte erakutsi zuen Aretxabaletako Tanatorioa enpresak proiektua egiteko nahia; bost urte hauetan bi epaiketa izan dituzte.

Herreraren enpresak 2011n azaldu zuen tanatorioa zabaltzeko nahia udaletxean. Orduko Udalaren aldetik aldeko iritzia jaso zituzten, eta hori horrela, Nafarroa kalean lokala erostea erabaki zuten. Herritarren artean, baina, ezinegona sortu zuen herri barruan tanatorio bat zabaltzeak, eta kontrako jarrera zabaldu zen herritarren artean. Hala, negozioa martxan jartzeko lizentzia eskatu zutenean Udalean, Aretxabaletako Tanatorioa enpresak ez zuen baimenik jaso.



Aitor Herrera tanatorioko arduraduna eta Unai Elkorok Aretxabaletako alkatea eskuak estutzen. | A.E.



Industrialdean egingo dute tanatorioa, F pabiloian. | A.E.

Egoera horretan, epaitegira jotzea erabaki zuen enpresak. Lehenengo epaiketa Udalaren aldekoa izan zen; baina, enpresak epaia errekurritu zuen eta Euskadiko Auzitegira jo zuen, Bilbora. Bigarren epaia 2016ko urtarrian irten zen eta epaileak arrazoi guztia eman zien enpresako arduradunei. Modu horretan, tanatorioa zabaltzeko baimena lortu zuten.

DATUA

65

HERIOTZA

Dituzten datuen arabera, Aretxabaletan eta Eskoriatzan 65 bat heriotza izaten dira urtean.

Bost hilabete harremanetan
Egoera berri horren aurrean, Elkorok azaldu du euren nahia irtenbide bat bilatzea izan dela: "Udalaren jarrera irtenbide bat aurkitzea izan da, hori posible zela ikustean. Guretzat joera errazena aurreko gobernuari errua bota eta ezinbestean Nafarroa kalean ireki beharra zegoela esatea zen. Bost hilabete daramatzagu gai honekin, industrialdean

Akordioa ez da denon gustukoa

Atzo sinatutako akordioa ez da denon gustukoa izan. Astelehenean egindako osoko bilkuran, galdera eta eskaeren atalean, tanatorioaren gainera informazioa eskatu zuen EH Bilduk eta ez zen konforme agertu 172.000 euro gastatu behar izanarekin. "Ikusten dugu irtenbide bat bilatu behar zaiola arazoari; baina, 172.000 euro ordaintzea erabilerarik izango ez duen lokal bategatik diru asko da", azaldu zuen Jon Albizu zinegotziak.

libre dauden lokal guztiak begiratu ditugu, ez da lan erraza izan, aproposak gutxi zeuden, eta prezio aldetik gehiegizkoak. Zaila izan da".

Lortutako akordioak Udalarrendako izango duen gastua izango da: Nafarroa kaleko lokala 169.000 eurotan erosiko dute, eta horri erregistro eta notariotza kostuak gehitu beharko zaizkio, denera 172.000 bat euro. Industrialdeko pabiloia erostea 150.000 euro gehi eskualdatze zerga kostako zaio enpresari. Akordioa sinatzeak, baina, zera esan nahi du alkatearendako: "Enpresak uko egiten dio gai honetan Udalari beste kalte-ordainik eskatzeari. Berez posible lukete kalte-ordainak eskatzea 5 urtean negozioa martxan jartzea eragozteagatik; eta, ezin jakin zenbateko kalte litzatekeen udalarentzat. Nafarroa kalean tanatorioa izanenezake eta gainera kalteordainak jasan behar. Aukera horren aurrean, zalantza gabe, akordioa lortzea askoz onuragarriagoa da denontzat", dio alkateak.

Nafarroa kalean tanatorioa ez zabaltzeko 1.500 sinadura baino gehiago jaso zituzten herritarrek; urtarriko epaiaren ondoren, Udala bizilagunekin harremanetan jarri zen euren nahia akordioa bilatzea zela azaltzeko.

Protagonistengan arrastoa utzi duten udalekuei, agur

Balorzio orokorra egiteke, irekiekin zein itxiekin pozik dago Txatxilipurdi; ekintzak umeei antolatu dituzte

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Gaur amaituko dira Txatxilipurdiren udaleku irekiak. "Aurten programaketa egiten baino gehiago, *desprogramaketa* egiten saiatu gara. Hau da, umeei eta gaztetxoei galdetu diegu ea zer nahi zuten egin, ea zer nahi zuten sortu udalekuetan. Euren asmoe-tatik abiatu gara udalekuak aurrera eramateko", adierazi du Txatxili-ko Lander Juaristik asteon, Arrasate Irratian. Arrasate eskaintzen dituen natur-gune eta bestelako espazioak aprobetxatu dituzte azken aste hauetan, eta, balorzio orokorra egiteke, "pozik" daude aurtengoek eman dutenarekin. 200 ume inguruk hartu dute parte aurten.

Udaleku itxietako 'familia'

Bestalde, udaleku itxietan ere eskaintza zabala izan dute: Ozaeta-Askizu, Kosta Ala Kosta... Kosta Ala Kosta joan den asteburuan bukatu zen, esaterako. "Amaitu izanaren *ajearekin* gaude oraindik. Negar mordo ikusi ditugu, oso une hunkigarriak. Udalekuek arrastoa utzi duten seinale izan ohi da hori. Sekulako taldea izan dugu, Euskal Herri osotik etorritakoak. Asko ikasi dugu eurekin. Sorkuntza erakustaldi bat eman digute", azaldu du Juaristik.

Uztailaren 1etik 10era iraun zuen Ozaeta-Askizu udalekuak eta 25 lagunek bi talde izan dituzte aurten: "Arrasatearrez gain beste herrietako jendea ere egon da; horrek udalekuak eta gaztetxoek arteko harremana aberasten du". Kostaldea eta Araba lotu dituzte, eta Otazako "sorgin-gune edo gune askean" oso gustura ibili dira: "Hor ere negarrak eta



Udaleku irekietan egon diren zenbait ume erosketak egiten, Azoka Plazan.



Kosta Ala Kosta udaleku itxietako talde argazkia. | ARGAZKIAK: TXATXILIPURDI

emozioak izan ziren amaieran, udalekuetako helburuak bete ditugun seinale".

Bestalde, Arrasateko Udaero eta Aretxabaletako zein Eskoriatzako Udaixe ekimenak ere ederto joan dira, eta aipatzekoa izan da Gazte Konkis kanpaldia: "Leixargaraten egon gara. Logistika aldetik lan askotxo eskatu digu, baina merezi izan du. Lau egun oso biziak izan dira taldekako

askotariko frogak gaintitzen. Eguraldiaren gorabeherekin, baina oso pozik gaude".

Freskura-rekin ere pozik

Freskura ekimenarekin ere pozik dago Txatxilipurdi; Musakolako kanpoko igerilekuetan jarri dute postua eta bertan euskarazko irakurgaiak eta jolasak alokatze-ko aukera izango dute umeei zein helduek uztailaren 29ra arte.

Alfontso VIII kaleko lanengatik San Andres auzo barrutik desbideratuko da zirkulazioa azarora arte

Takolo-Goiru proiektuaren bigarren faseko lanek azarora arte iraungo dute. Gunea berriro urbanizatuko dute, kale izaera eman. Hortaz, errepidea estutu eta espaloiak zabalduko dituzte, besteak beste. Lanek iraun artean, Foruenetik Takolorako norabideak erabilgarri izaten jarraituko du; alderantzizko norabidean doazen ibilgailuentzat trafikoa desbideratuko da San Andres auzotik.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren %0,23ko igoera orokorra onartu da, gobernuaren aldeko botoekin

Udaleko Ogasun batzordeak uztailleko osoko bilkurara eraman zuen proposamena onartu egin zen EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin (11), EH Bilduren eta Baleikeren kontrakoekin (8) eta Irabaziren abstentzioarekin (1). Diktamenean jasotzen denez, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren -OHZ, IBI moduan ezaguna- tasak igoko ez balira, zerga-bilketan 800.000 euroko jaitziera emango litzateke, hots, %20ko jaitziera 2016ko sarrerekin alderatuz.

Abaroa elkartekoak Galiziara joango dira irailaren 18tik 26ra; autobusa bete arte eman ahalko da izena

O Grovera (Pontevedra) joango dira irailaren 18tik 26ra Abaroa erretiratu elkartekoak. Izena eman beharko da Etxaluzen, autobuseko plazak bete arte; prezioa izango da 429 eurokoa -fidantza da 200 eurokoa-. Prezio horren barruan sartuko dira, besteak beste, bidaiko aseguru, autobusa, zortzi eguneko egonaldia hotelean, zeharkaldia itsasontzi baten, Poioko monasteriora bisita...



Merkemerkaua Erdiko kalean, artxiboko argazki baten. | GOIENA

Merkataritza sustatzeko plan berri batekin lanean

Komertzioa indartu eta turistak erakarri gura ditu Udal Gobernuak, Hiriguneren babesarekin

J.B. | ARRASATE

Udaleko Merkataritza, Turismo, Teknologia Berri eta Sustapen Ekonomikoa batzordeak "plan estrategiko" bat onartu gura du abendu amaierarako. Sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak, merkataritzak egun bizi duen egoeraren azterketa eta turistak erakartzeko ekimenak aurrera eramateko dituzte, besteak beste. Jaurlaritzaren Hirigune ekimenaren babesa du proiektuak, eta proiektuaren idazketa esleipenak 34.527 euroko aurrekontua du.

Batzordeko arduradun, Victoriano Fuentes zinegotzi sozialistak planaren garrantzia azpimarratu du. "Udalerriri egokitutako estrategia bereziak aplikatu nahi ditugu. Helburua da negozio berriak irekitzea eta

egungoak indartzea. Bertako merkataritza herriaren jardura ekonomikorako eta enplegarako motor moduan ulertzen dugu", adierazi du ohar bidez.



ARRASATEKO UDALA

Hainbat sari banatu dira aurten udako kanpainen

Udaleko Kirol Zerbitzuak hainbat sari banatu ditu udako zein urteko abonua egin duten herritarren artean. Gailur Zaldiketa enpresak, Ur Urdaibaiek, Inguru Abentura enpresak eta Hontza Abentura Parkeak eman dituzte sariak. Honako hauek izan dira zortedunak: Eider Yarza, Unai Redondo, Javier Gomez, Haizea Apellaniz, Alberto Gonzalez, Encarna Sasiain, Iban Gonzalez, Nora Ferreiro eta Teofilo Ruiz.

Lore

LURRINDEGIA

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50



Musakolako igerilekuak, erabiltzailez beteta. | GOIENA

Jende uholdea igerilekuetan, aldi berean 1.400 erabiltzaile izateraino

Martitzenean errekorra hautsi zen: egun osoan, 2.000 pertsonatik gora pasatu ziren kiroldegitik

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Musakolako igerilekuak edukiera maximoaren mugan ibili dira asteon, astelehenean eta martitzenean. Martitzenean, hilak 19, errekorra hautsi zen, egun osoan zehar 2.053 erabiltzaile izan ziren eta. Igerilekura 1.837 pertsona gerturatu ziren egunean zehar eta momentu gorenean, 1.400 pertsonatik gora bildu ziren. Kontuan hartu behar da kanpoko igerilekuek duten edukiera maximoa 1.500 pertsonakoa dela. Ekainaren 20an kanpoko igerilekuak ireki zirenetik batez beste 690 bisitari izan dira.

Arruena aparkatzeko zabalik
Halako egunetan kiroldegi inguruan aparkatzeko izaten diren arazoei "erantzun azkar bat" eman nahian, Arruena parkean aparkatzeko baimena eman du Udalak udarako, igerilekuak irekita daudenean (10:00-20:30). Alkateak dekretuz eman du baimena: "Arruena egoera larrietan aparkaleku erabilera izateko aukera dauka, eta alerta laranja nahikoa arrazoi bada larritasuna aitortzeko. Bestalde, halako egoerak behin baino gehiagotan eman daitezke udan. Horregatik egoki ikusten da baimena udara mugatzea".

Udal Biblioteka zabalik abuztuan, goizez bakarrik

Urtero moduan, abuztuko oporraldia dela-eta aldaketak izango dira udal zerbitzu gehienetan. Udal Biblioteka, adibidez, goizez bakarrik egongo da zabalik, astelehenetik egubakoitzera, 09:30etik 14:30era. Zapatutan itxita egongo da. Era berean, uztailaren 25ean itxita egongo da jai eguna dela-ko eta irailaren 1ean ohiko ordutegira bueltatuko da: 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

Bizkaia etorbideko espaloia itxita, lur-jausi bategatik

Astelehenean gertatutako lur-jautsi txiki baten ondorioz Bizkaia etorbideko espaloia zati bat itxita dago, igogailu publikoaren ondoan. Hain justu, hondakinendako edukiontziak dauden tartetik igogailuaren zebra-bideraino dago itxita espaloia. Udal Zerbitzuetako arduradunen arabera, bertan beharrezkoak diren segurtasun neurriak hartu bitartean egongo da itxita espaloia zati hori.

Maala eta Ferrerías: badatoz erdiguneko festarik klasikoenak

J.B. | ARRASATE
Aspaldiko auzoko jaien esentzia mantentzen duten festak dira Maala Errabalekoak eta Ferrerías kalekoak. Erdiguneko hitzordu klasiko dira uztailan hainbat herritarrentzat eta egitarauan nobedaderik ez badago ere, ziur

urteroko jai giroa izango dela nagusi –egitaraua, beheko taulan ikusgai–. Gainera, uztailaren 31n San Inazio Eguna ospatuko dute Kanpazarren. Urtero legez, Eloorrioko eta Arrasateko udal ordezkarien arteko doke txapelketa egingo dute.

JAIETAKO EGITARAUAK

MAALA ERRABALEKO JAIAK

UZTAILAK 22, EGUBAKOITZA

08:00 Suziri jaurtiketa.

17:00 Umeendako jolasak eta txokolate-jana.

19:30 Kontzertua, Monte tabernak antolatuta. Azkaite Pelox etorriko da, beste bi gonbidaturekin.

21:00 Afaria estradetan: menestra, oilaskoa, tarta eta izozkia. Antolatzaileek 40 bat lagun espero dituzte.

22:00 Kafea, postrea eta dantza.

23:00 Su artifizialak.

UZTAILAK 24, DOMEKA

12:00 Meza, Arrasateko parrokan.

FERRERÍAS KALEKO JAIAK

UZTAILAK 26, MARTITZENA

08:00 Suziriak.

12:00 Txistularien kalejira.

17:00 Umeendako jolasak eta txokolate-jana.

19:00 Erraldioen konpartsa txikia / Txistularien kalejira.

19:00 Meza parrokan.

21:00 Kale afaria. Txartelak salgai daude Tamayo dendan, 22 eurotan. Menua: Hasierako hotzak eta beroak, oilasko beteak, goxua edo tarta, kafea eta kopa. Edateko: ura eta ardoa.

23:00 Dantzaldia.

MAALA ERRABALEKO JAIAK 2016

ARRASATE



ONDO
PASAU
JAIK!

Plus Ultra

T A B E R N A

Tel.: 943 79 20 57



Ondo pasau jaixak!

Tel.: 943 77 04 85

UZTAILAK 22, EGUBAKOITZA

08:00etan Etxafuego jaurtiketa

17:00etan Ume jolasak eta txokolate-jana

19:30ean Kontzertua, Monte tabernaren eskutik

21:00etan Afaria, estradetan

22:00etan Kafea, postrea eta dantza

23:00etan Su artifizialak

UZTAILAK 24, IGANDEA

12:00etan Meza, Arrasateko parrokan

KIMETZ

Taberna

Plater konbinatuak
Ogitarteko hotz eta beroak
Hanburgesak
Pintxoak
Razioak

943 79 60 49

Maalako Errebala 15. Arrasate.

EXPRES KAFETEGIA
TERRAZA

ondo pasau jaietan!

BIOK

ile apaindegi mistoa

943 79 63 76

maalako errabala 21
arrasate



ELEKTRIZITATEA ORO AR
ATEZAIN ELEKTRONIKO
TB SATELITE / DIGITALA
TELEZABALKUNTZA
MANTENU ZERBITZUA

Tel.: 943 79 45 99



Istar Dapena, Mojatetikiko saio libreetan egindako markarekin. | GOIENA.

Ruiz de Azua eta Uribarren, dominen bila

- Carrascal, Dapena eta Axpe ere lehiatuko dira Espainiako txapelketan
- Gijonen jokatuiko dituzte probak debagoiendarrek, zapatuan eta domekan

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Espainiako Absolutu Mailako 96. Txapelketak jokatuiko dituzte aste bukaeran Gijonen. Arrasatek ordezkaritza zabala izango du han: Eneko Carrascal, Iñigo Uri-

barren, Istar Dapena, Malen Ruiz de Azua eta Maialen Axpe lehiatuko dira, pertika-jauzian, salto hirukoitzean eta luzera-jauzian. Carrascal, Dapena eta Uribarren zapatu arratsaldean lehiatuko

dira eta Ruiz de Azua eta Axpe, domeka arratsaldean.

Istar Dapena

Aurreko domekan, Mojatetgin egindako entrenamendu saio

libreetako izarretako bat Istar Dapena izan zen. 5,20 metroko pertika-jauzia egin zuen, sasoi dagoela erakutsita. Hori horrela, "gogotsu" doa Gijonera. "Disfrutatzeke asmoz joango da. Bi helburu diru: sailkapenean postu ona lortu edo marka pertsonala hobetu", esan du Jonathan Perezek. Dapenak, ekain bukaeran, brontzezko domina lortu zuen Lurraldekako Espainiako Txapelketan. "Gijongo txapelketa saria da Istarrendako", azpimarratu du Perezek.

Zapatuan, 19:00etan, lehiatuko da.

Ruiz de Azua eta Axpe

Malen Ruiz de Azua eta Iñigo Uribarren dira dominak janzteko aukera handiena dutenak. Pertika-jauzian lehenak, eta salto hirukoitzean bigarrenak. "Domina da euren helburu nagusia. Dominaren kolorea da ezagutzen ez duguna", esan du entrenatzaileak.

Bere kategoriako Espainiako Txapelketa irabazi ostean, sasoi-ko eta anbizio handiarekin dago Ruiz de Azua. "Aurreko domekan egindako testaren emaitzak oso onak izan ziren. Domina eta marka pertsonala eskura ditu. Baina atletismoa ez da matematika hutsa, eta egunean bertan sor daitezkeen egoerak ere kontuan hartu behar-ko ditugu", dio Perezek.

Naroa Agirre –hamargarren txapela jantzi gura du–, Carla Franch, Meritxel Benito eta Maialen Axpe dira podiumean sartzeko arerio nagusiak.

Axpe ere aurreneko lekuetan sailkatzeke lehiari egongo da. Irailetik Bartzelonan entrenatzen

dabil Axpe eta gogotsu eta ilusioz dago Gijongo txapelketara begira. Axpe eta Ruiz de Azua domekan, 18:45ean, lehiatuko dira.

Uribarren

Bi modalitatetan lehiatuko den arren –salto hirukoitza eta luzera-jauzia–, Uribarrenen helburua salto hirukoitzean absolutu mailako lehen domina janztea da. "Bere kategoriako hainbat domina ditu, baina absolutu mailakorik ez. Aukera handiak ditu. 16,35 metroko saltoa dauka begiz jota. Hori izango da beste erronketako bat", esan du. Domina lortzeko bidean, Pablo Torrijos, Emilio Bellido eta Alfonso Palomanes izango ditu kontrario nagusi.

Salto hirukoitzeke lehia zapatuan, 20:35ean, izango du. Bestalde, domekan, luzera-jauzia egingo du. Helburu zehatz barik, disfrutatzeke gogoz egingo du salto Uribarrenek. "Saria da luzera-jauziarena. Ondo egiten du salto modalitate horretan. Espainiako Txapelketa bere burua epaitzeko aukera ona izango da".

Carrascal

Salto hirukoitzean lehiatuko da baita ere Eneko Carrascal. Tbilisin (Georgia) jokatuiko Europako txapelketatik etorri berri, disfrutatzeke eta ikasteko gogoz jantziko ditu zapatilak. "Absolutu mailan lehiatzea saria da Enekoendako. Uribarrenekin eta beste hainbatekin lehiatuko da. Punta-puntako atletak ezagutzeke aukera izango du", aipatu du Perezek.

Europakoan bederatzigarren salto onena egin zuen.

IÑIGO URIBARREN

SALTO HIRUKOITZA



Absolutu mailako lehen domina lortu gurako luke, eta, ahal bada, marka pertsonala ondu. 16,35 metroko saltoa dauka begiz jota Uribarrenek.

MALEN RUIZ DE AZUA

PERTIKA-JAUZILARIA



Bere mailako Espainiako irabazi ostean, bi helburu zehatzitu ditu: domina irabazi eta marka pertsonala hobetu. Naroa Agirre da urrea lortzeko hautagai nagusia.

ISTAR DAPENA

PERTIKA-JAUZILARIA



Mojatetikiko saio libreetan emaitza oso ona lortu ostean, postu ona lortu gurako luke Gijonen. Marka pertsonala hobetzeko aukerak ere baditu.

MAIALEN AXPE

PERTIKA-JAUZILARIA



Podiumean egoteko saiakera egingo du. Dena ondo bidean, dominetatik gertu egon beharko luke. Ruiz de Azuarekin lehia estua izango du.

ENEKO CARRASCAL

SALTO-HIRUKOITZA



Europakoan bederatzigarren salto onena egin ostean, sari modura hartu du Espainiakoan parte hartzeke txartela. "Ikasteko gogoarekin" doa Gijonera.

Mondrateren udako campusarekin pozik

XABI GOROSTIDI | ARRASATE

Udako campusak kirol taldeen harrobiari forma ematen hasteko baliagarriak diren ekimenak dira, eta ongi dakite hori Mondrate areto futbol taldekoek. "Iazko

campusetik infantil taldea sortu genuen eta lehen denboraldian bigarren geratu dira", adierazi du Jonathan Raso antolatzaileak.

Aurten bigarren aldiz antolatatu dute udako campusa, uztai-

laren 4tik 15era. Zortzi eta hamabost urte arteko 70 neska-mutiko aritu dira bertan, adinka sailkatutako lau taldetan. "Lehen hiru taldeekin jokoak eta futbito saioak landu ditugu, eurentzako hiru ordu eta erdi futbitoan aritzea astunegia izan daitekeelako. Hamahiru eta hamabostekoekin futbitoa era intentsiboan landu dugu, eurak motibatu eta gure taldeetan lehiatzeko pausoa eman dezaten", adierazi du Rasok.

Aurtengo edizioaren inguruan galdetuta zera adierazi du Rasok: "Positiboki baloratzen dugu aurtengo edizioa. Jendea gustura aritzea zen helburua eta lortu dugula esango nuke. Herriko gazteak taldera hurbiltzeko eta etorkizuna bermatzeko modurik onena da udako campusa".



Eibarren lan saioa ikusita itxi dute aurtengo campusa. | GOIENA



OINTXE! SASKIBALOI TALDEA

Zarauzko hiruko txapeldunak

Ointxe! saskibaloit taldeko infantilak garaile izan dira Zarauzko hiruko saskibaloit txapelketan. Gipuzkoako txapeldun eta Euskadiko txapeldunorde izan ondoren, garaipen gosea ez dutela galdu erakutsi zuten Arrasateko neskek. Irudian, Arturo Aguado Euskal Federazioko lehendakariaren eskutik garaikurra jasotzen.

Karmelo Alberdi | Arrasateko Udaleko kultur teknikaria

"Eguraldiak lagundu du eta ikuskizunen mailarekin pozik gaude"

Amaitzeaz dagoen Udazabal programak kultur ikuskizunez bete ditu Arrasateko kaleak

XABI GOROSTIDI | ARRASATE

Udazabal programa domekan amaituko da. Karmelo Alberdi kultur teknikariak egitaraua osatzeko ardura izan du, eta bere iritzia eman du orain arteko ekintzen inguruan.

Azken ikuskizuna falta den arren, nola baloratzen dituzue orain arte egindakoak?

Oso pozik gaude, batez ere, orain arte eguraldiak errespetatu egin gaituelako. Kultur eskaintza kalera ateratzeak arrisku hori dauka, baina, oraingoan, ez dugu eguraldiagatik ikuskizunik lekuz aldatu beharrik izan. Bestalde, orain arteko ekintzen mailarekin oso pozik gaude; beraz, balorazioa ezin hobea da.

Ez dakit ikuskizun guztiak ikusi dituzun, baina bertatik bertara jarraitzen saiatzen zara, ezta?

Hala da. Egitaraua prestatzerakoan espektatiba batzuk izaten ditugu, baina horiek betetzen diren edo ez egiaztatzea gustatzen zait, eta baita ikusleen iritzia jasotzea ere.



Karmelo Alberdi. | XABI GOROSTIDI

Arlo pertsonalean, zein ikuskizunek harritu zaitu gehien?

Ba, lehenik eta behin, Lurak ikuskizunak nire espektatibak gainditu zituen eta Zaldibar oso kokapen egokia zen ikuskizunarentzat. Bocinegroren zuzenekoak ere positiboki harritu ninduen eta jendearengan inpresio berbera utzi zuen. Amaitzeko, Big Banda aipatuko nuke, urtetik urtera euren maila hobetzen dutelako.



Berriketan taldeak itxiko du aurtengo Udazabal zikloa. | BERRIKETAN

Euskal sustraiak eta flamenkoa bateratzen dituen ikuskizuna

'La Pulga' buru duen Berriketan taldea Herriko Plazako oholtzara igoko da domekan 20:00etan

XABI GOROSTIDI | ARRASATE

Udazabal programaren azken hitzorduan fusioa izango da protagonista nagusia. Berriketan taldeak kultura eta folklore nahasketak bitxia eskainiko du domekan Herriko Plazan, 20:00etan.

Kulturen sinergia

Esaera zaharrak dio: *Bat ez da batera heltzen, bi, bi eta erdi*. Horri jarraiki, sinergien balio erantsia musikan ere aplikatu daitekeela erakustera dator Berriketan taldea. Askok Etxebarrieta Lasheras *La Pulga* dantzari gasteiztarra buru duen formazioak euskal sustraiak eta andaluziar

folklore nahastuko ditu ikuskizunean. Zehazki, txalaparta eta flamenkoa izango dira emandiko osagai printzipalak.

Honela azaltzen du Etxebarrietak Berriketan taldearekin garatu duen ikuskizuna: "Gure taldean Txalaparta eta Flamenkoa elkarrekin berriketan jarri ditugu. Dantzaren eta musikaren bidez, txalapartak eta flamenkoak adierazten dituzten bi kultura elkartu ditugu, hain zuzen ere. Kultura eta erritmoa uztartzen dituen ikuskizunarekin, gazte eta helduak agertoki aurrean elkartzen ditugu", azaldu du flamenko dantzari trebeak.

EH Bildu kezkatuta euskara politikarekin

X.G. | ARRASATE

Arrasateko EH Bilduk kezka azaldu du euskaraz azken legealdian izan duen gainbeherarekin. Batzorde informatiboen %25 gazteleraz egitea kritikatu dute, eta euskararen txantxangorria alkatearen mikrofonoan izan arren udal gobernu taldearen batzarren %100 gazteleraz egiten direla salatu dute. "Lehen, guztiak euskaraz egiten ziren. Plenoetan ere gaztelera sarri entzun behar izaten dugu, lehenengo legealdian ez bezala", esan du Urki Larrea zinegotziak.

Euskara saila

Gaur egun lau lagunek osatzen dute saila eta euskara teknikari-buruak erretiroa hartuko du urrian. Udal gobernuak ez du oraindik jakinarazi bere ordezkari jarriko duen. Horretaz gain, pertsona horren jardunaren inguruko balorazio txostena egin behar duen Udalak maiztaren 31rako, baina Euskara Batzordetik zain jarraitzen dute, Udal gobernuak ez duelako gaia oraindik landu.

Ferrerias kaleko jaiak

Egitaraua:

08:00 Etxafleruak.

12:00 Txistularien kalejira.

17:00 Haur jolasak eta txokolate-jana.

19:00 Erraldioen konpartsa txikia.

19:00 Txistularien kalejira

19:00 Meza parrokian

21:00 Kale afaria

23:00 Dantzaldia.

Arrasate
UZTAILAK
26
martitzena

ondo
pasau!



ILEA

ILE-APAINDEGIA

943 79 87 62



Ferrerias 28
Tel.: 943 79 96 55

IRATI
TABERNA

Ferrerias kalea 27
Tel.: 943 79 56 11



GORKA
despandegia

Ferrerias 35
Tel.: 943 77 13 78

Permuta bertan behera uzteari onarpena eman dio udalbatzak

UNED patronatuaren bilera egin eta gaur dira sinatzekoak akordio berria

JULEN IRIONDO | BERGARA

Asteleheneko osoko bilkuran hartu zuen Bergarako udalbatzak permutaren gaineko erabakia; Udal Gobernuako alderdiek bozkatu zuten alde, eta oposizioek aurka. Erabaki honekin eta gaur, egubakoitza, UNED patronatuak –Aldundiak, Udalak, UNEDek eta Kutxak osatzen dute– herrian egingo duen bileran sinatuko duten akordioarekin, aurreko agintaldian egindako hitzarmena bertan behera utzi eta Arrizuriaga jauregia Udalarena izango da aurrerantzean, eta UNED Errege Seminarioan geratuko da. Udal Gobernuarentzat, egin zitekeen gauzarik onena; oposizioarentzat, galera handia herriarentzat.

"UNEDek jarraitzen du bere egoitzan, horrela nahi zuelako, besteak beste; eta, gainera, gertzen da herriaren erdialdean, eta horrek bizipoza ekarriko dio alde zaharrari", zioen alkateak. Baina, horrez gain, Elena Letek nabarmendu zuen Diputaziotik iritsiko den dirua: "Permuta horretaz gain, aipagarriena da Diputazioak emandako diru-laguntza berezi bat jaso dugula, 1.107.000 eurokoa, Seminarioko kultura aretoko

ekipamendurako eta obrarako, orain arte ez geneukana".

EH Bilduk zioen diru-laguntza hori "operazioa txukuntzeko" emango diola Diputazioak Udalari; baita bere garaian Arrizuriagara joatea UNEDek berak eskatu zuela ere; eta UNEDen eta Seminarioko kultura aretoaren artean "bizikidetzaz arazoak" izango direla ere bai, entsegu, muntaia eta abarretako zarategatik. Koalizioarentzat, oraingo erabakia galera handia da herriarentzat: "2.800 metro koadro txikiagoa da Arrizuriaga; balioari dagokionez, Arrizuriagak milioi bat euro gutxiago balio du Seminarioak baino; eta, gainera, eraikinaren egoera askoz okerragoa da Arrizuriagarena Errege Seminarioarena baino", zioen Agurne Barrusok.

PSE-EEren iritzia aldaketa

EH Bilduk adierazi zuen alderdi eta eragileen artean adostasun handia zegoela permutarekiko, EAJ izan dela historikoki begi onez ikusten ez zuen bakarra, eta PSE-EEri galdetu zion zergatik aldatu duen orain iritziz. Horrela erantzun zuen Mari Car-

men Barrenetxeak: "Juanjo Alvarezekin hitz egin izan dugu; permutarekiko interes handiena zuena zen. Zortzi urte pasa dira; gauzak utziago daude, eta Juanjo Alvarezek esan zigun behin eta berriz dagoeneko ez zuela merezi, hobe zela UNED Seminarioan geratzea, ez zuela merezi hara aldatzea, obra egin beharra hemen eta obra egin beharra han".

Irabaziko Aiert Lizarralde, berriz, iragarri zuen Udalak bere gain hartutako azpiegiturak "itxi" egin beharko dituela eta inbertsioa "alferrikakoa" suertatuko dela, mantenu kostuengatik: "Momentu honetan, agian, mantendu ditzake, baina ulertu behar dugu 2008tik hona errealtatea aldatu egin dela mundu mailan, eta gora baino behera goazela; gaur egun ematen ari garen zerbitzu hauek mantentzea zailagoa izango da".

Irabazik eta EH Bilduk salatu zuten eurek eskatu bezala gai hau eztabaidatzeko foro bat sortu ez izana Gobernuak; alkateak, berriz, erantzun, emandako pausoen gaineko informazioa helarazi diela beti gainerako alderdiei.



Suteak eragindako kalteetako batzuk. | MAITE TXINTXURRETA

Haurreskolan edo San Martinen, izango da zerbitzua irailean

J.I. | BERGARA

Kalte handiak eragin zituen aurreko egubakoitzetik zapturako gauean haurreskolan izandako suteak –eragindakoa izan zen sua–. Udalak adierazi du espero duela konponketa lanak amaituta egotea ikasturte berria hasterako, baina hala ez balitz ere zerbitzua bermatuta legokeela: "Hamabost ume daude matrikulatuta, bi gela nahikoa izango dira, eta San Martin eskolako instalazioak erabiltzea posible izango da", zioen alkateak. Ikasturtea amaitzeko eskola egun gutxi falta zirela gertatu zen sutea, eta egunotan umeak inguruko herrietako haurreskolekora eramateko aukera izan dute fami-

liek. Ikasturte berria irailaren 5ean hasiko da umeentzat.

Udalaren gaitzespena

Haurreskolako atzeko partean, jolaserako patioan, ziburuei eta jolaserako beste elementu batzuei eman zieten su. Ondorioz, eskola barruan, pertsianak, kristalak eta ondoko gelak kiskali edo hondatu egin ziren. Argindarra eta alarma, esaterako, hondatu ziren sutearen ondorioz.

Udalak "irmoki gaitzetsi" zuen gertaera, eta egileei dei egin zien egindakoaren eta eragindako kaltearen gainean hausnar dezaten: "Sinesgaitza eta ulergaitza egiten da inork hala korik egitea".

ERREGETXO PLAZA PROMOZIOA

Babes ofizialeko etxeetarako eta tasatuetarako eskaintza berezia.

Zure sukalde berria

%30eko
deskontuarekin!

Aprobetxa ezazu eskaintza berezia!

IMB ESTUDIOA



ibargarai 4, 20570 bergara - TEL./FAXA: 943 76 37 37 - imb_estudioa@hotmail.com

Herrira dator 'Bergarako besarkada'-ri buruzko erakusketa, Donostia 2016 barruan

Eragin zuen "poza" irudikatzen du, gero beste esanahi bat hartu arren foruzaleentzat

JULEN IRIONDO | BERGARA

Abuztuaren 31 zen, 1839an; armada liberalaren buru Esparterok eta karlisten arduradun Marotok elkar besarkatu zuten Bergaran; I. Karlistaldiaren amaiera sinbolizatu zuen keinu hark. Eta berriz ere abuztuaren 31z, berriz ere izango da *besarkada* Bergaran, oraingoan erakusketa eran: Donostia 2016 barruan, *Bake-ituna* proiektuko parte da 1839. *Bergarako Besarkadaren aurrean. Keinua eta interpretazioa* izeneko erakusketa, azaroaren 1era arte Laboratorium museoa ikusgai egongo dena.


Garaiko askotariko eratako materialaren bitartez, gertaera historiko haren, aurrekarien eta ondorenaren berri ematen du erakusketak; hirutan banatuta egongo da; hona Udaleko teknikari museologo Xabier Aranbururen azalpena: "Lehena da bakea lortzeko *Bergarako besarkada* baino lehen egin ziren ahaleginak; bigarrena da *Bergarako besarkada* bera; eta hirugarrena dira ospakizunak". Eta hirugarren horri garrantzi berezia ematen dio Aranburuk, erakusketak nabarmendu nahi duena eta askorentzat gauza jakina ez dena irudikatzen duelako: "Gaur egun, jende gehienak dugu *Bergarako Besarkada* traizio bat bezala,



San Telmo museoko *Bergarako besarkada*-ren irudikapena, erakusketan egongo dena. | SAN TELMO MUSEOA



Bergara, 1866an. | DIDIER PETIT DE MEURVILLE



1840ko ospakizuna. | J.A.SAEZ



Herriko ikuspegia. | THOMAS L. HORN BROOK

baina bere garaian ez zuten hala hartu. Jendea nazkatuta zegoen gerrarekin, eta bakearen berriarekin jendea asko poztu zen"; noski, akordioan jasotakoak Foruak bermatzen zituelakoan. Hala, akordioaren urteurrenean, adibidez, ospakizun handiak egin zituzten, eta 1872ra arte jarraitu zuten gertaera hura gogoratzen, nahiz eta gero eta indar txikiagoz, praktikan Foruak galbidean ikusita.

65 pieza denera

Erakusketa hamazazpi erakunde edo norbanakorengandik iritsitako 65 piezak osatzen dute, material grafikoa, batez ere, paperean, grabatuak eta. Baina badira, adibidez, hainbat idatzi, eta objektuak ere bai: Esparteroren gudako botika-kutxa, Harris britainiar kapitainaren domina estutxea eta Gurwood koronelaren kataloxa, adibidez. Horrez gain, Laboratoriumen ohikoa den pieza gonbidatua ere erakusketa honekin lotutakoa da oraingoan: Zumalakarregi jeneral karlistaren kanpainako idazmahaia.

Donostia 2016ren *Bake-ituna* proiektuko parte da Bergarako erakusketa; proiektu honek "bakeak historian zehar ezagutu dituen forma eta irudikapen konplexuei" erreparatu nahi die.

NIRE USTEZ

ANDER BOLIBAR



Kartografia digitala

Errealitate areagotua fikzio konpartitua da dagoeneko. Gelditzeko iritsi da. Geruza digitalak gero eta ohikoagoak izango dira, ez larritu, mundu abundante bat ireki zaigu begien aurrean, aprobeitatu dezagun.

GPSa joko bilakatzeari *geocaching* deritzogu, eta Pokemon GO fenomeno ezagunena den arren, adibide pila bat ditugu sarean. Euskaratik, herritik, mugimendu sozialetatik gure mapa eta jolasak sortzea eta erreallitate areagotuetako iruditegia

ere pentsatzea ezinbestekoa izango da euskaldunok diglosia teknologikoan ez galtzeko.

Hasi gaitezen geruzak amesten: bailarako hamaika mendi esanguratsuenak igotzen dituenari herriko komertzioetan beharpenak, mozal ordenantzak isilarazitako pareten holograma ibilbide gidatuak, herrigintzaren egitarau digitala herriko plazaren gainean, bailarako jai guztietan izan denari sari soziala, tokiko produktu bakoitzaren jatorria eta etxerako ibilbidea mugiko-

rrean, puntu beltzak identifikatzeko *big data* azterketak, erraus-tegi batek sortzen duen kutsadura ikusgarri bilakatu...

Greba orokor askok lortu ez dutena lortu du Pokemonek, jendea kalera ateratzea. Niantic dago atzean, Google ahalguztidunaren berotan sortutako enpresa. Gurekin jokatzeko ari dira, ez alderantziz.

Besteen mapetan galtzen bagara, gure kartografia propioa oparituko dugu. Jokoa gero eta gauza serioagoa bilakatu da.

'Ibar oihar' erakusketa abuztuaren 3tik 16ra Laboratoriumen

Gipuzkoako erreka eta arroetako soinu, ahots eta zaratak erregratatzeko egitasmoa da *Ibar oihar*. Hau aurrera eramateko, ehunka grabaketa egin dituzte Deba ibaiaren inguruan –Deba ibaiarekin hasi dute egitasmoa–. Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren ekimena da, Cristina Enea Fundazioarekin eta Audio-Lab elkartearekin elkarlanean egiten ari direna.



Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI
LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA



Janaria ere etxera eramaten dugu

Plater gustukoena:

- Xia-Jiao (ganba-enpanadillak)
- Curry triangeluak okelaz beteta
- Langostino frijituak almendrekin

Etor zaitez!

943 25 06 77 • Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean) • BERGARA

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

Kulturaz beteta datoz hurrengo asteak

Udan zehar kaleko zinea izango da martitzenetan, eta kaleko hainbat ikuskizun abuztuan zehar

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Uztailaren bukaera eta abuztuan Bergaran geratzen diren herri-tarrek izango dute herrian bertan zertaz gozatu, urrun joan barik. Izan ere, kultura ekitaldiz beteta dator opor garaia. Hala, udako eguraldi ona aprobetxatuz, kalean egingo diren hainbat ekimen antolatu dituzte.

Zinea

Hala, zinema gustuko dutenek martitzen gauetan kalean, San Martin plazan, pelikula bat ikusteko aukera izango dute, doan. Hemendik aurrera martitzeneko film bat emango dute, abuztuaren 16an izan ezik. Umeei zein helduei zuzendutako emanaldiak izango dira, eta askotariko estilota-koak: drama, komedia...

Kale ikuskizunak

Zineaz gain, beste hainbat ekimen ere izango dira kalean abuztuan zehar. Hilaren 3an, Aire ahizpak hirukotearen musika emanaldia izango da Fraisko zurin, gauetz. Horretaz gain, antzerkia eta zir-kua bezalako ikuskizunak ez dira falta izango. Hilaren 16an San Roke eguna da, herriko patroia, eta Haizea (EH) eta Meta Milonga (Argentina) taldeek emanaldia eskainiko dute elkarrekin Iralan.

Txuma Murugarren

Udako zikloa ixteko, emanaldi potoloa antolatu dute abuztuaren 31rako. Txuma Murugarren musikariak kontzertua eskainiko du Labegaraletan. Ekimenak auzoetara zabaltzeko asmoz aukeratu dute kokapen hori.



Txuma Murugarrenek kontzertua eskainiko du Labegaraletan. | IAGOBA DOMINGO

HITZORDUAK

Abuztuak 3, 22:00: Aire ahizpak (Fraisko zurin plazan)

Abuztuak 10, 20:00: Hermanos Moreno: 'Mucho mas que circo' (Munibe plazan)

Abuztuak 16, 20:00: Hego Haizea-Meta Milonga (Iralan)

Abuztuak 24, 20:00: 'La familia Toronbole' ikuskizuna (Errekalden)

Abuztuak 31, 22:00: Txuma Murugarren (Labegaraletan)

ZINEA (22:15)

Uztailak 26: Vacaciones (Gaztelera, 99 min., 12+)

Abuztuak 2: Asterix. Jainkoen egoitza (Euskaraz, 85 min.)

Abuztuak 9: Tomorrowland. (Gaztelera, 129 min)

Abuztuak 23: Friends. Abentura munstroen uhartean (Euskaraz, 88 min.)

Abuztuak 30: Noche en el museo 3 (Gaztelera, 98 min.)



Javier Balda. | EUSKONEWS

Javier Balda | Artista

"Bergara toki ona da udan erakusketa jartzeko"

M.T. | BERGARA


Javier Balda iruindarrak erakusketa jarriko du uztailaren 29tik abuztuaren 21era arte Aroztegi aretoan. Hiru dimentsiotako lanak dira Baldaren ezaugarri bereizgarria.

Zenbat pieza ekarriko dituzu? Hamahiru bat lan jarriko ditut, formatu ertainekoak. Mihi-sean teknika mistoak erabiliz, eta muntaiak ere bai.

Pieza berriak dira?

Bai, azken hiruhilekoan eginak. Hain zuzen, mostra batean erakutsiko ditudan lehen aldia izango da. Estudiotik zuzenean joango dira Bergarara.

Uda garaia ona da mostra jartzeko? Uste dut Bergarara turistak ere joaten direla, eta bisitak izango dituela uste dut. Lagunek izandako esperientziagatik, toki ona da udan erakusketa jartzeko. Ezagutzen dut Aroztegi aretoa, eta oso ondo dagoela iruditzen zait.



Erakusketako pieza bat. | J. BALDA

Udako txapelketak baditu irabazleak

Orissuain, Kiussness, Minavo eta Poteo Izarrak izan ziren garaile, bakoitza bere kategorian

M.T. | BERGARA

Ipintzako udako futbol txapelketa iritsi da bukaerara, eta baditu irabazleak kategoria desberdinetan. Joan den asteburuan jokatu

dira finalak. Ikusle kopuru handia batu zituzten partiduek, eta giro paregabea izan zen futbol zelaian zein publikoan.

Partiduak

Nesken finalean ez zen ezusteko handirik izan. Txapelketa osoan zehar nagusitasuna erakutsi duen Kiussness taldeak bost gol sartu zizkion Salabarduak taldeari.

Mutiletan, berriz, lehia estua goa izan zen, eta gol bakarra, Orissuainen alde.

Baina kopakoan izan zen emoziorik handiena. Izan ere, hiruna berdindu ostean, penaltietan nagusitu zen Minavo.

Beteranoen finalean gol festa izan zen. Poteo Izarrak 7-2 irabazi zion The Purpleri.



Kiussnesseko Etxeberria. | UDAKO TXAP.

Garaikurrak eta herriko komertzioen produktuak jaso zituzten irabazleek sari gisa.

Susto eta guzti

Mutiletan, Orissuain eta T.C.C. taldeen arteko finalean, sustoa ere izan zen. Bi jokalarik baloia- ren bila zihozazenean elkarren artean talka egin zuten buruan. Ondorioz, T.C.C.ko Andoni Arrutik zauria egin zuen buruan eta anbulantzia- n eroan behar izan zuten.



Orissuainen ospakizunak. | UDAKO TXAP.

Nabarmendu diren jokalariek

Mutiletan Orissuaingo Unai Orgaz atezainak jaso zuen jokalarik onenaren saria, eta Markel Ilzarbek pitxitxiarena.

Nesketan, Maialen Arregi izan zen onena, eta pitxitxi saria Ane Vicente eta Leire Aguayoren artean banatu zuten.

Bukatzeko, beteranoen kategorian pitxitxiaren eta jokalarik onenaren saria, biak, Ibon Leibarrek eroan zituen.

EMAITZAK

NESKAK

Kiussness - Salabarduak 5-0

MUTILAK

Orissuain - T.C.C. 1-0

MUTILAK KOPA

Minavo - Birgerias 3 (5)-3 (4)

BETERANOAK

Poteo Izarrak - The Purple 7-2

Jaiak ospatuko dituzte Basalgo eta Bolua auzoetan

Gaurtik astelehenera izango dira Bolukoak. 20:00etan izango da txupinazoa, eta iluntzean sardina-jana. Zapatuko hitzordu handia auzo bazkaria da. Domekatik martitzenera izango dira Basalgokoak. Ez dira faltako urteroko hitzordu diren txirrindularitza lasterketa (astelehena, 12:00) eta bertso bazkaria (astelehena, 14:30). Egitarauak [goiena.eusen](#) ikusgai.

Donostiara suzko erruberetara eta Madrilera S. Joxepetik

Erretiratuen elkartetik abuztuaren 16an Donostiako jaietako suzko erruberak ikustera joango dira. Abuztuaren 8ra arte eman daiteke izena San Joxepen. Bestalde, irailaren 19tik 26ra Madril, Toledo, Cuenca eta Segovia bisitatuko dituzte. Irteera hone- tarako ere izen ematea zabalik dago.

Demasa lehiaketarako eta udalaren egutegirako argazkiak

Irailaren 25era arte aurkez daitezke 2017ko udal egutegi- rako argazkiak. Gaia "animaliak" da. Demasa argazki lehiaketa ere martxan da. KMK 2016 arroparekin argazkiak atera eta bidali kmk16-komunikazioa@bergara.euse- ra, 615 75 77 87 Whatsappez edo #Demasaudan traolaz Twitter edo Instagramez.

Irailaren 18ra arte aurkeztu zaitezke postal lehiaketan

KOMUNITATEA GOIENA
JARDUN EUSKARA ELKARTEA

Aurten bosgarrenez, Jardunek udako postalen lehiaketa antolatu du. Udak askorako ematen du, eta oporretan urrutira joan edo bertan geratuta ere, istorio txikiak esan dezakete. Irailaren 18ra arte bidali daitezke postalak Jardunen Errotaldeko bulegora.

OHARRAK

ODOL EMATEA

Abuztuaren 3an eta 31n odol emateak izango dira osasun zentroan, 18:00etatik aurrera.

BASERRIETAKO PLASTIKOA

Nekazaritzan erabiltzen diren plastikoak jasoko dituzte uztailaren 26an. Hiru puntutan: Ugarrrian (granja parean), Murinondon (trenbide ondoan) eta San Juanen, eliza ondoan.

Jaien egitarauko gustuko azala bozkatu ahal dute herritarrek

Jaien egitarauaren azala irudikatzeko lehiaketara aurkeztu diren lanen erakusketa eta bozketa epea zabalik daude kultura etxeko sarreran. Nagusien mailan hamahiru lan aurkeztu dituzte eta epaimahaiak erabaki du zeinek ilustratuko duen jaien egitaraua. Besteak ikusgai daude eguaztenera arte; herritarren gustukoenak 200 txantxi irabaziko ditu.

Figuranteak behar dituzte hilaren 30eko grabazioak egiteko

2057 Odissea bat kanposantuan filma grabatzeko jendea behar dute. Hilaren 30ean egingo dituzten grabazioetarako da deialdia, zehazki. Arratsaldean izango dira grabaketak eta bakoitza non eta noiz egon behar den zuzenean jakinaraziko zaie interesatuei. Parte hartu gura duenak helbide honetara bidali behar du mezua: figurazioa@gmail.com.

Arte udalekuetako lanak ikusgai daude kultura etxean

Gaur, egubakoitza, bukatzen dira udaleku irekiak eta arte udalekuak. Azken egitasmo horretan gaztetxoek egindako lanak, margoak zein eskulturak, kultura etxeko erakusketa aretoan jarriko dituzte ikusgai gaur eguerdian; 12:00etan izango da inaugurazioa. Hilaren 29ra arte egongo dira ikusgai, 18:00etatik 20:00etara.

Abuztuaren 17an argia kenduko dute herri osoan lau orduz

Abuztuaren 17an, asteazkena, argia kenduko dute herri osoan 15:00etatik 19:00etara. Bustinzulo azpiestazioko azterketa lanak egiteko kenduko dute argia lau orduz. Oñargik emandako oharraren arabera, aurrez abisatu gabe emango dute argia. Gomendio bat ere eman du Oñargik: aparatu elektronikoak des-konektatzea.

Zubikoa kiroldegia itxita egongo da abuztuko domeketan

Abuztuko domeketan itxita egongo da Zubikoa kiroldegia. Bestalde, beste udal zerbitzuek ere ezohiko ordutegiak izango dituzte datorren hilean. Udaletxeko bulegoak, esaterako, 9:00etatik 21:00etara egongo dira zabalik astelehenetik egubakoitzera. Gizarte zerbitzuen bulegoa eguaztenetan itxita egongo da eta liburutegia goizez egongo da zabalik.

Igerilekua eta gimnasioa handitu edo eraikin berri batean egin

Aukera biak egiteko hiru proposamen jaso ditu Udal Gobernuak eta herritarrekin partekatu gura ditu, euren iritzia jasotzeko

OIHANA ELORTZA | OÑATI
Igerilekua handitu eta kiroldegia berritu beharra jaso du herrian egindako kirol planak eta behar horiek lantzen hasita dago Udal Gobernuak. Chocarro&Herranz arkitektoek egin dute igerilekua handitzearen proiektua: hiru kale gehiago izango lituzke igerileku handiak; txikia ere egungoa baino handiagoa litzateke, saunak dauden espazioa hartuz; egun aerobik gela dagoen tokian gune hezerako aldagelak egongo lirateke; eraikinak pisu bat gehiago izango luke eta gimnasioko eremua handiagoa izango litzateke. Hiru milioi euro eta erdi beharko lirateke hori egiteko.
Datuak eskuan izanda, bi zerbitzu horiek hartuko lituzkeen eraikin berri bat egiteak ze kostu izango lukeen ere jakin gura izan du Udal Gobernuak eta kalkulatu horiek egiteko ere eskatu die arkitektoei.

Zubikoatik kanpo
Igerilekua eta gimnasioa eraikin berri baten egitekotan, bi aukera jaso dituzte udalean: sabai erretraktila duen igerilekua da bat, hau da, itxi eta zabaldu egiten den sabaia; bigarren aukerak jasotzen du barruko igerilekuaz gain kanpoan bi ur potzu egitea, bata txikia, tamainaz eta sakoneraz, eta bigarrena igeri egiteko bi kalez gain txirristak edo jolaserako elementu batzuk dituen.
Bi aurreproiektu horien zenbatekoak ere baditu udalak: lehen aukerak hiru milioi euro eta erdiko kostua izango luke eta bigarrenak lau milioi euro eta erdikoa. "Igerilekua eta gimnasioa Zubikoatik atera eta eraikin berri baten egiteko aurreproiektu hauek, baina, ez daude Oñatirako propio landuta, hau da, ez da lanketa sakonik egin. Oñatin legez beste edozein tokitan egin ahal daitezkeen proiektuak dira", argitu du Borja Moiuak, kirol zinegotziak.



Herritar bat igerian Zubikoako igerileku handian. | GOIENA

Eraikin berria egitea jasotzen duten bi ideien kopuruak, baina, ez dira erabatekoak. "Eraikin hori egiteko 7.000 metro karra-

tuko lursaila beharko genuela diote arkitektoek, eta guk ez dugu horrelako espaziorik. Kirol zerbitzuetako langile kopurua

ere handitu egingo zen eta egungo kiroldegian obrak egin beharko lirateke igerilekuak eta gimnasioak utzitako tokiak beste zerbaiteko aprobetxatzeko", dio Moiuak. Egitasmo guzti honen barruan, paddle pistak egiteko aurrekontuak ere jaso ditu udalak: tenis pistaren ondoan hiru paddle pista jarraian egitea 600.000 euro lirateke eta bigarren tenis pista berria egin eta zaharraren tokian paddle-eko hiru pistak egitea, denak estalita, 776.000 euro, gutxi gorabehera.

Eztabaidatu
Kirol zinegotziak garbi utzi du Udal Gobernuak oraindik ez duela erabakirik hartu eta gaia herritarrekin partekatu gura dutela. "Kontua ez da orain arte jaso ditugun hiru aukera hauen artean baten edo beste baten alde egitea, baizik eta bakoitza hartu eta lantzea, horren gainean eztabaidatzea eta bakoitzaren aldeko eta kontrako arrazoiak bilatu eta balantzan jartzea. Eta ez bakarrik zenbakiei begiratuta. Esaterako, dagoen igerilekua handitzeak esan gura du hilabete batzuetan ezingo dela gune hezea erabili Oñatin. Igerilekua eta gimnasioa eraikin berri baten eginez gero, berriz, kirol instalazio guztiak ez lirateke eraikin bakarrean egongo, orain gertatzen den moduan", azaldu du kirol zinegotziak.

Urrian
Gai honekin parte-hartze prozesua jarriko du martxan Udal Gobernuak udazkenean. "Herriko jaien ostean bilera ireki bat egingo dugu herritarrekin. Arkitektoak eurak ere etortzea gura dugu, herritarren kezak eta galderak eurek zuzenean erantzuteko eta aurreproiektua ahalik eta zehatzten azaltzeko", dio Borja Moiuak.
Prozesua luzea izan daitekeela aurreikusten du Moiuak, baina agintaldi honetan erabakiren bat hartzeko moduan izango direla uste du.

Kanpoko igerilekua ere jasotzen du proposamenetako batek

Lehen bilera irekia jaien ostean egingo da, arkitektoekin batera

AINHOA LEGARISTI LIZARRA
IZASKUN LEGARISTI LIZARRA

ARKITEKTOAK

Era guztietako proiektu arkitektonikoak

Eskatu aurrekontua inongo konpromezurik gabe

Lazarraga Kalea 3, behea
20560 Oñati (Gipuzkoa)

661 09 35 00
645 70 17 52

BULEGOKO ORDUTEGIA:

Astelehena
Osteguna
Ostirala
09:00-13:00

Asteartea
Asteazkena
15:00-19:00

www.deianeunamuno.com

Tel.: 666 20 54 62

Emaila: deiufotografia@gmail.com

Estudioa: 20560 Oñati Gipuzkoa

dei

photography

Mendi Martxa desberdina izango da aurten

Antolatzaileek aldaketak egin dituzte bigarren ediziorako, bai ibilbide luzean, baita motzean ere

ENEKO AZURMENDI | OÑATI

Irailaren 17an izango da Oñatiko II. Mendi Martxa eta aurten aldaketak izango dituzte bi ibilbideek. "Oñatin inguru polit asko ditugu, eta hori aprobetxatu egin behar da. Kanpotik datorren jendea ez dator beti ibilbide bera egitera, inguru berriak ezagutu nahi ditu", adierazi du Iosu Lizarralde, antolatzaileetako batek. Gainera, zenbait parte-hartzaileek ere ibilbide aldaketa proposatu zuten iaz eta tontorren bat edo beste egitea ere eskatu zuten. Hori dela eta, aurten bi tontor sartu dituz-

te ibilbidean antolatzaileek: Burgamendi eta Elgeamendi.

Ibilbide motzak 27 kilometro izango ditu eta luzeak, berriz, 37,5 kilometro. Anoa-guneei dago-kienez, ibilbide motzean bi egon-gira eta luzean hiru.

Izen-ematea zabalik

Dagoeneko eman daiteke izena mendi martxan parte hartzeko. Bi aukera daude: alde batetik, www.kirolprobak.com webgunean eta bestetik, Aloña tabernan.

Federatuek 10 euro ordaindu beharko dituzte eta federatu



laz egin zen lehen aldiz Oñatiko Mendi Martxa eta oso arrakastatsua izan zen. | GOIENA

gabeek, berriz, 12. Horrez gain, egunean bertan plazan ere eman ahalgo da izena, irteera puntuan, baina parte-harztega garestiagoa izango da. Federatuek 13 euro ordaindu beharko dituzte eta federatu gabeek 15. Gainera, izen-emate bakoitzeko euro bat Oñatiko Hotz taldearendako izango da, errefuxiatuei lagundu ahal iza-

teko. "Haiek etorri ziren gugana, ibilbidean zehar esku bat botako zigutela esanez eta horren trukean, izen-emate bakoitzeko euren kausarako ekarpentxoak egitea erabaki genuen", adierazi du Josu Aiausti antolatzaileetako batek. Bestalde, kanpoko jendeari jakinarazteko asmotan, Facebook sare sozialean zozketa bat anto-

latu dute. Zozketa horretan parte hartzeko, mendi martxaren kartelaren argazkia eta elkarbanatu edota mendi martxara norbera norekin joango den iruzkin du beharko da. Hala, Ternua etxearen mendira joateko hiru makila irabazteko aukera izango da. Irabazleen izenak irailaren 11n argitaratuko dituzte.

Gaur abiatuko dute Mongoliara materiala eramateko bidaia

ENEKO AZURMENDI | OÑATI

Sergio Gil eta Sergio Lopez oñatiarrek gaur hasiko dute ezgaitasun fisiko eta kognitiboak dituzten umeen eguneko zentro batera beharrezko duten materiala eramateko bidaia solidarioa.

Gurpil aulkia, esku-ohak, hortzetako pasta, neguko arropak, eskolako materiala eta beste hainbat gauza eramango dituzte.

Bidaia luzea

Materialaz gain, 3.000 euro ere eramango dituzte, bertako zentroan berogailua ipintzeko.

Bidaia luzea hasiko dute gaur, guztira 12.000 kilometro inguru egingo dituzte. Egunean zortzi-hamar ordu gidatzeko asmoa dute eta hiru astetan iritsiko dira eta astebete egingo dute han. Egunezko zentroan materiala utzi eta



Sergio Lopez eta Sergio Gil, anbulantziarekin eta materialarekin. | MIREN ARREGI

bertako familiekin egon ostean, hegazkinez egingo dute Euskal Herrirako bidaia.

Izan ere, euren poltsikotik erosi dieten anbulantzia han bertan utziko dute. "Anbulancias Gipuzkoak merkeago utzi digu", adierazi dute.

Materiala ikusgai

Pasa den zapatuan, Mongoliara eramango duten materiala eta anbulantzia jarri zituzten ikusgai San Migel parrokiaren aurrealdean. Jende ugari hurbildu zen.



Nerea Maiztegi. | GOIENA

Maiztegi ordezkatuko du Elgarresta udalbatzan

E.A. | OÑATI

Miren Elgarrestak zinegotzi kargua utzi zuen atzo, osoko bilkuran, "arrazoi pertsonalak" tarteko. Haren lekua Nekane Maiztegi beteko duela jakinarazi du Oñatiko EAJk.

Maiztegi Enpresa Zientzietan lizentziaduna da eta egun, Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultatean dihardu, irakasle.

Esait-ek antolatutako mendi martxa Oñatin

E.A. | OÑATI

Zortzi eguneko zeharkaldi bat izango da mendi martxa, Leitzan hasi eta Urduñan bukatuko dena.

Zeharkaldiko laugarren etapa Segura eta Oñati artekoa izango da, abuztuaren 2an. Kanean egitarauaren barruan dago ekitaldi hau eta horregatik, Elektrotzarangak girotuko ditu kaleak. Gero, mendizaleek kiroldegian lo egiteko aukera izango dute.

Hurrengo etapa Oñati eta Leintz Gatzagaren artekoa izango da, abuztuaren 3an.

Etap guztiak 8:00etan hasi eta 17:00ak inguruan bukatuko dituztela aurreikusten dute antolatzaileek, baina Gatzagan amaitzen den etapa ordu erdi bat atzeratuko dela diote.

Madalenako jaiak ospatuko dituzte asteburu honetan

E.A. | OÑATI

Gaur abiatuko dituzte Madalenako jaiak eta domekara bitartean, adin eta gustu guztietarako ekitaldiak egongo dira.

Nabarmentzeko ekitaldien artean, pilota txapelketa, kontzertuak –Kaotikoren bertsioak, Denbora Galdia, Skaleak eta Gaitzerdi–, Irrien Lagunak ipuin kontaketa, puzgarriak, apar festa, erromeria, herri kirolak eta mus txapelketa egongo dira.

San Lorentzo eta Bidebarrieta

Bi auzo hauetako jaiak ere ospatuko dituzte abuztuan zehar. San Lorentzoko jaiak abuztuaren 6tik 8ra bitartean izango dira eta Bidebarrietakoak, berriz, abuztuaren 26tik 28ra bitartean. Bidebarrietako jaiak ospatzen dituzten lehen aldia izango da.

NIRE USTEZ

XABIER ETXEBARRIA



'Bilbin' elkar ikusiko dugu

Azken egunetako eguraldiak sartu gaitu horren berezia den urtaro honetan. Urte osoa eman dugu garai honi itxaroten, ohiko errutinatik askatu eta giro hobeak gonbidatuta, kalera irten, lagunekin egon eta esperientzia bereziak bizitzeko.

Bakoitzak bere bizipen eta oroitzapenak izango ditu, bidaiak, udalekuak edo dena delakoa. Ni udan barneratu ahala gaupasez oroitzen naiz, Trianako jaiak, San Ferminak, Bilbo...

Zirrara berezia sortzen dit urtez urte egindako gaupasetan bizi izandakoak oroitzeak,

are gehiago aurtengo parrandak gero eta gertuago daudela ikusteak.

Udan soilik eman daitezkeen parrandak dira, arropaz arin, hotza pasatu gabe. Hainbat egun lehenago joaneko autobus tiketa erosita baina itzulera zoriaren esku uzten dituzun bidaia horiek.

Mañaneo errepika ezinak, Nabarrerria inguruan gosaltzeko pintxotan gastatutako dirutza, Trianako txosnak itxi ondoren, edozein tabernetan, entzierroa ikusi eta adarkada bakoitza ospatzea ezagutzen ez duzun jendearekin.

Eta zer esan Bilbo Zaharreko goizez, Areatzatik Bilbi-rako gaupasero manifa, urte osoan ikusi ez dituzun lagunaren topaleku, etxera itzultzeko ordua edozein aitzakia-ekin berandutzen, azken xentimoak gastatu arte, hurrengo eguneko biharamuna minutuz minutu handitzen... Zelako gogoa!

Andramaixak nobedadez beteta

Atzegiko kideek botako dute txupina bezperan eta jaietako bigarren eguna umeei eskainiko diete

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Iristear dago etxeetara Andramaixetako egitaraua, berrikuntzaz betetako egitaraua, hain zuzen. "Jai benetan politikak izango dira. Gainera, iazkoarekin alderatuta ia 12.000 euro jaitsi ditugu kalitateari eta kantitateari eutsita", jakinarazi du Joxe Migel Uribarrennek, kultura zinegotziak. Aurrekontua da 78.700 euro ingurukoa.

Jaiak, azken urteotan, legez txosna gunean hasiko dituzte abuztuaren 13an; *Zuk egin nik jan* bazkaria, mozkorra tomatearen igoera eta kontzertuak izango dira, besteak beste. Txupina, baina, 14an botako dute, eta aurtun lehenengoz, herriko elkarte batek: Atzegi. Pregoia ere hango kideek egingo dute.

Umeek, ostera, egun osoa izango dute eurendako: abuztuaren 16a. Orduan egingo dute pregoia alkate txikiak, Asier Lopez de Armentia, eta alkate-orde txikiak, Claudia Mendibil. Bizikleta jaia, buruhandiak, pailazoen emanaldia eta txokolate-jana izango dituzte, gainera, egun horretan.

Deabru beltzak

Aurtengo kontzertu izarrak izango dira Gatillazo eta Arkada Social; Herriko Plazan egongo dira, hilaren 15ean. Horrez gain, beste hainbat daude: Andonik Mugitzen Nau DJa eta Los del Gas; eta txosna-gunean honako hauek: Bad Sound Sistem, The Potes, Itaca Band, Ezten Giro eta Aldats. Ikuskizun dotoreak izango direla ere iraga-



Gatillazo taldeko Evaristo kantuan. | IMANOL SORIANO

rri dute: Deabru Beltzak taldearen *Su á feu*; La Cuadrilla de la TIA ska taldearen kale animazioa; eta *El gran musical de París*, Moulin Rougeren omenezko ikuskizuna.

Txirrindulari lasterketak ere ez du hutsik egingo eta 23 urtez azpiko eta elite mailakoen 78. Leintz bailarako itzulia jokatu da hilaren 16an.

Profesionalen arteko pilota partiduak ere izango dira. 4 eta erdian jokatu dute Taintak eta

Arteagak, eta eskuz binakako partidua Berasaluze II.ak eta Ibai Zabalak, Elezkano II. eta Aretxabaletaren aurka. Berasaluzeren erretiratu aurreko azkeneko partiduetako bat izango da eta omenaldia jasoko du.

Jaietako azken eguna, ostera, Kuadrillen Eguna izango da urtero legez, eta paella erraldoia, kuadrillen arteko jokoak, soka-muturra eta Rockalean taldearekin kalejira izango dira.

EH Bilduko Ion Albizu zinegotziak egun erdiko lan jarduna izango du udaletxean irailetik aurrera

M.A. | ARETXABALETA

Oporrak hartu aurreko azken ohiko osoko bilkura egin zuen udalbatzak astelehenean, eta onartu zuten EH Bilduko zinegotzi baten udal jarduna. Irailetik aurrera, Ion Albizu lau orduz izango da udaletxean.

Udal Lege berriak ahalbideratzen du oposizioako talde nagusiak liberatu bat izatea: "Eskubide hori aurrera eroan gura izan dute eta adostu dugu 27.000 euroko soldata urtean; jardun erdira egotean, erdia jasoko du", argitu du Unai Elkoro alkateak. Albizu, bere aldetik, lanerako gogoz agertu da: "Lan egiteko bi modu daude: bata, kexa eta liskar bidez, hori oso erreza da; eta bestea, ikerketa lana eginda, proiektuak proposatuta... eta horrek dedikazioa behar du". Hala ere ez da aldaketarik izango; EH Bildu, orain arte legez, Udal gobernu batzordeko kide izango da eta oposizioan jarraituko du egoten.

Irabaziko zinegotzia Udal Legeak dioenaren aurka azaldu

zen: "Oposizioako talde nagusiak bakarrik hartzen ditue kontuan"; abstentziora jo zuen.

Gela desplazatuari babesa

Leintz Gatzagako gela desplazatua zabalik mantentzearen alde egin zuen udalbatzak mozio bidez. Guraso elkarteari babesa adierazi zioten eta babes horren berri Hezkuntza Sailera bideratzeko konpromisoa hartu zuten.

Galderen atalean, ostera, tanatorioaren gainera informazioa eskatu zuen EH Bilduk, eta ez zen ados agertu industrialdean tanatorioari lekua egitearren Udalak 170.000 euro gastatu behar izanarekin. Alkateak erantzun zien "irtenbide egokiena" topatu nahi izan dutela.

Bukatzeko, Hirigintza Plana oraindik "abian ez egotea" egotzi zion EH Bilduk Udal gobernuari, eta Irabazik, Berdintasun Saila "geldi" egotea teknikaria joan zenetik. Biei ala biei irailean bultzada bat emateko konpromisoa hartu zuten.



EH Bilduko zinegotziak asteleheneko osoko bilkuran. | MIRARI ALTUBE



Kirolariak eta Seberiano Iturbe bazkidea egubakoitzean, sariekin. | UDA

UDAKo zuzendaritza pozik agertu da azken denboraldiarekin

LZEBERIO/M.ALTUBE | ARETXABALETA

Urteko batzarra egin du Aretxabaleta Kirol Elkartek eta zuzendaritza pozik agertu da denboraldiak emandakoarekin. Futboleko galdu egin dute Hirugarren Maila, baina gainerakoan "emaitza politikak" lortu dituztela elkarteako kirolariek gogorazi zuten egubakoitzean. Balantze ekonomikoa ere positiboa izan da, 5.000 euroko superabitatekin amaitu du-eta urtea.

Futbol zelai eta bulego berriak

Asmo berriak aurkeztu zituzten. Kiroldegi aurreko zelaian zazpiko futboleko zelai berria egingo dute. Udalarekin akordioa lortu dutela jakinarazi zuten eta horrek aukera emango die la mutilek dituzten baldintza berberak eskaintzeko neskei eta futboleko egin nahi duten gaztetxo guztiei ateak zabaltzeko. Durana kaleko bulegoari dagokionez, udazkenerako zabalik izatea aurreikusi dute.

Armarri berria ere aurkeztu zuten batzarrean. 70. urteurrenaren barruan lehiaketa antolatu zuten, eta Jon Ander Alberdi aretxabaletarrak egin dako irudiak irabazi du.

Sariak kirolariei

Azken urteotan legez sariak banatu zituzten batzarrean; sail bakoitzeko eta futbol talde bakoitzeko jokalaria banak jaso zuen. Ohorezko bazkide bat ere izendatu zuten: Seberiano Iturbe. "Bizitza guztia eman duela UDArendako atzeko lanetan" adierazi zuten eta Iturbek hunkituta jaso zuen saria.

Argazkiak bidaltzeko deia

Bestetik, herritarrei deia ere egin diete. UDAKo kamisetarekin ateratako oporretako argazkiak gura dituzte Honako traola erabili behar da: #oporrakUDA. Bidaltzaileen artean zozketatuko dute UDAKo ekipamendu bat.

NIRE USTEZ

PALOMA MARTINEZ



Mural kolektiboa

Mural kolektibo bat egin dugu Hirusta tabernan eta beste bat bukatzen ari gara Ilargi plazan. Mural kolektibo honetan parte hartzen gabiltzan guztiok boluntarioak gara. Hori dela eta: Eskerrik asko!! esan nahi diet bihotz bihotzetik parte hartzen ari diren guztiei. Batik bat eskerrik asko Izaro eta Idoia, zuek transmititzen duzuen konfiantza, lasaitasuna eta indarragatik. Zuei esker muralen inguruan oso giro polita sortzen da. Zuek egiten ari zareten lanari esker gainontzeko guztiok margotu ahal dugu. Hormetan gure pintzeladak geldituko dira urte batzuetan, baina zuek transmititu dizkiguzuen askatasuna, maitasuna eta konfiantza bizi osorako geldituko zaizkigu. Aniztasuna, berdintasuna eta komunikazioa dira bi muralen gaiak. Oraindik goiz da herritarrek ikusiko dituzten jakiteko, baina nik ikusten dutut! Bai hormetan, bai parte hartzen gabiltzan taldean ere. Mural hauek paretak apaintzeaz gain gure harremanak ere ukitu dituzte, alaitu dituzte. Aretxabaletan badauzkagu mural kolektiboak eta honezkero mural taldea jaio da eta indarrez beteta. Anima zaitetz eta parte hartu "beldur barik" Izarok eta Idoiak esaten duten bezala.

'Zinema kalean' barruko gaurko emanaldiak pilotalekuan dira

Bi film emango dituzte gaur, egubakoitza: *Surfak zoratuta* (19:30); eta *Point break, sin límites* (22:00). Plazan beharrean pilotalekuan izango dira. Hilaren 29an, ostera, *Monster house* (19:30) eta *El puente de los espías* (22:00) daude, eguraldi onarekin Herriko Plazan.

Mobiliario ARENAZA

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



Zaintzarako dorrea izan litekeen haitzean lanak berrartu dituzte 2009ko zundaketen ostean. | AMAIA TXINTXURRETA

Atxorrotxeko indusketak egiten ari dira egunotan

Astlehenean hasi ziren lanekin, eta bi astez izango dira bertan boluntarioak

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Eskoriatzako Atxorrotx mendiko indusketak egiten ari dira hainbat boluntario, aste honetan, Iñaki Sagredo arkeologoaren gidaritzapean. Aurten, zazpigarren urtea da, eta bertan izan zen gazteluaren eta garai hartako aztarnak azaleratzen hamahiru boluntario ari dira lanean, iaz baino pertsona gehiago.

Astlehenean hasi ziren indusketa-lanak, eta bi taldetan banatuta, azken urteotan egindako indusketen ingurua –gaztelua zegoen tokia– garbitzen ari dira batzuk, eta beste batzuk aldiz, pareko haitzean indusketa berriak hasi dira egiten. Bi errusiar, iruindarrak, gasteiztarak, eskoriatzar bat... daude indusketetan boluntario gisa lanean. Batzuk hainbat urtetan izan dira bertan; beste batzuentzat, aldiz, lehen aldia da. Arkeologia ikasleak dauden arren, ingeniariak, administrazioa... ikasi duena ere bada boluntario, eta leku ederrean lana eginaz, paisaiaz disfrutatzen ari dira aldi berean, bide batez historiaren eta arkeologiaren pixka bat ikasteko aprobeztatuz.

Zaintzarako dorrea berrartuz

2011an zundaketa txiki bat egin zuten zaintzako dorrea izan litekeen haitzean, baina alde batera utzi zuten bertako lana, eta gazteluan zentratu ziren. Iñaki Sagredo arkeologoaren esanetan: "Hainbat gauza topatu genituen, baina gazteluan zentratu ginen. Metal detektagailuekin jendea zuloak egiten ibili zela konturatu ginen iaz, eta arazo bat izan da hori guretzat. Dena den, poliki-poliki gazteluko ingurua zein pareko haitzean lanean jarraituko dugu".

Aurten, haitz horretako lanak berrartu dituzte, eta haitza eskualdea kontrolatzeko erabiltzen zutela uste dute bertan lanean ari

direnek: "Erdi Aroko aztarnak aurkitu ditugu: zeramikak, hezurak, gezi baten punta bat... Ondoren, suposatzen dut Ibarraundi museora eramango ditugula, laborategian analizatu ostean, informazioa jaso eta interpretatu ondoren", adierazi du Izaskun Ruiz de Arbulo boluntarioak.

Panelak ermita ondoan

Atxorrotxeko gazteluaren goiko aldean, ermitaren alboan, 750 metroko gailurrean, egurrezko begiratoki bat jarri nahi da etorkizunean. Asmoa da bertan bi panel jartzea, bertatik ikusten diren mendiak zeintzuk diren jakiteko.



Atxorrotxeko ermita ondoan, garbiketa lanak egiten ari dira. | AMAIA TXINTXURRETA

Gazteluan sakonera handiko lanak

Arma aztarnak, Erdi Aroko, Erromatar garaiko eta Burdin Aroko zeramika aztarnak, apaingarriak eta baita Erdi Aroko hainbat garaitako monetak aurkitu dira zazpi urtetan, gaztelua zegoen tokian. Hala ere, "sakonera aurkikuntza gehiago egin daitezkeela uste dut, baina kontuz egin beharrekoak dira. Egunotan, txukunketa lanetan ari gara. Ez da bakarrik gauzak aurkitzea, beste hainbat lan ete egin behar dira bertan" adierazi du Iñaki Sagredo arkeologoak.

Kontzertu alaia eskainiko du Big Band Berri taldeak

I.B | ESKORIATZA

Gasteizko Luis Aranburu Udala Musika Eskolako ikasleek osatzen dute Big Band Berri taldea, eta gaur, Errekan Gora egitasmoaren barruan, kontzertua eskainiko dute Txistularien arratian, 22:30ean.

2004an ikasle eta irakasle talde baten ekimenez sortutako taldea da Big Band Berri. Gaur egun, aldiz, ikasleek soilik eramanen dute taldea aurrera, eta jazz taldea izan arren, beste hainbat estilo ere uztartzen dituzte beraien emanaldietan: funka, swinga... Taldeko Pablo Sanz tronboi-jolearen esanetan: "Estilo ezberdineko musika lantzeaz gain, gure taldera moldatutako bertsioak egiten ditugu. Dantzagarriak dira gehienak, baina baladaren bat edo beste joko dugu". Tina Turner, Stevie

Wonder eta Michael Jackson taldeen bertsioak joko dituzte, besteak beste.

Musikari gazteak

Hogei musikarik osatzen dute taldea: tronboi-joleak, saxofonistek, tronpetajoleak, piano-joleak, bateria-joleak, gitarristak, baxu-joleak eta abeslariak. "Bost hastean behin entseatzeko dugu, eta talde gaztea gara. Gazteenak 17 urte izango ditu eta zaharrenak 50 urte. Musika eskolatik ikasleak taldera etortzera bultzatzen dituzte; batzuk etorri eta geratu egiten dira".

Batez ere, Gasteizen mugitzen den taldea da, eta Arabako hainbat herritara ere mugitzen dira. Aurten San Juan jaietan Nafarroan izan dira, eta gaur, Eskoriatzan izango dira herri-tarrei musika alaia eskaintzen.



Big Band Berri Gasteizko taldea kontzertuan. | PABLO SANZ

Madalenak ospatuko dituzte Eskoriatzako Marin elizatean

Urteroko egitarau xumea prestatu dute aurten

I.B | ESKORIATZA

Maringo jaiak, Madalenak, ospatuko dituzte aste bukaera honetan bertako auzotarrek, eta ohiturari jarraituz, azken urteotako egitarau bera prestatu dute, aldaketa handi barik.

Zapatuan, 18:00etan emango diete hasiera Madalenei etxafuegoak jaurtiz, eta ondoren, festa kanpaa izango da, Arientzako kanpai-jotzaile eskolako eskutik. Alberto Letona Maringo auzo-alkatearen esanetan: "Urte dezente daramagu jaiak mantentzen eta egitarau xumea prestatzen dugun arren, berraz, garenok oso ondo pasatzen dugu. Hala, auzotarrek soilik izan arren, nahi duena etorri daiteke bertara".


Bestalde, Gatzagako auto igoe-ara dela-eta, 16:00etatik 20:00etara bitartean itxita egongo da errepidea; beraz, lehenago batuko dira auzotarrak. 21:00etan, berriz, auzo-afaria egingo dute Lexarrape elkartearen, eta 35 lagun inguru batuko dira bertan. Eta, zapatuarekin amaitzeko erro-meria egingo dute urteroko gonbidatuekin.

Afalostean, erromeria

Jainaga eta Narbaiza trikitilari-ek girotuko dute gaua afaldu ostean. Hala, dantzarako tarteak izango da elizapean.

Domekan, berriz, meza eta luntxa egingo dute. Aurten, meza 12:00etan beharrean 11:00etan izango da apaizak eskatuta.

**VILLAR
ILE-APAINDEGIA
SALGAI**



Nire jabearen
erretiroagatik
saltzen naute.
Betiko bezeroek
ni erostea
eskertuko dizute!

ESKORIATZA

Tel.: 600 433 566
Deitu 13:00-17:00 artean.

Aho-zapore oso ona utzi dute aurtengo Antzuolako jaiek

- Kuadrillen arteko jokoek jende ugari erakarri dute eta giro ezin hobe sortu dute
- Jai batzordeak balorazio oso positiboa egin du, ekintza berriek arrakasta izan dute eta

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Antzuolako jaietan eguraldi paregabea lagun izanda, jendetza ibili da; bereziki, asteburuan. Ekitaldi jendetsuenetakoa eta hunkigarrienetakoa, urtero legez, zapatuko Mairuaren Alardea izan zen, zalantza gabe.

"Jaien ikuspegitik oso ondo joan dira eta jende askok hartu du parte antolatutako ekintzetan. Egue-nean, Herriko Plaza txiki geratu zen Hontzaren jaitsiera aurreko afariaz gozatzeko. Egubakoitzean, sekulako giroa egon zen goizean goizetik; arratsaldeko jokoetan ere oso ondo pasa genuen –hamabi kuadrilla animatu ginen parte hartzera–, azaldu du Beñardo Kortabarria Antzuolako alkatea.

Zapatua Bergarako Bandaren kalejirarekin hasi zuten. Udal ordezkariarekin batera, Ainhoa Aznarez Nafarroako Legebiltzarreko presidentea eta Txomin Areso Muezeko alkatea ere bertan izan ziren eta ondoren Alardeaz ere disfrutatzeko. "Bazkarian eta Alarde dotorean jende ugari izan zen. Eta zapatu gauean inguruetako gazte mordoak ere agertu zen Antzuolara. Goizaldean antzematen zen herrian, eta, egia esan, kosta egin zitzaigun herria txukuntzea". Azpimarratu ere herri bazkarian eta bolatokiaren inaugurazioen herritar ugarik parte hartu izana. Gainera, domekan, sorpresaz, ur-parkea ireki zuten umeek proba zezaten. "Erromeriarekin eta Hontzaren ohiko igoerarekin, kito aurtengoak. Nekatuta, baina gustura; aho-zapore gozoarekin!".

Ekintza berrien arrakasta

Jai batzordeak balorazio oso positiboa egin du asteon: "Oso ondo joan da dena. Jende asko ibili da kalean; ekintzetan ere jende askok hartu du parte eta oso pozik gaude. Ekintza berriak oso arrakastatsuak izan dira –kuadrillen jokoak, zaharrei lepoko zapia jartzea...– eta datorren urtean ere egingo ditugu. Puntu beltza garbiketarena izan da. Enpresa berri bat etorri da eta Udala ez dago bat ere gustura eman duen zerbitzuarekin", ondorioztatu du jai batzordeak.

Esan, Mairuaren Alardea oinarri hartuta, Plazerra irratia egindako performanceak jende asko erakarri zuela. Herritar askok sorpresa hartu zuen ikusizunarekin.

Bideoak eta argazkiak ikusteko: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Txanpiñoak saltsan prestatzea izan da aurtengo erronka.



Kuadrillen arteko jokoak lehenengoz egin dira.



Larrain dantza.



Bolatokia inauguratu zuten jaietako domekan.



Plazerra irratia egindako performancea.



Umeen jolas parkea.



Joseba Iparragirre, buruzagia.



Kalebarrengo herri bazkaria.



Pausoka elkarrekin antolatutako umeendako bazkaria.



Fusilariek, Herriko Plazan armak sutu zituzteneko unean. | ARGAZKIAK: AITOR AGIRIANO ETA MAIDER ARREGI

ANTZUOLA

Sardina-jana eta kanpai hotsak San Bartolome egunean

Elkartasun festa irailaren 2an ospatuko da

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Abuztuaren 24an, eguaztena, ospatuko da San Bartolome eguna. Hala, Eguzki auzoan, Altzarte alboan, dagoen kanpai-jotzearekin ekingo zaio festari goizeko bederatzietan. "San Bartolomeko kanpai-jotzeaz Migel Jauregi arduratuko da. Hala, egunean zehar ordu hauek entzungai izango dira kanpai hotsak: 09:00etan, 14:00etan eta 20:00etan. Ondoren, Herriko Plazan sardina-jana egingo dugu. Etortzera animatzen diren guztiei txakolina eta sardinak banatzen dizkiegu", azaldu du Anelkarreko Jabi Etxaniz kideak.

Anelkarrek dauka azken urteetan festa hau antolatzeako ardura. Eta bertan batzen den

dirua Kongon eta Senegalen martxan dituzten proiektuak bultzatzeko bideratuko dute.

Elkartasun eguna

Aurten Anelkarrek irailaren 2an ospatuko du Elkartasun festa. Urtero egin ohi duen moduan, eta dagoeneko ohitura ere bilakatu den legez, herri-tarren tortillak izango dira protagonista. "Ekintza honetan ohitura da herri-tarrei borondatez patata-tortilla prestatzeko eskatzea. Azken urteetan, 35-40 bat tortilla gertatu dituzte. Pintxoak guk jartzen ditugu eta aurtengo Elkartasun festa Kuban girotuta egongo denez, bertako musika eta janaria dastatu ahal-ko dute", azaldu du.

ANTZUOLA



AITOR AGIRIANO

Gaur inauguratuko da ur-parkea

Bero galantari aurre egiteko, ezustean, ur-parkeaz gozatzeko aukera izan zuten antzuolarrek festetako domekan. Hala ere, ur-parkearen inaugurazioa ofiziala, gaur, egubakoitza, eguerdiko hamabietan egingo dute Sagasti auzoan.

ANTZUOLA



OLALDE

Omenaldi xumea Mendizabali

Aitor Mendizabali omenaldi xumea egin genion festetako egubakoitzean. Harrobi polita dago pilota eskolan. Lanean jarraituko dugu. Mila esker bertaratutakoei eta Iker Aizkorberi argazki politik ateratzeagatik!

KOMUNITATEA GOIENA | OLALDE PILOTA TALDEA | ANTZUOLA

ANTZUOLA

Herriko erreka auzolanean garbitzeko deia egin du herri-taldea batek; bihar goizean batuko dira

Iaz bezala, eta Antzuolako jai nagusiak bukatu ostean, erreka garbitzeko aprobeztatuko dute antzuolarrek. Hala, zapatuan, uztailaren 23an, erreka auzolanean garbitzeko deia egin du herri-taldea batek. 10:00etan plazatik abiatuko dira erreka garbitzeko asmoz. Ondoren, auzolanean lagundu dutenendako luntxa izango da. Antolatzaileek eskularruak eramateko aholkatu dute.

ELGETA

Hiru ur-putzu bero-kolpe handiari aurre egiten laguntzeko

Umeen gozamenerako martitzenean ipini zituen Udalak Bolatokiko kantxan

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Umeak zain zeuden eta ondo etorri dira aste hasierako bero-kolpeari aurre egiteko. Martitzen goizean ipini zituen Udalak, eta udalekuetako umeak izan ziren lehenengoak sartzen. Hasierako asmoa zen bi egunez mantentzea, baina eguraldi aldaketa tarteko bakarrarekin konformatu behar izan dute gaztetxoek. Adineko elgetarrek kontatzen dute bero handiko egunetan San Juan erre-kara edo Beistegiko putzura joaten zirela. "Sugeak zeudela eta oinetakorik ez kentzeko esaten ziguten etxean", diote barrez.



Ur putzuak, martitzenean, Bolatokiko kantxan. | L.Z.

Gaur amaitzen dira udaleku irekiak

Lau asteotan askotariko ekintzak egin dituzte, eta zerbitzuari amaiera emateko argazki emanaldia antolatu dute gaur eguerdirako hezitzaileek. Egindako jokoak, tailerrak, irteerak... izango dira ikusgai. Martitzenean, esaterako, meloiarekin izotz-edaria prestatzen ikasi zuten Arranoak taldeko kideek.



Udalekuetako Arranoak taldeko kideak izotz-edaria prestatzen. | L.Z.

ELGETA

Espaloiko ostalaritza zerbitzua esleitu gura du Udalak

L.Z. | ELGETA

Udalak prest ditu Espaloia kafe antzokiaren kudeaketarako eta ustiapenerako baldintza orokor-rrak —ikusgai *elgeta.eus* atarian—. Ezusterik ezean udalbatzak martitzenean onartuko du atzo aurkeztutako proposamena.

Baldintza berriak

Udalak ostalaritza zerbitzua esleitu gura du. "Kultura arloko proposamenak baloratuko ditugu, baina ez dira derrigorrezkoak", esan du kultura zinegotzi Janire Lazkanok. Urtebeterako esleipena izango da, lau urteko epean urtero berritu daitekeena. Bete-beharretan hileko alokairua gutxienez 200 eurokoa izango da,

eta antzokiak zabalik beharko du barikutik domekara, jai egunetan eta jai bezperetan gutxienez 10:00etatik, eta gutxienez 22:00ak arte. Antzokiak zabalik beharko du baita ere bisita gidatuetarako.

Esleipendunaren kargu izango dira garbiketa lanak eta gastu orokorrak —argindarra, ura, gasa...—. Orain arte ez bezala,

Udalak kontratatutako potentziaren erdia hartuko du bere gain. Urtean hogeik ekintza egiteko aukera izango du Udalak, eta kasu horietan soinu teknikariaren ordainketa ez da esleipendunaren kargu izango. Teknikari bat kontratatzeke dirulaguntza eskatu du Udalak. Kultura arloan ere lagunduko luke.

Kultura etxeko gelak auzolanean husten

Sei lagun elkartu ziren astelehenean kultura etxeko bi gela auzolanean husteko. Lehen solairuan dagoen gela txikia eta bigarren solairuko argazkilaritza gela hustu zituzten. Gela horiek berriz erabilgarri ipintzea da asmoa, eta herriko elkarteek dituzten beharrei erantzutea. Oraingoan, bi eskari jaso ditu Udalak: Goibeko elkartearena eta guraso elkartearena.

ELGETA

Abuztuan ere bisita gidatuak Intxortako lubakietara

Irailera bitartean hiru bisita gidatu daude programatuta Elgetan: uztailaren 31n, eta abuztuaren 7an eta 28an. Ezinbestekoa da aurrez izena ematea. Beste edozein egunetan ere egin daitezke bisitak, baina aurrez egin behar da eskaera. Argibideak: 943 71 89 11 edo 943 79 64 63 edo *turismo@debagoiena.net*.

Festa eguna izango da abuztuaren 16a San Roke kalean

Lehen minututik ospatuko dute San Roke Eguna auzotarrek. Gauerdian botako dute suzeria, eta jarraian, iazko argazkiekin emanaldia egingo dute. Eguneko egitaraua da: 11:30ean salda, 12:00etan meza ermitan, 13:30ean poteoa trikitilariarekin, eta 14:30ean bazkaria eta erromeria.

Erretiratuek irteera egingo dute Burgosera irailaren 13an

Burgosko katedrala, Mirafloresko Kartuja eta hiria bera ezagutzeko asmoarekin antolatu dute irteera Xalbadorpe erretiratuen elkartetik. Egun osoko txangoa izango da Elgetatik 08:15ean abiatuta. Izen-ematea irailaren 3an egingo dute. Joan nahi duenak 30 euro ordaindu beharko ditu.

ARAMAIO

Komun berriak izango dituzte eskolan ikasturte berrirako

Asteon hasi ditu lanok Deguria Corporation SLk 27.625,05 eurotan

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO

Hainbat lan egin behar dituzte eskolan datorren ikasturtea hasi baino lehen. Lehenengo eta bigarren solairuko komunak konpontzea da lan horietako bat. Eguaztenean hasi zen lanean Deguria Corporation S.L. enpresa. Guraso elkartearekin eta San Martin eskolarekin adostuta, Udalak Jaurilaritzako Hezkuntza sailean egin zuen lanok egiteko eskaera; bada, Jaurilaritzak 27.625,05 eurotan esleitu du lana.

Udalak ere jarriko du dirua

Diru-laguntzari esker 16.575,03 euro jasoko dira obra egiteko eta gainontzeko 11.050,02 euroak Aramaioko Udalak jarriko ditu bere dirutik; hau da, zerga, tasa eta Foru Aldunditik jasotzen den dirutik.

"Hezkidetza plana jarraituz, denondako komun berdinak jarriko dituzte; eta, segurtasuna bermatzeko ere egingo dituzte lanak", azaldu du alkattea.

Gimnasioko lurra berritu

Aipatutako lanez gain, gimnasioko lurra eta hormak ere berrituko dituzte. Azken ikasturtean bi aldiz sartu da ura gimnasiora eta horrek kalteak eragin ditu bai zoruan eta baita hormetan ere. Horrelakorik berriro ere ez gertatzeko Basagoitiko urak bideratu egin dituzte eta inguruko hainbat hodi konpondu. Iraileko lehenengo astean aldatuko dute zorua eta hormak margotu.

ARAMAIO

Erabilitako 744 litro olio jaso dituzte aurten

A.E. | ARAMAIO

Badira urte batzuk Udalak Eko3R enpresarekin elkarlanean etxean erabilitako olio jasotzeko edukiontziak jarri zituela Ibarran. Bada, 2016ko lehenengo sei hilabetako datuak eman berri dituzte: 744 litro olio jaso dituzte, birziklatzeko. Datu horiekin batera, arazketan aurreztutako ur kopurua -744.000 litro- eta arazketan aurreztutako energiaren datuak -14.506 kW- ere eman dituzte. Gainera, 2015eko datuak ere eman dituzte: 1.423 litro batu ziren; 1.423.000 litro ur eta 27.744 Kw energia aurreztu zituzten.

NIRE USTEZ

RAFAEL BENGOA



'Euskadi marka'

Egun batzuetan zehar Euskal Herriak bere erakustoki handia izan du Capitoliotik hurbil, Estatu Batuetako erdiguneko bihotzean. Smithsonian Folklife Festivalak euskaldunei aukera eman digu ez bakarrik gure Herria eta Kultura aurkezteko, baizik eta, bereziki, gure egiteko erak, hau da gure *Euskadi marka* ezagutarazteko. Marka honek, Smithsonian Institutionen hitzetan, zera transmititzen du: berrikuntza, lankidetzatza, irekitasuna, lidergoa... eta hau dena Europako herrialde zaharrenetarikoa sortua. Testuinguru honetan, gure hizkuntzak errekonozimendu berezia izan du, euskaldunon identitatearen giltzarria delako eta bere berpizkuntzaren arrakasta nabarmena delako. Han, Capitoliotik gertu dagoen Mall-ean, beraien lanak eta sormenak aurkeztu dituzten batzuk: Blanca Gomez de Segura, Jose Mari Lazkano, Kepa Junkera, Jean Pierre Errecart... diasporako euskaldunen laguntzaz.

Niri, ospakizun honek, bi burutapen dakarzkiz: bata Euskal Herritik kanpo errekonozimendu handiagotz dugula gure inguruko lurraldetatik jasotzen duguna baino; bestea, *Euskadi marka* izan beharko litzatekeela aldarrikatu, bultzatu eta ordezkatu beharko gintuena. Marka hau da nazio bezala aurrera jotzera bultzatuko gaituena eta baita mundu mailan ezagutuak eta onartuak izatera. Eta ez, berriz, *España marka*-k transmititzen duen irudi zaharkitua, fidagabea, eta solidaritate gabeak sortzen duena.

Ondorioz, ez dut uste interesatzen zaigunik *España marka*-ren barruan egotea, ezta berak gure negozioak gestionatzea, gure erlazioak bideratzea edo beste edozein gaietan parte hartzea ere.

ARAMAIO

Astelehenean Santiago eguna ospatuko dute Gureia auzoan

A.E. | ARAMAIO

Santiago eguna izango da datorren astelehenean, uztailaren 25ean; hala, Gureian Santixa jaiak ospatuko dituzte.

Meza izango dute 12:00etan; ondoren, etxafuegoak, bertsolariak, bazkaria, umeendako jolasak eta karta txapelketa.

Uribarrin, San Estebanek

Uztailaren 29tik 31ra, berriz, San Esteban jaiak ospatuko dituzte Uribarri auzoan. Barikuan kantu afaria izango dute 21:00etan; zapatuan, 13:00etan bolo txapelketa eta 17:30ean briska eta musjokoak; domekan finalak izango dituzte.



Auzo bazkaria Gureia auzoan. | GOIENA

ARAMAIO

Ondasun higiezinengaineko zergak kobratuko dituzte

Abuztuaren 1etik irailaren 30era arte egongo da aukera hiri eta landa-lur ondasun higiezinengaineko zergaren ordainagiriak borondatezko aldi ordaintzeko. Helbideratuak ez dauden agiriak Kutxabank-en edo Laboral Kutxan Udalak dituen kontuetan diru-sarrerara eginez ordaindu daitezke, aipatutako borondatezko aldi. Bankuan helbideratutako agiriak, aldiz, irailaren 6an kobratuko dituzte. Borondatezko epea igaro ondoren, ordaindugabeko kuotak gainkarguaz kobratuko dituzte.

ARAMAIO



ARAMAIOKO UDALA

Ekuadorren alde, 650 euro

Apirilean Ekuadorren izandako lurrikarak eragindako kalteei aurre egiteko 650 euro batu dituzte. Diru hori Aretxabaletako Hiruatx elkarteari eman diote. Zozketa berezia ere egin zuten dirua ateratzeko: zenbaki saritua 393 da -saria Udaletxean jaso behar da-.

OHARRAK

PLAZARA SARTZEKO

Abuztuaren zehar, aste bukaeratan moduan, autoz plazara sartzeko bide nagusia itxita egongo da. Goitik sartu beharko da plazara, Ibargoitik.

BOLATOKI IBILTARIA

Bihar, zapatua, bolatoki ibiltaria jarriko dute Bizente Goikoe txea plazan. 11:00etatik 14:00etara egongo da erabilgarri. Herri-tarrak animatu nahi dituzte bolatokian jokatzera.

SASTRAKAK GARBITU

Uztailaren zehar Udalaren bideetako sastrakak garbitzen dabil Forestales Mugarri enpresa. 7.139 euroko gastua da Udalarrendako.

LEINTZ GATZAGA

Aretxabaletak Gurelen aldeko babesa erakutsi du

Uztaileko osoko bilkuran aho batez onartu dute gela desplazatuaren alde aurkeztutako mozioa

ENEKO AZURMENDI | LEINTZ GATZAGA

Gurelek, Koldotxok eta Gatzagako udal taldeak gela desplazatuaren alde aurkeztutako mozioa aho batez onartu zuten Aretxabaletako osoko bilkuran, aste-

lehenean, eta lau puntuz osatutako adierazpena egin zuen: Gatzagako herriari eta guraso elkarteari babesa eskaintzen diotela; Hezkuntza Sailari gela desplazatua irekita mantentzeko

eskaria egiten diotela; bat egiten dutela Gatzagako herriak sustatzen dituen auzolan eta balio kolektiboekin eta adierazpena Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza Sailera igorriko dutela, dagozkien agintariak jakinaren gainean egoteko.

Bestalde, Gurelek oraindik Jaurilaritzaren erantzunik jaso gabe segitzen du.

Udalekuak

Asteko lehen egunetan, bero handia zela eta, aldaketa batzuk egin

behar izan zituzten udalekuean, eta, herrian gelditu beharrean, Landako urtegira joan ziren.

Martitzenean, datorren astean Harora egingo duten bidaia -uztailaren 26tik 29ra bitartean- antolatze bilerak izan zuten, jatorduak, ekintzak eta beste hainbat gauza zehazteko asmotan. Honekin lotuta, esan behar da 14-16 urte bitarteko bost neska-mutilek bidaia honetan parte hartuko dutela. Izan ere, antolatzaileen esanetan, euren kabuz joatea zaila izango dute, eta, udalekue-

tako begiraleen ardurapean joanda, askoz erosoagoa izango da gurasoentzat. Azkenik, berrak Gaztainuzketan izan dira gaua pasatzen, udalekuek egitarauaren barruan.

Mendi martxa

ESAITEk antolatutako mendi martxaren barruan, abuztuaren 3an Oñati eta Leintz Gatzaga arteko bidea egingo dute parte-hartzaileek, eta, ondoren, herriko pilotalekuan gaua pasatzeko aukera izango dute.

FUTBOLA

Mondrate campuseko gaztetxoak, Eibarko azken fitxaketetako bat izan den Pedro Leonekin, joan den astean. | MONDRATE

Mendilibarren Eibar berritua ikusteko aukera izango da gaur Atxabalpen, 19:00etan

- Sanseren kontra jokatu dute lagunartekoa
- Abuztuaren 10ean Real eta Eibar, Agorrosinen

XABIER URZELAI | BERGARA

Futbol taldeak hasi dira denboraldia prestatzen, eta lagunartekoak jokatzeko. Hala, Mondrak eta Arrasateko Udalak antolatuta, gaur (19:00, Atxabalpe) Eibarrek eta Sansek denboraldiurreko partidua jokatu dute. Talde armagina ondo indartzen dabil datorren urtera begira; Yoel Rodriguez, Bebe, Pedro Leon, Florian Lejeune... Eibarko taldeak egin dituen fitxaketetako batzuk dira, eta zaleek Atxabalpen jokatzeko ikusi ahal izango dituzte.

Euren aurrean Realeko bigarren taldea izango dute, Sanse. Imanol Alguacilen taldea joan den astelehenen hasi zen lanean, eta egubakoitzekoa bigarren lagunartekoa izango dute, joan den zapatuan Berioaren kontra jokatu zuten-eta lehenengoa.

Ondo indartzen dabilen itxura
Eibarko taldea txaloak jasotzen dabil, 2016-2017 denboraldira begira Mendilibarren taldea ondo indartzen dabilelakoan eta prestatuta lanak egiteko inguruko taldeekin batera kanpora ere joango dira. Hala, Mirandes (uztailak 26), Besiktas (uztailak 30), Colonia (abuztuak 4), Leipzig (abuztuak 6), Real (abuztuak 10), osasuna (abuztuak 12) eta Zaragoza (abuztuak 13) dira udan aurrean izango dituzten taldeak.

Abuztuaren 10ean, Bergaran
Hurrengo futbol hitzordua, berriaz, abuztuaren 10ean izango da.

Orduan, kilometroak 2016ren barruan Realeko lehenengo taldeak eta Eibarrek jokatu dute, Agorrosinen [sarrerak dagoeneko salgai daude: Bergaran kilometroak dendan eta Depor eta Pol-Polen; Arrasaten Monte tabernan, eta Oñatin Aloña Mendi tabernan. 12 urtetik beherakoek 8 euro, eta nagusiek 15 euro].

Realak udan, guztira, hamar norgehiagoka jokatu ditu. Vila-realaren kontra jokatu dute zapatuan, hilak 23, eta ondoren etorriko dira Herbeheretan, eta Ingalaterran jokatu dituzten norgehiagokak: Konyaspor (uztailak 27), NEC Nimega (uztailak 29), Heerenveen (uztailak 30), Burnley (abuztuak 5) eta Middlesbrough (abuztuak 6) izango dira kanpoan egingo duten egonaldian jokatu dituzten partiduetan. Ondoren -abuztuak 10- etorriko da Bergarako partidua, Real eta Eibar zein baino zein gehiago, eta abuztuaren 13an Alemanian izango dira txuri-urdinak, Bayern Leverkusenen taldearen kontra jokatu dute-eta.

Hasteko, Depor eta R. Madril
Abuztuaren 19an, egubakoitza, hasiko dute Lehenengo Mailako taldeek 2016-2017 futbol denboraldia. Eibarrek Galizian jokatu du lehenengo partidua -egubakoitza, 22:00- Deporren kontra, eta Realak kontrario gogorra izango du lehenengo partiduan, Zinedin Zidaneren Real Madrilaren bisita izango dute-eta domekan Anoetan (20:15).

Urteak dira Atxabalpen partidurik jokatu ez dutena

Armaginek egindako fitxaketak berdegunean izango dira gaur

Abuztuaren 10ean, Bergaran, Real eta Eibar lehiatuko dira

Abuztuko partidurako dagoeneko salgai daude sarrerak

AUTOMOBILISMOA

Nobedadeak ditu bihar egingo duten Gatzagako 19. Auto Igoerak

Arlabango mendatea baztertu eta jatorrizko bertsiora itzuliko dira, ibilbide luzeagoarekin

X.U. | LEINTZ GATZAGA

Eskomotor eta A+Gas eskuderiak antolatuta egingo dute bihar, zapatua, Gatzagako 19. Auto Igoera (16:00etan hasita). Eta, azken urteekin alderatuta aurtengoa nobedadekin dator, osterara ere jatorrizko bertsiora bueltatuko delako lasterketa, mendate zaharreko kurbetara -Arlabango asfaltoa oso egoera txarrean dago-.



Zabaleta Gatzagan 2011n. | GOIENA

Igoera luzeagoa, chicaneekin

Joan den asteko 'Puntua' aste-karian azaldu moduan, nobedadeetako bat da igoera luzeagoa izango dela (4,8km). Lasterketa Marulandan hasi beharrean Kuartuenako etxeen parean hasiko dute, Eskoriatzatik gertuago. Baina, hasie-

rako tramu hori oso azkarra da, eta antolatzaileek hiru chicane jarriko dituzte gehiegizko abiadura sahisteko. Lasterketa Mendiko Sariko egutegiko bosgarren lasterketa izango da.

TXIRRINDULARITZA

Garazi Erostarbe Gipuzkoako txapeldun, Villabona-Zizurkil sarian

X.U. | OÑATI

Joan den egubakoitzean Bergaran egindako Demasa kriteriuma bertan behera utzi behar izan zuen ziklista oñatiarrak, bizikletan arazo mekanikoak izan zituelako. Eta, arantza hori asteburuan atera ahal izan du, Villabona-Zizurkil XII. Sari Nagusian Gipuzkoako txapela irabazita.

Bero handia lasterketan

Zizurkilgo lasterketa Espainiako Koparako puntuagarria zen, eta ziklistek errepideko kilometroei eta lasterketan zehar egin zuen bero galantari egin

behar izan zioten aurre. Hala, sailkapen orokorrean Erostarbe bederatzigarren helmugartu zen, proba irabazi zuen Ariadna Nevadoren gandik 27 segundora (35 kilometro orduko batz bestekoa egin zuten).



Garazi Erostarbe. | GOIENA

IGERIKETA

Nerea Diaz eta Eric Ugarte pozik Kanarietan egindako lanarekin

X.U. | OÑATI

Kanarietan, Las Palmasen jokatu zituzten joan den asteburuan Espainiako Igeriketa Txapelketak, eta bertan lehiatzeko txartela zeukaten Aloña Mendiko igeriketa saileko Nerea Diazek eta Eric Ugartek.

Oñatikoa moduko klub txiki batendako ez da nolanahiko meritua, beste urte batez, Espainiako Txapelketan ordezkartza izatea, eta oraingoan Diazek eta Ugartek igerilari handien ondoan egin ahal izan dute igeri; esaterako, Olinpiar Jokoetan egongo diren Mireia Belmonterekin eta Markel Alberdirekin, hain zuzen ere.

Lan ona eginda

Txapelketan parte hartzearekin konformatu barik, Aloña Mendiko ordezkariak lan ona egin zuten, eta gustura bueltatu ziren han egindako lanarekin; besteak beste, aurretik marka hobeak zituzten igerilari asko atzean utzi ahal izan zituzten.

50 metroko seriean txukun jardun zuten biek -junior mailan lehiatu ziren biak-. Diaz dagokionez, 200 metroko bizkar lasterketako azken metroetan behera egin bazuen ere, 100 metroko bizkar estiloan Diaz finaletatik oso gertu egon zen -bi postu falta izan zitzaizkion-.

FUTBOLA



Gotzon Urzelaik 26 jokalarirekin hasiko du denboraldi-aurrea; erretratua martitzenekoa, lehen lan-saiokoa. | X. URZELAI

Gotzon Urzelai: "Urte eta erdi zelaietatik kanpo egonda, hasteko gogoz nengoen"

Aloña Mendi da uztailean lan-saioak aurreikusi dituen talde bakarra

X. URZELAI | ARRASATE
Debagoieneko futbol talde gehienak abuztu erdian hasiko dira denboraldia prestatzen. Aloña Mendik, baina, uztailean hainbat lan-saio egingo ditu, eta martitzenean egin zuten estreinua. Helburua, entrenatzaile berriarekin, Gotzon Urzelairekin, lehenengo hartu-emana izatea: "Urte eta erdi zelaietatik kanpo egon ostean hasteko gogoz nengoen. Akaso, halako giroarekin jokariendako ez da erakargarriena uztailean entrenatzera etortzea, baina eurek ere bazuten interesa, taldean aldaketak daudelako, batzuk

berriak dira, eta entrenatzailea ere berria da".

Helburua, egunekoa egitea
Helburuen gainean galdetzerakoan, Urzelaik garbi du erantzuna: "Ez dut atsegin luzerako helburuak zehaztea. Gaurko helburua entrenamendu saio hau ondo egitea da, lehenengoa da, baina niretako oso garrantzitsua".

Gainontzeko taldeei dagokionez, Mondrak joan den astean lan-saio bakarra egin zuen, taldekideak osterara ere elkartzeko; abuztuaren 15ean hasiko dute

zuri-moreek denboraldi-aurrea. UDAko jokalariek hiru egun gehiago izango dituzte atsedenerako, abuztuaren 18an hasiko dira-eta. Erregional preferentean izango diren Bergarakoak ere elkartu dira uztailean, Gorrara bizikletan igotzeko; horiek abuztuaren 16ean bueltatuko dira lanera. Eta, maila bat beherago jokatu duen Antzuolak ere entrenamendu saio bat egin du uztailean, aldaketa handiak izango diren taldean jokariak elkar ezagutzeko; abuztuaren 25ean hasiko dira antzuolarrak.

TXIRRINDULARITZA

Julen Irizar bergararra Murias taldea indartzera

Hilabeteko egonaldia egingo du Odriozolarekin

X.U. | ARRASATE

Julen Irizar ziklista bergararrak beste aurrerapauso bat eman, eta hilabeteko egonaldia egingo du Euskadi Basque Country Murias taldean. Ez da ziklista bakarra izango, Ampoko ziklistarekin batera Jon Odriozola zuzendariak Lizarte taldeko Oscar Rodriguez ere ondoan gura duelako, 16 lagunekoa taldea osatzeko. Hala, bi txirrindulari horiek indartuko dute elitean dagoen euskal talde bakarra.

"Lehen pausoa da"

Irizarrek egindako adierazpenen arabera, amets bat betetzeko lehenengo pausoa da. "Ilusio handia egiten dit profesional



Julen Irizar. | MURIAS-TALDEA.COM

mailan parte-hartzeak eta etxeko taldean lekutxo bat edukitzeak". Irizarrek profesional mailan egingo du debuta, eta, taldearen asmoa da Bergarako Getxoko klasikora eta Burgosko Itzulira eramatea.

ARETO FUTBOLA

Asteburuan egingo dute Bergaran Semicup torneo: "Giro polita egoten da Bergarako koadrilen artean"

Semicup torneo hasiko dute bihar, zapatua, goizean goiz. Eta, egun osoan zehar Seminarioko kantxan Bergarako koadrilek areto futboleko jokatu dute: "Urtean zehar Labegarietan antolatzen dugun txapelketara jendea animatzeko egin genuen Semicup, eta egia esan, oso giro polita egoten da koadrilen artean", adierazi du Josu Badiolak. Aurten zailtasunak izan dituzte datekin, eta asteburuan zubia izanda uste baino talde gutxiago animatu dira: "15 taldek eman dute izena; torneo polit bat antolatzeko nahikoa dira".

UDAKO ARGAZKIEN XII. GOIENA LEHIAKETA

Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak eta irabazi sari bikainak!

Argazki guztiak fotoblog honetan: blogak.goiena.eus/argazkiak



Har ezazu parte!

Oinarriak*

- Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake. Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:
 - Egilearen izen-abizenak eta herria.
 - Harremanetarako telefonoa.
 - Argazkia noiz eta non ateratakoa den.
 - Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.
- Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 8tik irailaren 18ra arte (biak barne).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean, ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.
- Irakurle/ikusleei aukera emango diegu argazki onenari botoa emateko blogean.

• Bidali argazkiak eta datu GUZTIAK e-postaz: argazkiak@goiena.eus helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otarora Lizentziaduna 31, Arrasate

- Egoitzara ekartzekotan, gutun-azal batean sartuta, CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPG formatuan.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Debagoienean jaio edo bizi den edonork parte hartu ahal izango du.
- 16 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiak.
- Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri-beltzean.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 14an jakingo dugu, Goiena paperean.
- Argazkiek, gehienez, 5 MB izan beharko dute.
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero uztailaren erdialdetik aurrera *Puntua* aldizkarian eta blogak.goiena.eus/argazkiak foto-blogean. Epaimahaia Goiena Komunikazio Taldeko kideek osatuko dute eta argazkiaren kalitatea, originaltasuna eta balio historikoa hartuko dituzte kontuan.
- Jasotako argazki guztiak argitarazkerik ez bada, Goienak aukeraketa egingo du egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak Goienako artxiboan gordeko dira, eta, aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adierazi egingo da.

Sariak

Epaimahaia aukeratzetik dituen 3 argazki onenen artean, 3 sari hauek zozketatuko dira.



- Bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.
- Orioko Aisia hotelean, zirkuitu termala eta bazkaria edo afaria, Arrasate Bidaiek-en eskutik.
- Kindle liburu irakurgailua Arrasateko Eroski hipermerkatuaren eskutik.

Herritarren saria



Herritarrek aurreratutako argazki onena munduko kafe ezberdinen otarra, Arrasateko Karibu dendaren eskutik.

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

GURE AMETSA
JATETXEA

ARRASATE BIDAIAK

EROSKI
ARRASATE

karibu
munduko zapoak
karibumundukosaporeak.com



Mateu Matasen eta Ane Labakaren saioa; Maddalen Arzallus, itzultzen. | I.S.



Mexikarra. | IMANOL SORIANO.

Munduko inprobisatzaileen erakustaldi ederra Oñatin

- Bertsolaritzaren pareko adierazpideak ekarri dituzte
- Jendeak gozatu egin zuen egindako saio ibiltarian

JULEN IRIONDO | OÑATI

Ane Labaka lasartearra euskaraz bertsotan eta Mateu Matas glosadorea katalanez inprobisatzen; gai-jartzaileak gaia eman eta txandaka, elkarrizketan, bakoitza bere doinu eta neurrian, baina bertsolaritzan ezagun dugun erritmoan eta moduan, batek amaitu eta bestea hasi, segundo gutxian elkarri jarraipena emanaz, bat batean. Julio Soto nafarra Las Alondras taldeko trobadore mexikarrekin, saio umoretsuan, kopla modukoetan, taldeko neskek hitzei

laguntzeko soka instrumentuak eskuan, Soto ere euren doinuan. Hitz bat gai bezala eman eta Yoslai Garcia repentista kubatarra jardunean, gitarra akordeak lagun. Eta Austriakoak, Ziprekoak eta Galesekoak ere bai; ahots soilez edo musikaz lagunduta, kantuan edo erreztatzen; bat-batean; Atzeko kalean, Portu kaleko plaza-txoan, San Anton plazan eta Foruen plaza ondoan, toki bakoitzean zeuden herritarren eta batetik bestera jarraitu zituztenen gozagarri.

Mintzolak –Donostia 2016rekin batera– antolatutako *Europa bat-batean* egitasmoa saioa izan zen aurreko egubakoitzeko Oñatikoa. "Hizkuntza aniztasun horretan, bertsoaren bidez edo inprobisazioaren bidez elkar ulertzen dugu, itzultzaileen laguntzarekin", zioen Aritz Zerain koordinatzaileak; are gehiago, itzulpenaren aurretik ere gertatzen dela transmisio hori: "Itzulpena gero egiten da; hori ere bilatu dugu, ikus dadila beraiek zer egiten duten, eta hizkuntza jakin gabe ere iritsi egiten da, ahozko inprobisazioak indar hori badu".

Ekimeneko azkenekoetako saioa izan zen Oñatikoa; *Europa bat-batean* oso ondo joan dela zioen Andoni Egaña: "Aste osoa pasa dugu elkarrekin 60-80 laguneko talde batek, eta emozionalki ere loturak sortzen dira. Eta Bertsozale Elkartearentzat eta Mintzolarentzat garrantzitsua da hemen zenbat jende gazte aritu den borondatez lanean, esperientzia hartuz, eta hurrengo urteetan lankide izateko suertea izango dugun segurantzia ematen digu horrek".

ESANAK

"Itzulpena gero egiten da. Hori ere bilatu dugu, ikus dadila zer egiten duten; hizkuntza jakin gabe ere iritsi egiten da"

ARITZ ZERAIN | MINTZOLA

"Aste osoa pasa dugu elkarrekin 60-80 laguneko talde batek, eta emozionalki ere loturak sortzen dira"

ANDONI EGAÑA | BERTSOLARIA

Galeskoak, bat-batean jarduten ez duten bakarrak

Bat-batekotasunari dagokionez, Galeskoen diziplina da salbuespena Oñatin ezagutzeko aukera izan ziren guztien artean. Izan ere, haiei gaia eman eta ordu erdi inguru izaten dute gero erreztatuko duten hori pentsatu eta idazteko. Karen Owen eta Eurig Salisbury izan ziren Galesko ordezkariak Oñatin; eurek azaldutakoaren arabera, dena den, adibidez, bertsolaritzarekin bestelako antzekotasunak baditu eurenak: "Leku inportantea" galesera hiztunen artean, elkarte bat badute, aldizkari bat argitaratzen dute eta txapelketa ere bada.



Eurig Salisbury galestarra. | I.S.

'Garden' punta-puntako musika eta dantza ikuskizunerako sarrerak salgai jarri dituzte

ENEKO AZKARATE | BERGARA

Salgai daude *Garden* ikuskizunerako sarrerak. Kilometroak 2016k irailerako antolatu duen Kultura Hamabostaldiko ekitaldirik nabarmenena da.

Alos Quartet hari-laukote tolosarraren azken diskoaren izenburua da *Garden*, baina hori baino askoz ere gehiago da irailaren 24an Bergarara helduko den ikuskizuna. Puntako talde eta bakarlariak batu-

ko ditu agertokian: Eñaut Eloorrieta, Ken Zazpi taldeko konpositore eta abeslaria; Oreaka TX txalaparta taldea; eta Auke-ran dantza konpainia.

15 euroren truke

Luxuzko kartela, 15 euroren truke, Udal Pilotalekuan, irailaren 24an, zapatua, 22:30etan. Sarrerak eros daitezke www.pikupe.com webgunean edo Pikupe Produksioak-en egoitzan.

Josu Billelabeitia | Belako musika taldea

"Hastapenetako garaiak gogoratu ditugu atzerrian jotzen hasi garenean"

Bihar, zapatua, Huheziko klaustroan, 22:30ean kontzertua egingo du Belako musika taldeak

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Mungiaiko talde ezagunak itxi-ko du aurtengo Errekan Gora jaialdia. Lore eta Josu Billelabeitia neba-arrebak, Cris Lizarraga eta Lander Zalakain dira, gaur egun, Belako.

Alemaniatik heldu berri zarete. Zer moduz hartu zaituztete?

Oso ondo, han geratzeko moduan. Bremenen, Berlinen eta Hanburgon kontzertu bana egin dugu: jaialdi baten, etxe okupatu baten eta etxe bateko sotoan hirugarrena. Kontzertu arraroak eta bereziak izan dira, zentzu onean esanda.

Euskal Herrikoeta Estatuko mugak gaingitu dituzue, beraz.

Poliki-poliki ari gara, bai. Apirilean Portugalen izan ginen, Ingalaterran eta Eskozian maiz-tzean, eta irailean berriz goaz Hanburgora. Hastapenetako kontzertuak etortzen zaizkigu gogora atzerria joaten garenean. Jende gutxi ezagutzen gintuen garaiak, alegia. Politika da berriz ere esperientzia hori bizitzea.

Hamen bigarren lan luzea kaleratu zenuten urtarrean. Zer moduz?

Nik uste dut jendeak ondo hartu duela. Guretzat, oso borobila izan da emaitza. Aurreko diskotik hona pauso bat aurrera egin dugu; hori bai, gure hastapenetako esentzia mantenduta. Kantak askoz landuagoak dira oraingoan. Lehen ez genuen horrenbeste pentsatzen; gaur egun, ez gara horren konforma errazak.

Post punketik asko duzue, baina iturri askotatik edaten duzue.

Azkeneko lanean ere nabaritzen da estilo nahasketa hori?

Bai, naturalki ateratzen zaigu eklektikotasun hori mantentzea. Kanta bakoitzak izaera ezberdina du. Gu oso pozik gaude entsalada horrekin; izan ere, uste dugu diskoak, bere osotasunean, koherentzia bat duela.



Josu Billelabeitia. | BELAKO

Kantu ezberdinak izan arren, guztiek dute gordintasun puntua, distorsionatutako baxuak... baina, aldi berean, sinpletasun eta atmosfera koltxoi bera.

Belako Records zuen zigilua sortuta argitaratu duzue.

Gure erabakien jabe gu izatea ezinbestekoa ikusten genuelako sortu genuen diskoe-txea. Lan handiagoa da, baina artistikoki, guk nahi genuen lana atera dugu. Banaketa eta bestelako promozio lanak Mushroom Pillow zigiluak egin ditu. **Biharko kontzertura begira, ze asmorekin zatozte?**

Denetarikoa kantauk joko ditugu. Ilusio handiarekin goaz. Askok gustatzen zaigu herri txikietan jotzea. Aberasgarria da. **Zerekin egiten du Belakok amets?** Bizioa hartu diogu atzerrian jotzeari eta ahal den neurrian kontzertu gehiago lotu gura ditugu. Disko berri baterako abestiak ere eginak ditugu... Pribilegiatu hutsak gara!

"Borobila atera da Hamen; landuagoa eta gure betiko esentziarekin"

New Orleansko doinuak Berumuga zikloa ixteko

Iruñetik datorren Broken Brothers Brass Band taldearen zuzenekoa izango da gaur Bergaran

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Gaur, egubakoitza, uztailak 22, bukatuko da aurtengo Berumuga musika zikloa. Uztaileko egubakoitzak musika beltzaren doinuekin girotu ditu jaialdi honek beste urte batez. Uda gauetako epeltasunak lagunduta, zutik zein terrazan jarrita, giro lasaian gozatu dituzte bergararrek Espoloiko kontzertuak. New Orleansko doinuak izango dira protagonista nagusi gaurkoan.

Broken Brothers Brass Band

Iruñetik datorren Broken Brothers Brass Band arduratuko da aurtengo edizio hau ixteaz. Azkenaldian Fermin Muguruzarekin batera ibili da hara eta hona taldea, Fermin Muguruza and New Orleans Basque Orkestra izenarekin.

Izan ere, beraien musika AEBetako New Orleans hiriko Brass estilokoa da. Inprobisazio kolektiboak aparteko garrantzia dauka eurengan, eta funka, gopela edota jazz modernoa fusionatzen dituzte. Duela hamar urte hasi ziren lehen pausoak ematen, eta Muguruzarekin eginiko birarekin sona handia lortu dute.

Iruñeko talde hau zuzenean eta doan ikusteko hitzordua gaur gaueko hamarretan izango da, Espoioaren behealdean kokatuta dagoen agertokian.



Broken Brothers Brass Band taldeak itxiko du Berumuga zikloa. | GAZTELUPEKO H.

Udalaren balorazioa

Uztaileko musika zikloa bukatzeko kontzertu baten faltan, Bergarako Udaleko kultura zinegotzi Maite Agirrek adierazi du ekimenaren balorazio "oso positiboa" egiten duela berak: "Orain arteko kontzertu guztietan jende asko egon da, eta musikalki ere maila oso altua erakutsi dute artistek".

Hain zuzen, sona handiko musikariak ekartzeko apustu berezia egin dute aurtun, jaialdia indartze aldera. El Twanguero,

NES eta Julian Maeso Organ Trio izan dira Espoioan. Alde horretatik, jendeak "erantzun ona" eman duela nabarmendu du Maite Agirrek.

Bestalde, nobedade moduan, aurtun izan da Berumuga zikloko kontzertuak Espoioiko kiosko zaharrean egin ez diren lehenengo urtea, maiatzean eraitsi baitzuten. Hala, pasealekuaren beheko aldean kokatu dute eszenatokia, eta Agirrek dio akustika aldetik "kokapen hobea" dela igarri ahal izan dutela.



Letter ikuskizuneko aktore protagonistak. | MALAS COMPAÑÍAS

Eskutitz baten nondik norakoak mintzagai dituen kale antzezlanak

M.T. | OÑATI

Kalean izeneko udako kultura egitarauak aurrera jarraitzen du Oñatin, eta honen baitan, abuztu bukaeran hitzordu potolo bat izango da Malas Compañías zirkutaldearen eskutik. *Letter* izeneko kale antzezlanak eskai-

niko dute, publiko guztientzat eta bereziki familientzat zuzenduta dagoena. Hain zuzen ere, udako kultura zikloa itxiko du ikuskizun horrek.

Hitzordu hori abuztuaren 28an izango da, domeka, arratsaldeko zazpitan hasita Foruen

plazan. 50 minutu inguruko iraupena izango du antzezlanak.

Zirkutaldea eta antzerkia

"Gutunek gure ahotik irteten ez diren hitzak esateko balio dute; gutunek zain gauden hitzen oihartzuna dakartzigute. Baina bide horretan gauza asko gerta daitezke, eta sarritan bide hori, bidaia hori, bihurtzen da benetan axola duena, benetazko protagonista". Hitz horiekin aurkeztu dute Malas Compañías-koek *Letter* ikuskizuna.

Fusioa eta berrikuntza dira *Letter* ikuskizunaren ezaugarri bereizgarriak. Hala, zirkuan ikusi ohi diren malabarista edota funambulista jardunean arituko dira aktoreak, eta uneoro euren papera interpretatu eta eskutitzaren istorioa kontatzen dute.

Gainera, testurik gabeko ikuskizuna izango da; beraz, hasi eta bukatu, keinu eta ekintzen bidez plazaratuko dute istorioa.

Agurtzane Intxaurraga da *Letter* ikuskizunaren zuzendaria, eta aktore lanetan Diego Aimar, Mikel Pikaza eta Aritz Rodríguez arituko dira.



Mago mentalista da Jon Zabal portugaletarra. | GOSUA MANAGEMENT

Jon Zabal, adimenaren boterearen erakusle

M.T. | BERGARA

Mentalismoa gogoko dutenek Bergaran Jon Zabalen ikuskizunaz gozatzeko aukera izango dute datorren egunean, uztailak 28. Munibe plazan doaneko espektakulua eskainiko du 19:00etan hasita.

Medium mentalista da Jon Zabal portugaletarra, eta bere trikimailuekin ikuslegoa ahozabalik lagatzeko ahalmena du. Hala, ikuslegoaren pentsamendua irakurriko du zuzenean.

Gainera, Jon Zabalek berak azaldu du Bergaran eskainiko duen ikuskizun hau kalean egiteko prestatuta dagoela bereziki, nahiz eta bera ohituago dagoen areto itxietan lan egitera. Alde horretatik ere, beraz, berezia izango da emanaldia.

Publikoa protagonista

Magoak azaldu du bere ikuskizunean "zailtasuna gehitzen" joango dela. Hala, trikimailu

batekin hasi eta ondorengoetan gero eta gauza ikusgarriagoak egingo ditu, ikusleengan ezustekoak sortu nahian. Eta emanaldiaren bukaeran iritsiko da goreneko momentua, telepatia truku handi batekin.

Adimenarekin magia

Jon Zabal ez da ohiko magoa; berak dioen moduan, "adimenarekin magia" egiten du, objektuak erabili barik.

Nabarmendu du bere emanaldia orotariko publikoari zuzenduta dagoela, eta eszeptikoenak ere deitu ditu gerturatu daitezen.

Hain zuzen, Zabalek dio berak ikuskizunaren hasiera-hasieratik argi uzten duela berak egiten duena ez dela benetako zerbait, "ilusio" bat baizik. "Ni ez naiz inor konbentzitzen aha-legenden, lehenengo eszeptikoa ni neu naiz eta", azaldu du mentalista bizkaitarrak.

Laguntasunaren garrantzia txotxongiloek erakutsita

M.T. | ARETXABALETA

Beti lagun izeneko txotxongilo ikuskizuna izango da eguaztenean, uztailak 27, 19:00etan Aretxabaletako komentuko lorategian. Bi urtetik gorako umeei dago zuzendua, eta euskaraz eta gazteleraz izango da.

Rosa Maria Martinezek animalia itxurako txotxongilo edo *muppetak* maneiatzen ditu, eta horien bitartez kontatuko ditu istorioak.

Laguntasuna

Lagunen arteko harremanak izango dituzte hizpide Martinezek eta bere txotxongiloek. Internetek munduko txoko guztietako pertsonak kontaktuan jartzeko daukan ahalmena izango du presente artistak ikuskizunean zehar.

Protagonistak animaliak dira ikuskizun honetan. Era berean, animalia horien eskutik naturan zehar, mendian

zein itsasoan bidaiatuko dute neska-mutikoei.

Hala, galduta dabilen olagarro txiki bati lagunduko diote umeei ikuskizuna ahazteko, eta hartzairen edota azeriaren eskutik mendi aldeko txoko ederrak ezagutuko dituzte.



Martinez txotxongiloekin. | R.M. MARTINEZ

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Bergara. Etxebizitza berria salgai Lizaria-San Lorentzon. Sukalde-jangela, bi logela eta komuna. Garajea eta igogailua. Dena kanpora begira. Laugarren solairua. Uso eguzkitsua. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 695 78 70 26

102. EROSI

Oñati. Etxebizitza erosi nahiko nuke Oñatiko herrigunean. Aukeran, garajearekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 670 02 32 67

103. ERRENTAN EMAN

Donostia. Ondarretatik 5 minutura. 4 pertsonarendako gertatuta. Hiru logela eta komun bat. Balkoiarekin. Igogailua du. 18 autobus linea 15-20 minuturo. Gutxieneko egonaldia astebetekoa. Abuztuko erdiko bi asteetan, 500 euro astean. Gainontzeko asteetan eta irailean, 400 euro asteko. Argazkiak ikusteko sartu helbide honetan: www.gruponortesur.com. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 687 78 50 45

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Bi ume dituen bikote batek bi edo hiru logelako etxebizitza behar du errentan. Presazkoa da. 500 euro baino gutxiago ordain dezakegu hilean. 603 29 94 29 edo 634 07 99 70

Arrasate. Bi ume dituen neska batek etxebizitza behar du errentan. Presazkoa da. Hilean 500 euro baino gutxiago ordain ditzaket. 685 57 54 33

Bergara. Etxebizitza behar dut errentan. Presazkoa da. 500 eurotik behera ordain dezaket hilean. 696 84 19 51

Etxebizitza bila. Aretxabaletako bikotea logela bateko, biko edo hiruko etxebizitza bila, bizitzen hasteko prest. 688 82 68 37

Oñati. Bi gazte oñatiar gara eta etxebizitza hartu nahiko genuke errentan. 647 24 40 54

105. ETXEA OSATU

Aretxabaleta. Logela ematen da errentan erdigunean, sukalde, egongela eta komuna erabiltzeko aukerarekin. Logelak sarraila dauka eta wifia ere badago. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 603 14 28 89

Arrasate. Etxebizitza edo logela hartuko nuke errentan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 634 14 36 65

Arrasate. Gela bat ematen da errentan Arrasaten, unibertsitateetik gertu. Komunarekin eta wi-fia doan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 602 12 95 20

Arrasate. Hiru langile euskaldun gara eta gela bat daukagu errentan emateko Uribe auzoko duplex batean. Prezioa, 200 euro hilabetean, ura, berogailua, internet, telefona, garbiketa eta abarrak barne. Interesa izanez gero, deitu: 679 84 49 20 edo 677 44 82 85

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Abuztuan baserri baten aiton-amonak zaintzeko emakume euskalduna behar da. Ezinbestekoa da autoa izatea. 650 48 40 11

Arrasate. Pertsona nagusi bat zaintzeko bi gizonen bila gabiltza. Batek 14:00etatik 22:00ak arte egingo luke lan. Besteak 22:00etatik goizeko 9:00etara. Dena jarraian pertsona batek egiteko aukera ere egongo litzateke. Ez lukete etxeko lanik egin beharko. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 676 64 10 22 edo 629 42 19 79

Bergara. Emakume bat behar dugu etxeko lanak egiteko eta 8 eta 11 urteko bi ume zaintzeko, astelehenetik ostiralera, 12:30etik 14:30era. Irailetik aurrera. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 678 00 08 43

Bergara. Emakume euskalduna behar dugu 3 eta 7 urteko bi ume zaintzeko astelehenetik ostiralera 8:00etatik 9:00etara. Irailetik aurrera. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 652 77 75 23

Bergara. Pertsona euskalduna behar dugu irailetik aurrera haur bat zaintzeko. Interesatuok deitu telefono honetara: 687 06 80 01

402. ESKAERAK

Arrasate, Bergara eta Oñati. Gizonezko erizain laguntzailea gertu nagusiak zaintzeko. San Juan de Diosen eta Aita Mennin lan egindakoa. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 639 66 57 88 edo 943 78 62 19

Arrasate. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Asteazken zehar arratsaldetan orduka eta asteburuetan etxean bertan bizi izanda ere izan daiteke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 622 24 86 64

Debagoiena. Arrasate, Eibar, Eskoriatza eta Aretxabaletatik lana bilatzen ari naiz. Umeak zaintzen, gozoki dendetan, zerbitzari moduan, gurgildun aukian dauden adinduek zaintzen edota tabernetako sukaldeak garbitzen. Ahalik eta lasterren behar dut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 676 44 85 58

Debagoiena. Baserri, atari, etxe eta abarrak garbitzen eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 608 49 89 95

Debagoiena. Baserri, atari, etxe eta abarrak garbitzen eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 86 22 08

Debagoiena. Emakumea zaintza lanetarako gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 634 04 17 30

Debagoiena. Etxeko lanak egiten edo ume, aiton-amonak, gaixo eta abarren zainketarako gertu nago. Erreferentziak behar izan ezkerre Elgetan ezaguna naiz. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 640 66 96 08 (Nubia)

Debagoiena. Garbiketarako egiten, zerbitzari moduan eta abarrean lan egingo nuke. Baita ordezkapenak egiteko ere. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 629 29 11 23 edo 632 70 52 82

Debagoiena. Gizona gertu nagusiak zaintzeko. Hamar urte-

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.eus | www.goiena.eus/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Astebeteko prezioa: 17 euro / 15 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).

Astebete baino gehiagor argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulo bakarra: 22 euro (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

2. GARAJEAK

201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

3. LOKALAK

301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

4. LANA

401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA

601. Saldu
602. Erosi
603. Errentan eman
604. Bestelakoak

7. ANIMALIAK

701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK

801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805. Trukatu
806. Galdu
807. Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK

901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

tan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 678 21 84 98

Debagoiena. Nagusiak zaintzen eta garbiketan lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten, orduka, gauetan zein asteburuetan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 695 40 56 65

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, garbiketarako egiten eta abarrean lan egingo nuke. 616 35 54 96 (Carmen)

Debagoiena. Neska espainiarra gertu nagusiak zaintzeko, egunez edo gauzez. Etxeak eta tabernak garbitzen ere arituko nintzateke. Esperientzia dut. 24 orduko prestasuna. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 603 45 83 80

Debagoiena. Neska esperientziaduna gertu zaintza lanetan aritzeko. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz zein orduka. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 662 72 30 57

Debagoiena. Neska esperientziaduna gertu zaintza lanetan aritzeko. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz zein orduka. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631 72 30 57

Debagoiena. Neska eta mutil arduratsuak lanerako gertu. Denetarik garbiketarako, nagusiak eta umeak zaintzen, zerbitzari edo sukalde laguntzaile eta abar. Autoarekin. Orduetgi arazo barik. 602 12 18 27 edo 631 05 97 32

Debagoiena. Orduka nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan arituko nintzateke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 603 29 94 29

Oñati. Etxeko lanak egiteko eta haurrak zaintzeko neska gaztea prest. Irailetik aurrera goiz guztiak libre. Huheziko lehen hezikuntzako laugarren mailako ikaslea naiz. Hori dela-eta, haurrekin esperientzia dut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 600 34 87 13

Oñati. Neska euskalduna eta arduratsua behar da ume bat zaintzeko goizez, irailetik aurrera. Interesatuok deitu mugikorrarekin honetara: 679 45 36 42

Debagoiena. Nagusiak zaintzen eta garbiketan lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten, orduka, gauetan zein asteburuetan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 603 64 98 53

Debagoiena. Nagusiak zaintzen eta garbiketan lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten, orduka, gauetan zein asteburuetan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 649 38 14 00 (Aitziber)

Debagoiena. Nagusiak zaintzen eta garbiketan lan egingo nuke, etxean bertan bizi izaten edo orduka. Esperientzia dut. 602 10 25 04

Debagoiena. Nagusiak zaintzen eta garbiketan lan egingo nuke, etxean bertan bizi izaten edo orduka. Esperientzia dut. 632 60 43 12

Debagoiena. Nagusiak zaintzen eta garbiketan lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631 59 67 91

Debagoiena. Nagusiak zaintzen eta garbiketan lan egingo nuke. Esperientzia daukat eta gauzez lan egiteko arazorik ez. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 679 60 08 48

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzen lan egiteko. Esperientzia daukat. Sukaldean ondo moldatzen naiz. Autoa daukat. Gidari edo banatzaile moduan ere lan egin dezaket. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 647 01 74 66 (Cristino)

Debagoiena. Mutila nagusiak zaintzeko gertu. Esperientzia daukat eta sukaldean ere ondo moldatzen naiz. Autoa daukat. Gidari edo banatzaile moduan ere lan egin dezaket. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 647 01 74 66 (Cristino)

Debagoiena. Nagusiak zaintzen eta garbiketarako egiteko gertu nago. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 679 30 12 37 (Arelis)

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko gertu nago, etxean bertan bizi izaten edo bestela. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 602 32 76 80

8. DENETARIK

801. SALDU

Aretxabaleta. Lursailak salgai herriitik gertu. Bat 13.000 metro koadrokoa. 40.000 euro. Bestea, 2.800 metro koadro ingurukoa. 120.000 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 629 10 41 31

802. EROSI

Esloveniako dokumentazioa. Esloveniako mapak eta gida liburua erosiko nituzke. Baita eslovenierari buruzkoa ere. 652 76 33 46

Lursaila errentan hartu edo erosi. Debagoienean lursail bat errentan hartu edo erosi nahiko nuke. Txikia izanda ere nahiko litzateke. Autoz eskuragarri. Erlauntz batzuk ipintzeko izango litzateke. Zure ortua polenizatu eta uztaz hobeaz izateko onuragarria izan daiteke. 629 58 37 63

Saxofoi tenorra. Bigarren eskuko saxofoi tenorra erosiko nuke. Zurea saltzeko baduzu deitu zenbaki honetara: 619 45 42 77

Txakurrarendako osagarriak. Txakurrarendako oihalezko muturrekoa eta XL neurriko oihalezko transportin tolesgarria erosiko nituzke. 652 76 33 46

803. EMAN

Sukaldeko labea. Sukaldeko labe enkastrablea oparitzen da. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 600 03 65 83

806. GALDU

Giltzak Bergaran. Ekainaren 22an giltzak galdu nituen Zubiaurre eta San Antonio kaleen arteko bidean. Aurkitu badituzu, eskertuko genuke zenbaki honetara deitzea: 635 25 54 44

Ipoda Arrasaten. Uztailaren 4an, astelehena, Ipod bat galdu nuen Uarkape eta Aldaiko parkearen artean. Zilar kolorekoa da eta aurikular zuriak. Aurkitu baduzu, eskertuko nuke deitzea. 653 70 85 52

Mugikorra. Ekainaren 24an, goizean, telefona galdu nuen. Motorola etxekoa eta beltza da. Mesedez, aurkitu baduzu eskertuko nukezenbaki honetara deitzea: 688 62 49 11

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Euskara irakaslea (errelebo-kontratoa) eta lan poltsa

Bergarako Udal Euskaltegiak euskara-irakasle bat kontratatu, eta lan poltsa osatu behar du lehiaketa-oposizio bidez.

Baldintzak

- Irakasle-agiria, unibertsitateko diplomatura, lizentziatura edo gradua.
- C2. Proba egiteko aukera egongo da.

Instantziak

Instantziak aurkezteko epea 2016ko irailaren 8an bukatuko da, eguerdiko 12:00etan.

Oinarriak

Udal Euskaltegia, Barrenkalea, 33 (Irizar jauregia). <http://www.bergara.eus/eu/Udala/Antolaketa/Euskaltegia>

Informazioa

943 76 44 53 | euskaltegia@bergara.eus



ZORION AGURRAK



ARETXABALETA
Maddi Alarcia Iturri
Abuztuaren 22an, 9 urte. Zorionak eta ondo pasatu zure eguna, tia Kontxiren partetik.



OÑATI
Mikel Guridi Murua
Abuztuaren 14an, 10 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure egunian eta patxo handi bat, etxeko danon partetik!



ANTZUOLA
Garazi Diosdado Lizarazu
Abuztuaren 7an, 8 urte. Zorionak, printzesa! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu pila bat, etxekoan partetik.



BERGARA
Unai Beistegi Frias
Abuztuaren 5ean, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna, laguntxoekin eta familiarekin. Asko maitte zaitugu eta jarraitu zaren modukoa izaten. Patxo handi bat, guztion partetik.



BERGARA
Haizea Nuñez Izquierdo
Abuztuaren 4an, 14 urte. Zorionak, Haizea! Ondo pasatu zure eguna. Musu pilo bat zure osaba-izeba Balen eta Krisen eta, bereziki, Oierren partetik. Disfrutatu oporrak!



OÑATI
Maialen Urzelai Txintxurreta
Abuztuaren 3an, 9 urte. Zorionak, maitia! Muxu pilo bat zuretzako!



OÑATI
Garazi eta Eñaut Arriaran Idigoras
Abuztuaren 2an, Garazik 7 urte egingo ditu eta abuztuaren 6an, Eñautek 4 urte. Zorionak eta muxu handi bana, etxeko guztien partetik!



BERGARA
Maialen Garcia Urbiet
Abuztuaren 2an, 5 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo ospatu urtebetetze eguna eta patxo handi bat etxeko danen eta bereziki, Naroaren partetik.



ARETXABALETA
Uxue Ibabe Santamaria
Uztailaren 30ean, 9 urte. Zorionak, potxola! Azkenian heldu da zure eguna! Ondo-ondo pasatu eta disfrutatu zuk dakizun moduan. Muxu asko, etxekoan partetik. Zorionak!



OÑATI
Ander Castell Tejada
Uztailaren 26an, 2 urte. Zorionak, Ander! Gaur etxeko erregeak bi urtetxo egiten ditu. Segi horrela, maitia! Gurasoen, aiton-amonen eta osaba-izeben partetik. Muxu handi bat.



BERGARA
Ander Ortiz Lizarralde
Uztailaren 26an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Primeran ospatu zure seigarren urtebetetze eguna eta patxo handi-handi bat, familiako guztion partetik!



ARETXABALETA
Anita Aretxaga
Uztailaren 25ean, urtebetetzea. Zorionak, amama! Ondo-ondo pasatu eguna eta tori txoko-marrubizko patxo heraldoi bat, etxekoan partetik.



ANTZUOLA
Unai eta Iñaki Narbaiza
Uztailaren 25ean, Unai 4 urte egingo ditu eta Iñakik 40. Zorionak, bikote! Ondo-ondo pasatu eguna, Irairen, Malenen, Ingeren, amatzoren eta familiako guztion partetik. Muxu handi bat!



OÑATI
Izaro Agirre Zoilo
Uztailaren 25ean, 8 urte. Zorionak, guapísima! 8 urte. Ondo pasatu zure eguna eta prestatu belarriak. Muxu goxo eta potolo bat, etxekoan eta, bereziki, Marenen partetik.



BERGARA
Oihan Gisasola Sevilano
Uztailaren 25ean, 3 urte. Zorionak etxeko bihurri txikiari! 3 urte jada! Ondo pasatu eta patxo handi bat, etxeko danon partetik.



ARRASATE
Irati Horrillo Tierno
Uztailaren 25ean, 5 urte. Zorionak, Irati! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu handi bat etxeko danon partetik.



OÑATI
Leire Odriozola Zubia
Uztailaren 24an, 8 urte. Zorionak eta muxu potolo bat etxeko danon partetik. Ondo pasatu!



OÑATI
Xuban Villar Urrutia
Uztailaren 24an, 3 urte. Zorionak, Xuban. Ze handi in zaren! Ja 3 urte. Patxo potolo-potolo bat. Ilargiren, Auritzen, amatzoren eta aitatxoren partetik, guapeton.



BERGARA
Jurgi Larrea Perez
Uztailaren 24an, 6 urte. Zorionak, Jurgi, txapeldun! Ondo-ondo pasatu eguna eta patxo bat, familia osoaren eta, bereziki, Iratiren, Noraren, Eriken, Eleneren eta Aneren partetik.



ARAMAIO
Maria eta Libe Ayastuy Martinez
Libek uztailaren 1ean, 8 urte bete zituen eta Mariak uztailaren 23an, 11 urte egingo ditu. Zorionak, potxolak! Ondo pasatu zuen egunak eta oporrak. Patxo potolo bana, amama-aitxitxen partetik.



ARRASATE
Izar Azpiazu Barrena
Uztailaren 23an, 8 urte. Zorionak, Izar! Patxo potolo-potolo bat lagunen eta familixakuen partetik! Batez ere Danelena.



ARRASATE
Unax Beitia Jara
Uztailaren 22an, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Egun zoragarria pasa dezazula. Izugarri maite zaitugu. Mila muxu, familiaren eta, bereziki, Malenen partetik.



OÑATI
Marta Zubiagirre Ugarte
Uztailaren 22an, 8 urte. Jaso ezazu gure familiaren izenean zorion agurrak beroena. Urte askoan horrelaxe jarraitu dezazula, bihotz-bihotzez. Muxu handi ba, denon partetik.



ESKORIATZA
Itxaso Lopez Feijoo
Uztailaren 22an, 10 urte. Zorionak gurasoen partetik, printzesa! Egun ederra pasa dezazula! Muxu pila bat!



BERGARA
Maren Lezeta Iturralde
Uztailaren 21ean, 10 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure egunean. Muxu handi bat, familia osoaren eta, bereziki, zure arreba Marenen eta neba Aiurren partetik.



OÑATI
Iban Guridi Diaz
Uztailaren 21ean, 8 urte. Zorionak zure zortzigarren urtebetetze egun eder honetan. Orain arte bezala, beste urte asko bete ditzazula opa dizugu. Etxekoan partetik, maitte zaitugunon partetik, zorionak, belarritako tirakadak eta patxo handiak. Ikasketekin eta atezaintzarekin izaniko emaitza eder horiekin, beti aurrera!



BERGARA
Sara Unamuno Andueza
Uztailaren 20an, 5 urte. Zorionak, neska handi! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta patxo pila bat, etxeko guztion partetik.



LEGAZPI
Maren Gil Romaratezabala
Uztailaren 20an, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat, Arrasateko izeba Usoa eta Kettyren partetik!



OÑATI
Iker Serrano Lopez
Uztailaren 19an, 6 urte. Zorionak, Iker! Disfrutatu topera zure eguna eta jarraitu orain arte bezala. Muxu handi bat, etxekoan partetik!



OÑATI
Amets Zubia Aranzabal
Uztailaren 18an, 3 urte. Zorionak! Ondo pasatu zure egunian eta txokolatzeko patxo pillia Oñatiko eta Bergarako familiaren, eta bereziki, Haizearen partetik! Asko maitte zaitugu, artista!



ARAMAIO
Oihan Azkarate Arriolabengoa
Uztailaren 18an, 11 urte. Zorionak, laztana! Amandrea, amamak, aitaik, amatxo, aitaixo, osaba-izebak, Hegoi, Lide eta Garaziren partetik. Ondo pasatu eguna!



OÑATI
Oinatz Agirregabiria Agirre
Uztailaren 16an, 5 urte. Zorionak, Oinatz! Etxeko danon partetik, muxu handi bat.



ARRASATE
Esther Herrera Fernandez
Uztailaren 15ean, 43 urte. Egun handia gaurkoa, zure urtebetetzea da! Familiarekin eta lagunekin disfrutatu! Zure familia osoaren partetik, muxu goxoak, zorionak eta urte askotarako!



OÑATI
Luka Galdos Etxeberria
Uztailaren 14an, 6 urte. Zorionak, Luka!



DEBAGOIENA
Jon Regaño
Uztailaren 14an, urtebetetzea. Zorionak, Zeke! Gaur goizaldean eperrak esan digu zure eguna dela. Oso ondo pasatu eta disfrutatu. Aurten traguak merke urtengo jatzu. Patxo handi bat, betikoen partetik.



ESKORIATZA
Oihane Belategi Arrese
Uztailaren 5ean, 11 urte. Aupa, Oihane! Zorionak etxeko danon partetik eta urte zoragarri bat opa dizugu. Muxu bat hiruron partetik.



BERGARA
Ane Arana Mendizabal
Uztailaren 24an, 3 urte. Zorionak eta muxu potolo-potolo bat, Ane, zure urtebetetzean etxeko danon eta, bereziki Garaziren eta Markelen partetik. Ondo pasatu!



BERGARA
Laia eta Uxue Arrieta Arriola
5 eta 2 urte, uztailaren 27an eta 29an. Zorionak eta muxu potoloak etxeko danon partetik! Asko maite zaituztegu!



OÑATI
Maddalen Intxaurtieta Arregi
Uztailaren 30ean, urtebete. Zorionak, Maddalen! Ja urtetxo bat, maitia! Musu handi bat aitarean, amaren eta etxeko danon partetik. Bereziki zure lehengusu-lehengusina Sara, Paul eta Martin. Pa!

ASTEA GOIENAN



GOIENA

'Bota erronka' saioaren azken atala

Naomi Perez de Eulatek eta Lide Montesek aurkeztuta, beste hiru erronka gainditu beharko dituzte saioan. Rokodromoan proba bat pasa beharko dute, bertsotan jardungo dute eta janari mexikar pikantea jan beharko dute aurkezleek. Ez galdu! **'Bota erronka'** Eguena, 22:00



GOIENA

Abuztuan ere albistegia egunero

Informazioa jaso ahal izango da Goiena telebistan abuztuan ere uneoro. 10:30etan hasita, bi orduan behin eskainiko da albistegia bertako notizien berri emanaz. Beraz, Goienaren bitartez informatuta jarraitu ahal izango dute ikus-entzuleek abuztuan ere. **'Berriak'** Martitzena, 10:30

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 22

12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Bota erronka
13:00 Aniztasunean bizi
13:30 Korapilo
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Bota erronka
15:30 Jaiak: Antzuolako jaiak
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Ikusi irratia
18:00 Ur eta lur
18:25 Zorion Agurrak
18:30 Berriak
19:00 Kantari
19:30 Bota erronka
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Osoko bilkura: Bergara
23:00 Debagoiena zuzenean
23:30 Berriak
00:00 Amaia DJ
00:30 Debagoiena zuzenean
01:00 Berriak
01:30 Bota erronka

ZAPATUA, 23

09:00 Kantari
09:30 Platopic
10:00 Korapilo
10:30 Kantari
11:00 Debagoiena zuzenean
11:55 Astea iruditan
12:00 Bota erronka
12:30 Jaiak: Antzuolako jaiak
13:00 Osoko bilkura: Bergara
13:30 Erreportajea: Ehunmilak
15:30 Debagoiena zuzenean
16:00 Astea iruditan
16:05 Platopic
16:30 Kantari
17:00 Korapilo
17:30 Bota erronka
18:00 Jaiak: Antzuolako jaiak
18:30 Atlantikoa helburu
19:00 Debagoiena zuzenean
19:55 Astea iruditan
20:00 Kantari
20:30 Amaia DJ
21:00 Erreportajea: Ehunmilak
23:00 Bota erronka
23:30 Debagoiena zuzenean
00:00 Amaia DJ
00:25 Astea iruditan
00:30 Jaiak: Antzuolako jaiak

DOMEKA, 24

09:00 Kantari
09:30 Platopic
10:00 Korapilo
10:30 Kantari
11:00 Jaiak: Antzuolako jaiak
11:30 Erreportajea: Ehunmilak
13:30 Debagoiena zuzenean
13:55 Astea iruditan
14:00 Bota erronka
14:30 Amaia DJ
15:00 Jaiak: Antzuolako jaiak
15:30 Atlantikoa helburu
16:00 Platopic
16:30 Kantari
17:00 Korapilo
17:30 Osoko bilkura: Bergara
18:30 Debagoiena zuzenean
18:55 Astea iruditan
19:00 Erreportajea: Ehunmilak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:25 Astea iruditan
21:30 Atlantikoa helburu
22:00 Jaiak: Antzuolako jaiak
22:30 Bota erronka
23:00 Debagoiena zuzenean
23:55 Astea iruditan
00:00 Erreportajea: Ehunmilak

ASTELEHENA, 25

09:00 Kantari
09:30 Platopic
10:00 Korapilo
10:30 Kantari
11:00 Debagoiena zuzenean
11:55 Astea iruditan
12:00 Bota erronka
12:30 Jaiak: Antzuolako jaiak
13:00 Osoko bilkura: Bergara
14:00 Erreportajea: Ehunmilak
16:00 Platopic
16:30 Kantari
17:00 Korapilo
17:30 Bota erronka
18:00 Jaiak: Antzuolako jaiak
18:30 Atlantikoa helburu
19:00 Debagoiena zuzenean
19:55 Astea iruditan
20:00 Kantari
20:30 Amaia DJ
21:00 Atlantikoa helburu
21:30 Bota erronka
22:00 Debagoiena zuzenean
22:55 Astea iruditan
23:00 Jaiak: Antzuolako jaiak
23:30 Amaia DJ

MARTITZENA, 26

09:00 Platopic
09:30 Korapilo
10:00 Kantari
10:30 Berriak
11:00 Galdegazte
11:30 Osoko bilkura: Oñati
12:30 Berriak
13:00 Bota erronka
13:30 Erreportajea
14:15 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Debagoiena zuzenean
15:30 Pedalka
16:00 Bota erronka
16:30 Berriak
17:00 Txantxariak
17:30 Korapilo
18:00 Kantari
18:30 Berriak
19:00 Platopic
19:30 Pedalka
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Bergara chef
22:00 Debagoiena zuzenean
22:30 Berriak
23:00 Jaiak: Bergarako jaiak
23:30 Amaia DJ
23:45 Debagoiena zuzenean

EGUAZTENA, 27

09:00 Txantxariak
09:30 Korapilo
10:00 Kantari
10:30 Berriak
11:00 Debagoiena zuzenean
11:30 Erreportajea
12:15 Debagoiena zuzenean
12:30 Berriak
13:00 Ibilean
13:30 Galdegazte
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Debagoiena zuzenean
15:30 Osoko bilkura: Oñati
16:30 Berriak
17:00 Bota erronka
17:30 Txantxariak
18:00 Korapilo
18:30 Berriak
19:00 Kantari
19:30 Platopic
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Galdegazte
21:30 Pedalka
22:00 Debagoiena zuzenean
22:30 Berriak
23:00 Bergara chef
00:00 Pedalka
00:30 Berriak

EGUENA, 28

09:00 Platopic
09:30 Korapilo
10:00 Kantari
10:30 Berriak
11:00 Erreportajea
11:45 Debagoiena zuzenean
12:30 Berriak
13:00 Ibilean
13:30 Osoko bilkura: Oñati
14:30 Berriak
15:00 Debagoiena zuzenean
15:30 Bergara chef
16:30 Berriak
17:00 Ibilean
17:30 Txantxariak
18:00 Korapilo
18:30 Berriak
19:00 Kantari
19:30 Platopic
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Mahai-ingurua: Gemma Zabaleta eta Reyes Prados
22:00 Bota erronka
22:30 Berriak
23:00 Osoko bilkura: Oñati
00:00 Bota erronka
00:30 Berriak

ARRASATE IRRATIA

Asteko gainbegiraturua zapatuan eta domekan 10:00etan

Astean zehar Arrasate Irratian eskainitako elkarrizketen bilduma eskainiko da asteburuan 10:00etan. Tartean, bihar Eskoriatzan kontzertua eskaintzen izango den Belako taldeko Josu Billelabeitiari egindako elkarrizketa eta Dorleta Kortazarren eskutik gazte informazioa jasoko da.

Abuztuaren 29ra bitartean, zuzeneko musika 24 orduz

Uda honetan ere ez da etenik izango 107.7ko uhinetan, eta estilo askotako musikaz disfrutatu ahal izango da egunero, 24 orduz. Zuzeneko irratsaioekin, berriz, abuztuaren 29an itzuliko da Arrasate Irratia, *Uda giroan* saioarekin, 10:00etan. Bitartean, disfrutatu euskal musikarekin irratian.

EZKONTZAK ETA EZTEI-OSPAKIZUNAK



Peio eta Amaia

Peio Urtaza eta Amaia Hernandez Oñatin ezkonduko dira uztailaren 22an. Zorionak, bikote! Ongi pasatu egun berezi honetan eta muxu potolo bat familiaren eta, batez ere, Noaren partetik.



Aitor eta Itxaso

Itxaso eta Aitor Ubiden ezkonduko dira uztailaren 23an. "Zorionak, bikote! Ondo pasatu zuen egunian eta baita eztei-bidaian ere! Zoriontsu izan eta besarkada bat, kuadrillakuen partetik".



Isabel eta Daniel

Isabel Santamariak eta Daniel Lopezek 50 urte beteko dituzte ezkondata datorren uztailaren 30ean. "Zorionak eta mila esker guztiagatik, familia guztiaren partetik. Urrezko ezteiak guztiok elkarrekin ondo ospatu ditzagun eta segi holaxe beste urte pilatxo bat".



Nerea eta Roberto

Roberto eta Nerea uztailaren 30ean ezkonduko dira Arantzazun euren familia eta lagunez inguratuta eta bazkaria Itziazarren izango da. "Zorionak, bikote! Ahaztezina izango den eguna disfrutatu eta ondo pasatu! Zoriontsu izan! Besarkada handi bat bixon kuadrillan partetik!".



Aitor eta Marta

Aitor Villar eta Marta Cantera uztailaren 23an ezkonduko dira Dorletako santutegian. Familiaren eta lagunuen partetik, "zorionak eta ederto ibili zuen egunean, bikote!".

2. URTEURRENA



Bixente Mendibil Aiastui

2014ko uztailaren 31n hil zen, 85 urte zituela.

Bigarren urteurreneko meza uztailaren 31n, domeka, izango da, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Etorriko zaretenoi, alde z aurretik, mila esker. Bergaran, 2016ko uztailaren 22an.

URTEURRENA



Maria Basauri Unamuno

Julian Sarrao Alberdiren alarguna

2015eko abuztuaren 1ean hil zen, 89 urte zituela.

Urteurreneko meza uztailaren 31n, domeka, izango da, 11:00etan, Angiozarko San Migel elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran (Angiozar), 2016ko uztailaren 22an.

URTEURRENA

Patxi Kortabarria Araistegi

Presentacion Legorbururen alarguna

2015eko uztailaren 19an hil zen, 100 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, uztailaren 24an, 11:00etan, Antzuolako Errukizko amaren parrokian.

Izan zarenagatik eta erakutsi diguzunagatik, ez zaitugu inoiz ahaztuko.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Antzuolan, 2016ko uztailaren 22an.

ESKER ONA



Felix Basabe Gorrotxategi


2016ko uztailaren 16an hil zen, 67 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bereziki eskerrik beroenak Mizpirualde egoitzako langileei, Felixi eskainitako arretagatik.

Ez agurrik, ez adiorik, gera arte, Felix.

Bergaran, 2016ko uztailaren 22an.

ESKER ONA



Francisco Barrena Zabala

2016ko uztailaren 16an hil zen, 85 urte zituela.

Emaztea: Miren Gorostiza; seme-alabak: Juan Emilio (†) eta Olatz Arkauz, Andoni eta Miren Maite Izurategi, Jose Augusto eta Pilar Camacho; bilobak: Unai, Jone, Gaizka, eta Eba; arreba: Begoña; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

Arrasaten, 2016o uztailaren 22an.

ESKER ONA



Esteban Cuesta Dominguez

2016ko uztailaren 18an hil zen, 59 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Izan zarenagatik eta erakutsi diguzunagatik, ez zaitugu inoiz ahaztuko, ez zaitugu inoiz galduko, gure bihotz barrenean eramango zaitugu betiko.

Elisa, Ines, Amaia, Elisabet eta Eneko. Oñatin, 2016ko uztailaren 22an.

OROIGARRIA

Alex Barruso Lazkano

Arritxu Barruso lankidearen aita

Bat egiten dugu senideen saminarekin.

goiena“

Goiena Komunikazio Taldea. Bergaran, 2016ko uztailaren 22an.

OROIGARRIA

Alex Barruso Lazkano

Bi hilabete gure albotik joan zinala...

Maitasunak batuko gaitu, Oroimenetan elkartuko ga.

Besarkada gaxuenak

Iker, Ander, Arritxu, Gustavo, Aisha eta Kai. Bergaran, 2016ko uztailaren 22an.

OROIGARRIA

Igor Lete Aranburu

Bergaran hil zen 2008ko uztailaren 22an, 24 urte zituela.

Zu bezalako izarrak ez dira inoiz itzaltzen.

Maite zaitugu.

Zure familia. Bergaran, 2016ko uztailaren 22an.

OROIGARRIA



Iñaki Ubierna Inmaz

2003ko uztailaren 29an hil zen, 44 urte zituela.

Gogo barnekoa izan da gure maitasuna heriotzak askatuko ez duen lotura zu baitzinen nire bizitza, nere argia eta poza zurekin elkartu arte, maitia, behar dut zure laguntza.

Zure Marilu. Oñatin, 2016ko uztailaren 22an.

HILDAKOAK

Eufemio Gullon Garcia. Antzuolan, uztailaren 9an. 83 urte.

M. Purificacion Iturbe Urrutia. Arrasaten, uztailaren 14an. 90 urte.

Francisco Barrena Zabala. Arrasaten, uztailaren 16an. 85 urte.

Felix Basabe Gorrotxategi. Bergaran, uztailaren 16an. 67 urte.

Juan Mari Urtzelai Ugarte. Oñatin, uztailaren 17an. 82 urte.

Esteban Cuesta Dominguez. Oñatin, uztailaren 18an. 59 urte.

Javier Gaztelu Errasti. Eskoriatzan, uztailaren 18an. 73 urte.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire lana egoera kuttun batean zuekin egotea da. Azken agurrean maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure ase-guru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.



maribi 617 44 21 55 BERGARA

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskelak@goiena.eus
► Hileta egunean eskala Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 160 € / Goiena Klubeko bazkideendako 142 €
► Eskala mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 140 € / Goiena Klubeko bazkideendako 125 €
Goiena: irakurriena Debagoienean.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:
ARRASATE Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.
BERGARA Jardun elkarte: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.
OÑATI Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.
ELGETA Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.
ANTZUOLA Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

ZINEMA

EIBAR

COLISEO

Premonición

Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

Money monster

Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

ANTZOKIA

La leyenda de Tarzan

Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

GASTEIZ

FLORIDA

Angry Birds

Zapatua, domeka eta
astelehena: 12:00.

Ahora me ves 2

Egubakoitza, domeka eta
astelehena: 22:30.
Egubakoitzetik eguenera:
17:30, 20:00.

Antes de ti

Egubakoitzetik
astelehena: 22:30.
Martitzenetik eguenera:
21:00.

Buscando a Dory

Zapatutik astelehena:
12:00.

Egubakoitza, domeka eta
astelehena: 16:30, 18:30.
Martitzena, eguaztena eta
eguna: 17:00.

Ice Age

Zapatua, domeka eta
astelehena: 12:00.
Egubakoitza, domeka eta
astelehena: 16:30, 18:30.
Martitzena, eguaztena eta
eguna: 17:00, 19:00.

Infierno azul

Egubakoitza, domeka eta
astelehena: 20:30, 22:30.
Martitzena, eguaztena eta
eguna: 21:00.

La clase de esgrima

Egubakoitza, domeka eta
astelehena: 20:30, 22:30.
Martitzena, eguaztena eta
eguna: 19:00.

La leyenda de Tarzan

Egubakoitza, domeka eta
astelehena: 22:30.
Egubakoitzetik eguenera:
17:30, 20:00.

Lolo

Egubakoitza, domeka eta
astelehena: 18:40, 20:40,
22:30.
Martitzena, eguaztena eta
eguna: 19:15, 21:10.

Mi amigo el gigante

Egubakoitzetik
astelehena: 16:30.
Zapatutik astelehena:
12:00.
Martitzena, eguaztena eta
eguna: 17:00.

Money monster

Egubakoitzetik
astelehena: 18:45,
20:40.
Martitzena, eguaztena eta
eguna: 19:10, 21:00.

Sunset song

Egubakoitzetik
astelehena: 22:30.
Egubakoitzetik eguenera:
17:00, 19:45.

Un espía y medio

Egubakoitzetik
astelehena: 16:30.
Martitzena, eguaztena eta
eguna: 17:00.

BOULEVARD

Ahora me ves 2

Zapatua: 23:30.
Egubakoitzetik eguenera:
16:00, 17:15, 18:15,
19:50, 22:25.

La leyenda de Tarzan 3D

Egubakoitzetik eguenera:
21:10.

La leyenda de Tarzan

Zapatua: 00:00.
Egubakoitzetik eguenera:
16:00, 17:15, 18:15,
19:30, 20:30, 21:45,
22:45.

Infierno azul

Zapatua: 00:15.
Egubakoitzetik eguenera:
16:15, 18:15, 20:15,
22:15.

Ice Age

Zapatua: 00:15.
Egubakoitzetik eguenera:
22:40.

17:00, 18:00, 19:00,
20:00, 21:00.

Ace lge 3D

Egubakoitzetik eguenera:
16:00.

Buscando a Dory

Egubakoitzetik eguenera:
16:00, 18:15, 20:30.

Un espía y medio

Zapatua: 00:45.
Egubakoitzetik eguenera:
16:05, 18:15, 20:25,
22:35.

La noche de las bestias

Zapatua: 00:45.
Egubakoitzetik eguenera:
16:05, 18:15, 20:25,
22:35.

Mi amigo el gigante

Egubakoitzetik eguenera:
17:10.

Money monster

Egubakoitzetik eguenera:
19:40.

Independence day

Zapatua: 00:20.
Egubakoitzetik eguenera:
21:45.

Antes de ti

Zapatua: 00:15.
Egubakoitzetik eguenera:
22:00.

Expediente Warren

Zapatua: 23:00.

Premonición

Zapatua: 00:45.
Egubakoitzetik eguenera:
22:40.



LAPULGAFLAMENCO

ARRASATE 'Berriketan' ikuskizuna

Euskal sustraiak eta flamenkoa bateratzen dituen proiektuak itxiko du *Udazabal* zikloa. Perkusioaren, gitarraren, dantza-ren eta txalapartaren arteko "elkarrizketa" ikusteko eta entzuteko aukera ematen duen ikuskizuna da. Etzi, domeka, Herriko Plazan, 20:00etan.

NON-ZER

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.

Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

MUSIKA

BERGARA Broken Brothers Brass Band

New Orleansko doinuak datoz Iruñe aldetik. Funka, gospela eta jazz modernoa izango dituzte hizpide. *In the mud* diskoa aurkeztuko dute, *Berumuga* zikloaren barruan. Doan.
Gaur, egubakoitza, Espoioian, 22:00etan.

OÑATI Gaitzerdi, Skaleak eta Denbora Galdua taldeak eta Kaotikoren bertsioak

Madalena jaietako kontzertua.
Gaur, egubakoitza, Santxolopetegin, 22:00etan.

ESKORIATZA Big Band Berri

Errekan Gora zikloaren barruan. Doan.
Gaur, egubakoitza, Txistularien arratea plazan, 22:30ean.

JAIK

OÑATI Madalenako jaiak

Santxolopetegi auzoan ospatuko dituzte, gaurtik domekara arte. Besteak beste, pilota txapelketa, kontzertuak, Irrien Lagunak, puzgarriak, erromeria, meza eta lunkha eta herri kirolen desafioa egingo dituzte. Informazio gehiago Oñatiko orrietan. Aste bukaeran, Santxolopetegi auzoan.

ESKORIATZA Maringo jaiak

Madalena jaiak ospatuko dituzte. Bihar, zapatua: jaien hasiera Arientzako kanpai-jotzaile eskolako eskutik (18:00), auzo afaria (21:00) eta erromeria Jainaga eta Narbaiza trikitilariekin. Domekan: meza (11:00) eta ostean, lunkha. Bihar eta etzi, Marin auzoan.

ARETXABALETA Goroetako jaiak

Santixau jaiak ospatuko dituzte. Zapatuan: kanpai errepikak (18:00), umeendako jolasak eta txokolate-jana (18:30) eta txikiteoa (20:00).

Domekan: meza (12:00), txikiteoa (13:00), auzo-bazkaria (14:00) eta kanpai errepikak (18:00). Astelehenean: meza (12:00), ostean lunkha bertso eskolakoekin eta mus eta briska txapelketak (16:30). Aipatutako egunetan eta orduetan, Goroeta auzoan.

BERGARA Basalgoko jaiak

Santiago jaiak ospatuko dituzte: meza, txirrindularitza igoera, Peñagarikanoren eta Mendiluzeren bertso saioa, erromeria eta lunkha egingo dituzte, besteak beste. Uztailaren 24tik 26ra, Basalgon.

BERGARA Goimendiko jaiak

Santiagoren omenezko jaiak ospatuko dituzte. Uztailaren 25ean, Goimendin.

BERGARA Boluko jaiak

Santa Anaren omenezko jaiak ospatuko dituzte. Uztailaren 26an, Boluan.

ARAMAIO San Esteban jaiak

Uribarriko jaiak ospatuko dituzte uztailaren 29tik 31ra. Barikuan: 19:30ean, txupinazoa eta kanpai-jotzea; eta, 21:00etan musika eta kantu afaria. Zapatuan: 12:00etan, meza; 13:00etan, bolo txapelketa; 13:00etan, trikitilariekin auzo-jira; 14:00etan, txalaparta; 17:30ean, briska eta mus txapelketak; 18:00etan, umeen jolasak; eta, 20:00etan herriko musika taldeen kontzertua. Domekan: 12:00etan auzoko hildakoen aldeko meza; 12:30ean briska eta mus txapelketaren finalak; eta, 14:15ean, sari banaketa. Aipatutako egunetan eta orduetan, Uribarri auzoan.

ERAKUSKETAK

BERGARA Martxe Arana

Pintura lanak ipini ditu ikusgai. Azken egunak. Uztailaren 24ra arte, Aroztegin.

ESKORIATZA Belako

Errekan Gora zikloaren azken emanaldia. Mungiako laukoteak, punk-rock doinu gordinak eta gaur egungo melodia elektroniko beroak eskaintzen ditu abestietan. 2011n sortutako taldeak *Hamen* diskoa aurkeztuko du. Josu Ximun, Cris, Lore Nekane eta Lander dira taldeko kideak. Doan. Bihar, zapatua, Huheziko klaustroan, 22:30ean.

UZTAILA 22
UZTAILA 31

ARETXABALETA Pinturak

Ainhua Caberoren ikasleek ikasurtean zehar egindako lanak ikusgai. Uztailaren 29ra arte, Arkupen.

BERGARA Jabier Baldr

Pintura lanak ipiniko ditu ikusgai. Erakusketa uztailaren 29an zabalduko dute, martitzenetik domekara. Aroztegin, abuztuaren 21era arte.

ARRASATE 'Dinbi, danba, mailukaren hotsa'

Bixente Barandiaranek eta XIX. mendeko Arrasatek burdingintzarekin izan zuten harremana erakusten da. Harresi aretoan, irail bukaera arte.

OSPAKIZUNAK

OÑATI Duru Eguna

11:00etan meza Aierdiko aterpean eta ostean salda beroa eta pintxoak; 12:00etan artzain-txakur erakustaldia eta gazta dastatzea Unaimendin; 13:00etan kalejira Unaimendi, Azkonar Zulueta, Korostabil eta Hor Konpon txabolatan; eta 15:00etan, bazkaria. Etzi, domeka, aipatutako lekuetan eta orduetan.

ARAMAIO Santiago eguna

Gureian egingo dituzte ospakizunak. Uztailaren 25ean, aipatutako lekuan, 12:00etan.

ZINEMA

ARETXABALETA 'Surfak zoratuta' eta 'Point break, sin limites'

Lehena euskaraz emango dute 19:30ean, eta, bigarrena, gaztele-raz, 22:00etan. Gaur, egubakoitza, Iturrigorriin.

OÑATI 'Chef' filma, euskaraz

Kalean egitasmoaren barruan. Uztailaren 27an, Foruen plazako frontoian, 22:15ean.

Ametsak eta irudimena



SENSACINE.COM

Steven Spielbergekin urte asko darama zinema munduan. Mota desberdinetako filmak egin baditu ere, bere lanetan antzematen da zinematik duen indar magikoa. Haurtzarozan zinemara hurbiltzen garenean liluraturik geratzen gara pantaila handian ikusitakoarekin. Lehen kontaktu hori oso adierazgarria da. Zinemak harrapatzen bazaitu, betiko da. Spielbergen lanak ikusten ditugunean, igartzen dugu zuzendariarengan txikitari sortutako sugarrak piztuta irauten duela. Zinema-aretoa joatea eta eguneroko gauzak alde batera uztea beste istorio edo mundu baten sartzeko oso atsegina izaten da. Spielberg ikusle izatetik zuzendari izatera pasa arren, oraindik jarraitzen du magian eta ametsetan sinisten.

Mi amigo el gigante ametsen garrantzia aldarrikatzen duen lana da. Filma Roal Dahl-en ipuin baten oinarritzen da. Honek *Charlie y la fábrica de chocolate* idatzi zuen. Bi lanetan agertzen dira haurrak mundu magiko baten barneratzen. Kasu batean, haurrak gozokiz beteriko mundu

MI AMIGO EL GIGANTE ★★★★★

Zuzendaria: Steven Spielberg.

Herrialdea: AEB.

Aktoreak: Mark Rylane, Ruby Barnhill.

baten murgiltzen dira. Azken honetan, neskatala bat erraldioen mundu fantastikoan murgiltzen da. *Mi amigo el gigante* nahiko film berezia da: inuzente eta logika gutxiko istorioa da. Umezurtza den neskatala bat erraldio mundura doa. Mundu horretan, ametsen garrantzia sumatzen dugu. Errealitateetik fantasiazko mundura doa neskatala eta, azken finean, fantasiazko mundua errealitateko munduarekin nahastuko da.

Mi amigo el gigante film berezia da. Kontatzen den istorioan sartu edo bestela kanpoan geratzen zara. Ez da gauza gehiegi gertatzen, ez da erritmo eta ekintza handiko istorioa. Sekuentzia luzeak daude eta zehaztasun handiz azaltzen dira: neskatalaren bahiketa, erraldoiaren etxea, Buckingham Palaceko sekuentzia.

ANTONIO ZABALA



BELAKO

BERGARA 'Vacaciones'

Gazteleraz emango dute. Eguraldi txarra egiten badu, Seminarioko karpan. Uztailaren 26an, San Martin plazan, 22:15ean.

ARETXABALETA 'Monster house' eta 'El puente de los espías' Biak gazteleraz: lehena 19:30ean eta bigarrena 22:00etan. Uztailaren 29an, Herriko Plazan.

IRTEERA

DEBAGOIENA Degurixako kanpaldia Bailarako herritarra elkartuko da. Uztailaren 23tik 25era.

BISITA GIDATUAK

OÑATI Unibertsitatea eta parrokia Turismo bulegotik abiatuko dira, 13:00etan eta 17:00etan. Etzi, domeka, aipatutako lekuan eta orduetan.

LEINTZ GATZAGA Gatz Museoa Uztailan eta abuztuan egunero egingo dituzte bisita gidatuak: 12:00etan izango da euskarazkoa eta 13:00etan gaztelaniazkoa. Aurrez eman behar da izena 943-71 47 92 telefonoan. Izen-ematea, aipatutako telefonoan.

KIROLAK

ARRASATE Eibar-Sanse Lagunarteko partidua jokatu dute. Sarrerak salgai daude Monteta eta Ziorla tabernetan: 4-16 urte artekoak hiru euro eta 16tik gorakoak, zortzi euro. Gaur, egubakoitza, Mojategin, 19:00etan.

LEINTZ GATZAGA XIX. Gatzagako Igoera Eskomotor eta A+Gas taldeek bat egin dute lasterketa antolatzeko. Proba Euskal Herriko txapelketarako puntuagarria izango da eta ibilbide berria izango du: 4,8 kilometrokoa. Bihar, zapatua, Leintz Gatzagan, 16:00etan.

DEIA

ARRASATE Odol ateratzea Bereziki emaila berriei egiten diete dei. Gaur, egubakoitza, Eroskin, 09:30ean.

OÑATI Espeleotxiki Arrikruzteko pasarela kanpoko abentura familia osoarendako. 6 urtetik gorakoak heldu batekin joan behar dira. Aurrez izena ematea komeni da, 943-08 20 00 telefonoan. Bihar, zapatua, Arrikruzten, 15:30ean.

BERGARA Jon Zabal Bilboko mentalistaren ikuskizuna. Magia, ilusionismoa, ezustekoak eta misterioa dira Jon Zabalen emanaldiaren oinarriak. Ikusleen pentsamenduak irakurtzeko saiakerare ere egingo du, eta hartueman zuzena izango du eurekin. Askotariko trukuak eta trikimailuak erabiliko ditu Uztailaren 28an, Munibe plazan, 19:00etan.



JON ZABAL

BERGARA Eibar-Reala Abuztuaren 10ean Kilometroen alde jokatu dute partidurako sarrerak salgai daude dagoeneko bailarako hainbat lekutan. Bihar, zapatua, Arrikruzten, 15:30ean.

UMEAK

ARETXABALETA 'Beti lagun' Rosa Mari Martinezek ipuin kontaketa saioa egingo die umeei. Laguntasuna izango du hizpide. Uztailaren 27an, komentuko lorategian, 19:00etan.

IZEN-EMATEA

OÑATI Ur-ekintzak eta igeriketa ikastaroak Gaur, uztailak 22, eta irailaren 5etik 8ra eman behar da izena 2016-17 denboraldian ur-ekintzatan eta igeriketa ikastaroetan parte hartu ahal izateko. Behin betiko zerrendak irailaren 23an publikatu dituzte eta ikastaroak urriaren 13an hasiko dira. Izen-ematea, aipatutako egunetan.

OÑATI Haurren danborrada 2007an eta 2008an jaiotako neska-mutikoek parte har dezakete danborradan. Izen emateko azken

eguna abuztuaren 31 da, eta eskaerak kultura etxean jarritako postontzian utzi behar dira. Zozketa irailaren 1ean egingo dute eta entseguak irailaren 6an hasiko dira. Bihar, zapatua, aipatutako lekuan, 19:00etan.

OÑATI II. mendi martxa Oñatiko II. mendi martxan parte hartzeko izena emateko epea zabalik dago jadanik. Aloña Mendi tabernan eta www.kirolprobak.com atarian eman daiteke izena. Izen-emate bakoitzeko euro bat bideratuko dute Hotz Oñati taldearendako. Mendi martxak bi ibilbidea izango ditu: 27 kilometrokoa bata, eta 37,25 kilometrokoa besta. Irailaren 17an egingo dute mendi martxa. Izen-ematea aipatutako lekuetan.

SALMENTA

OÑATI Lizargarate Egunerako txartelak Abuztuaren 28an ospatuko dute festa, baina alde aurretik erosi behar dira hara joateko txartelak. Izarraitz eta Arrano tabernetan daude salgai, 22 eurotan. Hamarretakoa, bazkaria eta afari-merienda daude prezioaren barruan. Azken eguna, abuztuak 21. Txartelak salgai, aipatutako tabernetan.

LEHIAKETAK

ARETXABALETA Kanpai joleen argazki lehiaketa Entzun bakarrik egiten diren kanpai hotsen alderik gizatiarrena erakutsi beharko da erretratuetan. Lanak irailaren 15a baino lehen entregatu behar dira kanpaijoleak@gmail.com edo kultura@aretxabaleta.eus helbideetan. Lanak entregatzeko epea, irailaren 15a.

DEBAGOIENA Udako argazkiak Udako argazkien XII. Goiena lehiaketan parte hartu gura dutenek argazkiak@goiena.eus helbidera eta Goienaren egoitzara eraman behar dituzte erretratuak. Irailaren 18ra arte jasoko dira argazkiak, eta irabazleak urriaren 14an jakinaraziko dira. Lanak entregatzeko epea, irailaren 15a.

BESTELAKOAK

DEBAGOIENA Baserriko plastikoak Baserrietan erabiltzen dituzten plastiko zuriak eta beltzak batuko dituzte, herri bakoitzean zehaztutako puntuetan. Bilketa hilaren 26an egingo da. Plastikoak aurreko egunean atera behar dira. Uztailaren 26an, herrietako puntuetan.

Zorionak denoi!

Hauek dira Goiena Klubeko uztailleko zozketetako irabazleak



REINCIDENTES CD + DVD-A
Nerea Perez Idigoras (Arrasate)

LIBURU SORTA
Iñaki Gantxegi Bergara (Bergara)

ARRIKRUTZ KOBETARAKO BINA SARRERA
Garbiñe Beitia Baños-Antigua (Bergara)
Luken Martin Izurategi (Aretxabaleta)
Maribi Visitacion Zabaleta (Bergara)

HARREMAN DENDAKO OTARREA
Edurne Iñarra Bastardo (Bergara)

LARRINETXE JATETXEAN BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Aritz Urbina Miranda (Bergara)

DUKIENA JATETXEAN BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Felipe Aranzabal Altuna (Bergara)

SIRIMIRI JATETXEAN BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Xabier Elgezabal Uribarren (Bergara)

URRETXINDORRAK KONTZERTURAKO SARRERAK
Angel Arizabaleta Padilla (Bergara)
Jon Balentziaga Larrañaga (Bergara)

SARIAK JASOTZEKO:

Arrikruzteko sarrerak. Goiena klubeko txartela erakutsita, bina sarrera izango dituzue Arrikruzteko txarteldegian. Sarrerek 3 hilabeteko epe muga izango dute. **ARRIKRUTZ KOBAK.** Araotz Auzoa, OÑATI, 943 08 20 00. Ordutegia: Asteartetik Igandera 10:00 - 17:00 (Aurrez deitu hitzordua egiteko) **Harreman dendako otarrea** Otarrea jasotzeko, jo zuzenean, bazkide txartelarekin. Harreman dendara, Arrasateko Eroski hipermerkatuan duen dendara. **Beste sariak.** Zatoz, GOIENArekin egotzara uztailaren 27a baino lehenago. Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA erakutsi edota BAZKIDE ZENBAKIA jakitera eman beharko da. GOIENA Otolara Lizentziaduna, Arrasate: 943 25 05 05. Ordutegia: Astelehenerdik eguenera: 09:00 - 18:00. Egubakoitzetan: 08:00 - 14:00.

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

Bi lagunendako otorduen zozketa astero Puntuan. Hartu parte eta... on egin!

Goiko Benta jatetxean
prestatutako
etxeko arkumea
labean erreta



puntua

'PUNTUA' ORAINDIK ETXEAN JASOTZEN EZ BADUZU:
943 25 05 05 edo **Puntua.eus** edo Whatsapp: 688 69 00 07

goienakluba

goiena

2016-07-22

BUKATZEKO

Paretak kolorez eta elkarlanez betetzen

- 'Gu haziak gara' elkarteko partaideek Ilargi plazako paretak eta tunela margotu dituzte
- Adin eta jatorri askotariko 23 pertsonak egindako muralarekin talde-lanaren onurak jorratu dituzte

XABI GOROSTIDI | ARETXABALETA

Gu haziak gara elkartea kanpotik datozenei gizarteratzen laguntzeko asmoz sortu zen 2013an. Ordutik hona ez zaie lanik falta izan, baina pixkanaka ari dira euren helburua errealitate bihurtzen.

Oraingo honetan, herriko paretak koloreztatzen egin dute beste urrats bat. Paretak hutsalei bizia emateaz gain, ezberdinen arteko elkarlana sustatzeko baliatu dute egitasmoa.

Pintura eta elkarlana

Gu haziak gara-ko kideek Zainduz elkarteko lokalaren kanpoaldean margotzeko enkargua jaso zuten. Partaideak oso gustura aritu ziren, eta pozik amaitu zuten emaitzarekin. Hirusta jatetxeko jabeek, ekimena ikusita, euren lokaleko kanpoaldean margotzeko proposamena egin zieten.

Lantaldeko partaideak gehiago margotzeko gogoz zeudenez, segituan jarri ziren bigarren enkarguarekin. Hasiera batean, emakumeekin eta haurrekin egiteko proiektua bazen ere, margotze-lanak egiten ari ziren bitartean hainbat gizonezko gehitu zitzaizkien modu boluntarioan. Antolatzaileen esanetan: "Gure



Margotze-lanetan aritutako partaideetako batzuk, murala atzean dutela. | MIRARI ALTUBE



Tunela kolorez beteta. | MIRARI ALTUBE

iritziz, errespetuz eta berdintasunez lan egiterakoan, ez dago aitzakiarik inor baztertzeko". Marokon, Mexikon, Kolonbian, Saharan, Txilen, Espainian eta Euskal Herrian jaiotako 7 eta 56 urte bitarteko 23 lagunek parte hartu zuten margotze-lanetan.

Beraz, kolore, jatorri eta adin askotariko proiektuari esker, bizia eman diote Ilargi plazari.

Pausoz pauso

Margotze-lanetan aritu direnek lantaldean aritzearen onurak ezagutu dituzte.

Horrez gain, mural bat egiteko prozesua barneratu dute. Lehenik eta behin, paretak lixatu dituzte; ondoren, zuriz margotu; eta jarraian, zirriborroa egin dute arkatzarekin. Bukatzeko, kolorea eman, eta paretak bernizatu dute.

AZKEN BERBA

IDOIA
ETXEBERRIA



Pokemon parkean

Teo hondartzan. Teo parkean. Teo zooan. Teo alde guztietan zegoen. Umeak gineneko liburuetan.

Orain Pokemon da. Pokemon hondartzan. Pokemon parkean. Eta ez da liburutako kontua. Nik ez dut ikusi, baina badakit Pokemon etxe ondoko parkean dabilela. Ez dut ikusi, birtuala delako. Pokemon hori ehizatu nahian ikusi nituen bi gazte, sakelako telefonoarekin. Telefono *adimentsuarekin*.

Telefonoa hitz egiteko asmatu zuten. Seinale elektrikoen bitartez ahotsa garraiatzeko. Urrutitik hitz egiteko: urrutizkina. Baina orain horretarako erabiltzen da gutxien. Whatsapp eta sare sozialak dauzkagunetik, komunikatzeko ez dago ahotsaren beharrik.

Orain telefonoa ez da komunikatzeko bakarrik. Denbora-pasarako ere bada. Eta jolas-teko. Bideojokoak dira horren adibide. Asko daude. Baina *Pokemon Go* izeneko iraultza ari da izaten. Mundu erreala eta mundu birtuala batzen dituelako. Fikzioa eta errealitatea. Eta tankerako beste bideojoko batzuk etorriko dira laster, seguru. Mundua fikziozko pertsoniaz beteko zaigu.

Tira, hala, behintzat, gaztetxoak etxezulotik aterako dira. Kanean jolastuko dute. Fikzioa eta errealitatea nahasten ez dituzten bitartean...



NISSAN QASHQAI N-CONNECTA

KONTROLATU EZEZAGUNA DENA. MENDERATU HIRIA.



ARABAUTO

Gamarrako Atea 46 A-B, 01013 Vitoria-Gasteiz. Araba - Tel: 945 262 501 - www.arabautocars.com

Kontsumo mistoa: 3,8-6 l/100km. CO₂ isurpenak: 99-138 g/km